



Irune IZKUE
→ 54

Aizkora probatu eta guttira, txapeldun

KIROLA → 55
Kokkor Biltzen Nafarroako txapeldun Maika Ariztegi

2017ko ekainaren 29a | XXXVII. urtea | 689. zenbakia

Herrietako bestak
Sanferminak Lesakan eta Azpilkuetan

GOIZUETA → 41
'Goizuetan bada' antzerki ibiltaria uztailaren 1ean

LEITZA → 43
Herri-aretoaren alde sinadura bilketa hasi dute

BAZTAN → 44-48
Aroztegiko proiektua eztabaidaren erdian

HAURREN TRANSEXUALITATEA

Itzala ez denean norberaren isla



ERREPORTAJEA → 4-5

Beltza edo zuria. Zakila baduzu gizonezkoa zara; eta ez baduzu, emakumea. Genitalek markatzen dute oraindik orain gure generoa. Batzuetan, ordea, pertsona batek sentitzen duen sexua ez dator bat genitalen arabera ezarritako sexuarekin. Badira zakila duten neskak eta alua duten mutilak. Ikerketa berrienen

arabera, mila pertsonatik bat egonen litzateke transexualitate egoeran. Gaiari buruz solasteko Amaia Sagastibeltza pediatra leitzarrarekin bildu da TTIPI-TTAPA. Gaia gizarteratzeko premiaz hitz egin du: «haur hauek beraien burua gehiago maitatu eta hainbat arazo ekiditeko modua izan daitekeelako».

III. Argazki lehiaketa abian da *erran.eus* atarian

→ 36



Ernesto PRAT URZAINKI | Lekarozko idazlea
«Herritarren Baztan ageri da, ez lainoen azpiko Baztan bukoliko eta turistikoa»

Telleria eta gero, zer? izenburupean, bere hirugarren eleberria kaleratu du Lekarozko idazleak Elkar argitaletxearekin. Nobela beltza da eta bere hitzetan, Aroztegiko proiektuarekin paralelismo handia du. Horrekin batera, liburuan herri mugimenduaren Baztan ageri dela azpimarratu nahi izan du.

ELKARRIZKETA → 3

GALDEKETAK → 24
3.493 lagunek eman dute botoa herri-galdeketa

Bortzirietan 1.914 lagunek eman dute botoa eta 1.579k Leitza, Goizueta, Areso eta Aranon. Antolatzaileek balorazio baikorra egin dute: «bide berri bat hasi dugu Nafarroan».

ZOKKETAK → 64



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzi **info@ttiipi.eus** helbidera.



SUKALDEA BERRITU NAHI?

Sukalde berriaren diseinu eta gremio guztien koordinazioa.
Utzi gure esku zure sukalde berria!

Antenak, satellite bidezko instalazioak | Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak | Lantegietako mantenu lanak.

T. denda 948 631 217 | T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA | jaurenabera@gmail.com

Etxetresna elektriko
salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa



TTIPI-TTAPA	26.000 IRAKURLE
DIARIO DE NAVARRA	14.000 IRAKURLE
DIARIO DE NOTICIAS	12.000 IRAKURLE
GARA	7.000 IRAKURLE
7 HAIZETARA	6.000 IRAKURLE
GAUR 8	4.000 IRAKURLE
BERRIA	3.000 IRAKURLE
ARGIA	1.000 IRAKURLE
BESTE BATZUK	6.000 IRAKURLE

SEXUAREN ARABERA	
GIZONAK	%52,70
EMAKUMEAK	%47,30

ADINAREN ARABERA	
14-24 URTE	%12,20
25-34 URTE	%08,00
35-44 URTE	%21,60
45-54 URTE	%30,00
55-64 URTE	%13,80
+64 URTE	%14,40

IKASKETA MAILAREN ARABERA	
IKASKETARIK GABE	%28,60
DINARRIZKO BATXILERGOA	%17,00
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%21,70
UNIBERTSITATEA	%32,70

DATU ITURRIA: CIES, 2017KO LEHENENGO NEURKETA

Telleria eta gero, zer? izenburuean, bere hirugarren eleberria kaleratu du Ernesto Prat Urzainki baztandarrak Elkar argitalexarekin. Bere hirugarren eleberria da eta

bere hitzetan, «herritarren Baztan agertu dut liburuan, ez lainoen azpiko Baztan bukoliko eta turistikoa». Izenburuak «helburu bikoitza» omen du: Aroztegiko proiektua-

rekin paralelismoa bilatzen saiatu dela adierazi digu, baina gisa berean, jendearren jakin-mina piztu nahi izan duela ere aitortu digu, galderaren erantzuna bila dezan.

Ernesto PRAT URZAINKI | 'Telleria eta gero, zer?' liburuaren egile baztandarra

«Orokorrean literaturak ezagutzen ez duen Baztan ageri da nobelan»

G. PIKABEA | LEKAROZ

Nolatan eman zenuen liburua idazteko pau-soa?

Ihesean nintzela, 2009an, *Aroztegia... eta gero zer?* plataformaren eskuorri bat ailegatu zitzaidan. Baldintza haietan zaila nuen egitasmo espekulatzailaren kontrako borrokan parte hartzea, eta zer edo zer idatz nezakeela pentsatu nuen. Lehen zirriborroa orduko da, eskuz idatzia. Prentsatik bildutako artikulua erabili nituen dokumentazio gisa. Ondotik, (H)ilbeltzarekin lotua joan da zirriboroen garapena eta Euskal Nobela Beltzaren Aspetean ikasitakoa islatzen ahalegindu naiz. Protagonistari, errate baterako, Itxaro Bordaren solasaldi baten ondotik aldatu nizkion sexua eta joera sexuala. Jon Alonsoren *Beltzaren koloreak* liburua ere lagungarria izan da.

Aroztegiko proiektuari erreferentzia egiten dio la pentsa daiteke izenburua irakurrita...

Izenburuak helburu bikoitza du. Batetik, Aroztegiko gatazkarekin paralelismoa bilatzen du eta bertzetik, irakurlearen jakin-mina piztu nahi du, galderaren erantzuna bila dezan. Edozein modutan, irakurleak argi eduki behar du nobela dela, fikzioa, ez Aroztegiari buruzko saiakera bat. Protagonistak pakete arraro bat aurkituko du eta, jakin go-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ernesto Prat Urzainki bere azken liburua eskuetan duela.

sez, nondik atera den argitzen ahaleginduko da. **Herritarren Baztan ageri dela nabarmendu nahi izan duzu, ez lainoen azpiko Baztan bukoliko eta turistikoa. ...**

Usu literaturak landu edo sortu duen Baztan ez zait interesatzen, are gutiago dena postal turistiko bilakatze joera kontsumista. Kanpotik sortutako irudia dela erranen nuke. Nik ezagutzen dudana Baztan agertu dut nobelan. Berriki, Elurre Iriarte Bañezen *Landa eremua eta Baztan literaturak kontatu* liburuxka irakurrita, nolako Baztan agertzen zen galdetu nion nire buruari, eta herri mugimenduen Baztan ageri dela ohartu nintzen: gaz-

MUSIKA LIBURUAN
«Musika denon egunerokoan dago txertatua, uste duguna baino gehiago. Autoan, ostatuan, dendan, sakelekoan, bankuan, telebistan, lanean, irratan... Ez gara ohartzen baina musikak gure bizi miserableen isiluneak betetzen ditu. Nobelaren eszena nagusietan dagoen musikak lekua edota egoera deskribatzen du. Normala denez, bertako musika taldeak agertzen dira kontakizunean.»

tetxeroa, bestazalea, borrokalaria... Orokorrean, literaturak ezagutzen ez duen Baztan.

Zer du asmatutik eta zer egiazkotik liburuak?

Dena da asmatua, egia dena izan ezik [kar-kar-kar]. Liburu bat irakurtzen dudalarik errealitatearen eta fikzioaren arteko muga non dagoen ez jakitea gustatzen zait. Horrek, nire irudiko, erakargarri egiten du liburua. Nire liburuaren ere horrekin jolas ten dut, irakurleak ondorio propioak atera ditzan. **Nobela beltza dela ere azpimarratu izan duzu, ez dela poliziakoa...**

Nik maite ditudan nobela beltzen eskema klasikoa honakoa da: zerbait gertatzen da, bertsio ofizia-

lak gertaera azaltzen du, norbaitek (detektibeak, kazetariak, herritarrek...) ez du bertsio ofiziala sinesten eta egia dela abiatzen da. Egia nobelaren bukaeran jakiten da, bertsio ofizialaren gainetik. Polizia nobeletan, aldiz, zerbait gertatzen da (hilketa bat normalki), eta gertaera argitzeko ikerketa abiatzen du protagonistak (polizia batek normalki). Arras modu sinplista eta eskematikoan azaldu dut, eta ez da beti horrela, baina gehiengotan bai. Ni daltonikoa naiz poliziek eta ez ditut beren koloreak desberdintzen. Nire ustez, poliziek ez dute sinesgarritasunik (gutiago Euskal Herrian) egia dela ibiltzeko, ezta literaturan ere.

Izenburuak badu erantzunik?

Zementuzaleak aseeginak dira. Gure gurasoei erran zieten Lemoiz gabe kandlekin argituko genituela etxeak. Itoitz gabe pikutara joanen zirela gure nekazariak. AHT gabe Europatik zokoratuak geldituko ginela. Baztanen ere, Belaungo errepidea behar omen genuen, Erdizko harrobia, Elizondoko saihesbidea, Arraiozko merkataritza-gunea, Aroztegia... Telleria eta gero, zer? galderaren erantzuna zentzurik gabeko garapen kapitalistak emanen du, lanaren, turismoaren eta espiritu santuaren izenean. Amen.

GIZARTEA → HAURREN TRANSEXUALITATEA

Sexu-identitatea ez dago hankartean, buruan baizik

Argi diote adituek: «transexualitatea sexu nortasunaren beste aldaera bat da»

Batzuetan pertsona batek sentitzen duen sexua ez dator bat genitalen arabera ezarritako sexuarekin. Badira zakila duten neskek eta alua duten mutilak. Ikerketa berrien arabera, mila pertsonatik bat egonen litzateke transexualitate

egoeran. Gaiari buruz solasteko Amaia Sagastibeltza pediatria leitzarrarekin bildu da TTIPI-TTAPA. Gaia gizarteratzeko premiaz hitz egin du, «haur hauek beraien burua gehiago maitatu eta hainbat arazo ekiditeko modua izan daitekeelako».

Eneritz IRAOLA

Beltza edo zuria. Zakila baduzu gizezkoa zara; eta ez baduzu, emakumea. Genitalek markatzen dute oraindik orain gure generoa. Batzuetan, ordea, pertsona baten genitalak eta identitate sexuala ez datoz bat; hori da, transexualitatea.

Transexualitatea betidanik egon den egoera izan dela azaldu du Amaia Sagastibeltza pediatriak «horren inguruan planteamendu eta teoria desberdinak egon dira, okerreko gorputzean jaiotako pertsonak zirela, gaixotasuna zela... Dena

den, gaur egun badakigu, ez dela horrelakorik, sexu nortasunaren beste aldaera bat dela baizik».

NOLA IDENTIFIKATU?

Ikerketa desberdinak egin izan dira gaiaren inguruan eta gehienek arabera «haurtzarotik transexualitate modura identifikatutako ume asko, nerabezaro edo helduarotan ez dira hala sentitzen. Dena den, benetan transexualitate egoeran daudenek txikitatik garbi adierazten dute direna». Hori dela eta, haurrek dituzten joera desberdinei

«adi egotea» garrantzitsua da Amaia Sagastibeltza pediatriarekin bildu da TTIPI-TTAPA. Gaia gizarteratzeko premiaz hitz egin du, «haur hauek beraien burua gehiago maitatu eta hainbat arazo ekiditeko modua izan daitekeelako».

LAGUNTZA

Haurrari lagundu ahal izateko, egoera ulertzea funtsezkoa dela dio «gaiaren inguruan eza-

DATUA

2-3

URTETAN

haurrak beraien identitate sexuala agertzen hasten dira. Bere burua, beste sexuarekin identifikatzeko, 'neska naiz' edo 'mutila naiz' esanen du.

gutza minimo batzuk edukitzea garrantzitsua iruditzen zait haurrak adierazi dezakenera adi egoteko eta transexualitate egoeran badago, ulertua edo onartua sentitu dadin, ahalik eta modu naturalenean». Horretarako, garrantzitsuena behaketa egitea da «haurrari entzun, behatu eta adierazten dituen seinaleei adi egotea, baina, ezer inposatu edo beraien emozioak eta sentimenduak alde batera edo bestera zuzendu gabe». Prozesua, ez da egun batetik bestera ematen «ez dago presaka erabakirik hartu beharrik, haurrak, bera den bezala onartzen dutela eta maite dutela sen-

«Zorionez, gaiaren inguruan geroz eta gehiago ezagutzen ari gara arlo desberdinetan: medikuntzan, hezkuntzan, legeak ere aldatzen ari dira... Horrek guztiak egoera normalizatzeko dakar».



titu behar du eta hortik aurrera, denborarekin, bere sexu-identitatea definitzen joanen da».

EZ DA FENOMENO BERRIA

Gaur egun eta arlo desberdinetan puri-purian dagoen gaia izan arren, betidanik ezagutu-tako fenomeno da, «1750an jadanik, Hammurabi kodean aipatzen dira sexu-aldaketaren inguruko erreferentziak, kultura eta garai desberdinetan izen desberdinak erabili dira egoera hau izendatzeko eta normalean estalia, patologizatua eta estigmatizatua izan da». Gaur egun, aurrerapausoak eman dira uste du «zorionez, gaiaren inguruan geroz eta gehiago ezagutzen ari gara arlo desberdinetan: medikuntzan, hezkuntzan, legeak ere aldatzen ari dira... Horrek guztiak egoera normalizatzea dakar».


«Gizarte-mailan zenbat eta gehiago ezagutu gaia, ulertuak, maitatuak eta onartuak sentituko dira. Eta hala, beraien burua ere gehiago maitatuko dute eta hainbat arazo ekiditeko modua izan daiteke».

GAIA GIZARTERATZEA

Haur transexualen eta beraien hurbilekoen egoerak hobera egiteko, ezinbestekoa da gaia gizarteratzea: «orain arte, egoera hau estali, ezkutatu eta gaitasun modura hartu izan denez, gaur egun helduaroan dauden pertsona askok arazo asko eduki dituzte haurtzaro eta nerabezaro garaian. Gizartetik kanpo sentitu izan dira, jendeak onartu edo ulertuko ez balitu bezala. Gizarte-mailan zenbat eta gehiago ezagutu gaia, ulertuak, maitatuak eta onartuak sentituko dira. Eta hala, beraien burua ere gehiago maitatuko dute eta hainbat arazo ekiditeko modua izan daiteke».

OSASUN ARLOKO PROFESIOALEN PRESTAKUNTZA

Gainerako esparruetan bezala, osasun arloan ere, gai honen inguruan ezjakintasun handia egon dela uste du Amaiak, «zorionez, gero eta gehiago eza-



gutzen ari gara. Gaur egun, kasu hauen jarraipena egiteko, profesional desberdinez osatutako unitate bereziak sortuta daude dituzten beharrei aurre egiteko».

Haur bakoitzak behar desberdinak senti ditzake: batzuk

beren gorputzak bere horretan onartzen dituzte eta beste batzuk, gorputzean aldaketak egitea erabakitzen dute «sentitutako sexuaren arabera ezaugarriak lortu nahi badituzte, endokrinologo, ginekologo, zirujau, psikologo, psikiatra... pro-

fesional askoren laguntza dute». Pediatra edo familia-medikuek unitate hauek ezagutzea garrantzitsua da, «kasu hauen arreta ahalik eta egokiena izan dadin eta beraien zalantza eta nahiak ahalik eta modu onean ase daitezten».

BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIA

«Nik hasieran mutil modura ikusi arren, berak garbi esan zidan kontsultan: 'Ni neska naiz'»

Irurtzango Osasun Zentroan lan egiten du Amaia Sagastibeltzak eta haur transexual batekin eta haren familiako kideekin hartu-eman izateko aukera izan du. Kasua eramatea ez zela zaila izan aitortu du: «haurrak txiki-txikitik garbi adierazi zuen sentitzen zuena, egoera guztiak hori aldarrikatzeko baliatzen zituen». Haurri entzutea nahikoa omen zen ohartzeko, «nik hasieran mutil modura ikusi arren, berak garbi esan izan du kontsultan 'ni neska naiz'. Behin eta berriz, urtetan zehar, ulertua ez sentitzeak nahigabea, haserrea, gose fal-

ta... eragin arte». Amaiaren ustez, ttikitatik egoten dira zantzuak, baina ez dira nahasi behar rol jolasekin «noizean behin beste sexuko jolasetan ibiltzea, jantziak janzteak, ametsak izatea, neska edo mutila izatea gustatuko litzaidake esatea... ohikoa da. Eta hori ez da nahasi behar transexualitatearekin. Transexualak diren haurrek garbi adierazten dute, ez diote 'gustatuko litzaidake', 'neska naiz edo mutila naiz' esaten dute». Ez dira nahi, amets edo desira baten inguruan hitz egiten ari; errealitatea azaltzen baizik.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Lo eta jan

O sasuntsu egoteko, mediku bati aholkua eskatzen badiogu: behar den bezala jan, eta behar den bezala lo egiteko erantzunen digu. Hau da, «lo eta jan».

Lo eta jan, lo eta jan, lo eta jan... *yin eta yang...* kontxo, gure lo eta jan, txinatarren yin eta yang-en gisakoak ote dira?

Wikipediara jo dut, eta hau da konprenitu dudana: bizitzaren bi indar edo hastapenak direla. *Yin*-a lurraren irudia da, emea, iluna, pasiboa eta xurgatzailea. *Yang*-a berriz, zerua da, arra, argia, aktiboa eta sarkorra.

Eta orain gure 'lo eta jan'era itzultzen bagara, definizio horiek franko ongi heldu direla ikus daiteke. Hasteko, egia da lo egitea eta jatea bizitzaren bi indarrak direla. Eta konparazioarekin segituz, lo gaudenean (yin), iluntasunean eta pasiboki gaudete. Jan (yang) egiten dugularik berriz, aktibo gaudete eta ahotik sartu eta sartu.

Hau guztia, zuetako aunitz, seguraski, zozokeria hutsa idurituko zaizue, baina niri gauza bitxia eta interesgarria iduritu zait, eta zuekin konpartitu nahi izan dut.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Ongi pasa, pasa gabe

Hemen ditugu herrietako bestak eta, nahiz eta urtetik urtera prezioak garestitu, berriz ere igo egiten da bere kontsumoa, gero eta adin tikiagoan hasita gainera. Osasunean eta sakelean kalte egiten digutela jakin badakigu, baina inoiz baino gehiago denon begibistan ditugu eta ezin egon probatu gabe. Gogoan hartu, ongi pasa, pasa gabe barraka, txurro-denda eta tiropitxonetan ere.

Nabarmentzekoak



Tomas REKONDO
Musika bandak omendua

Lesakako Musika Bandak ezusteko omenaldi hunkigarria eskaini dio, 65 urtez klarinetea jo duen musikariari. Koteto Ezkurra lagunak eta hainbat erremontelarik ere parte hartu zuten.



Elixabet BADIOLA
Donamariko idazlea

Sortzez donostiarra eta aspaldian Donamarian bizi den idazleak *Aita, aún quedan nueces* azken liburua aurkeztu du. Sei kontakizun biltzen ditu, Esther Fernandezek ilustrazioekin.



Maika ARIZTEGI
Koxkor biltzen txapeldua

Nafarroako koxkor biltze txapelketa irabazi du berriz ere Iturengo kirolari handiak. Urteekin, arerioak aldatzen doaz, batzutan estu hartzen dute, baina txapelak jantzeaz ez da aspertzten.

Atzera begira
→ 2007-VI-28 •
TTIPI-TTAPA 449 zk.



Adinekoen egoeraren inguruko gogoeta Bidelagun-en eskutik

Duela hamar urte, jendeak adinekoen egoeraren inguruan gogoeta egiteko helburuarekin, *Etorkizunik?...* *Zure esku* izeneko kanpaina abian jarri zuen Bidelagun Boluntarioritza Elkarteak. Izan ere, Isidro Herguedas koordinatzaileak TTIPI-TTAPAri aipatu zionez, «inguruan adineko aunitz dagoelako, eguneko zentro bat beharko genuke». Datu zehatzagoak ere eman zituen Herguedasek: «Xaharren kopurua hagitz altua da, Baztan-Urdazubi eta Zugarramurdiko kopurua Nafarroan dagoena baino bortz puntu altuagoa da: biztanleriaren %23k 65 urte baino gehiago ditu, horietatik %16k 85 urtetik goiti».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus



Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Mainer Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Martin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

Kolaborazioak

Familia ereduak eta gizarte aldaketak

Alizia SAGASETA IRIGOIEN

(Bortzirietako Harrera eta Orientazio Programa)

Familiaren definizioa ematerakoan, zerbait arbitrarioa dela erraten ahal dugu, afektibitate eta emozio loturak dituzten pertsonak biltzeko modu bat, gizarteak horretarako dituen moduetako bat. Baina, gaur egun, familia hobekien definitzen duen hitza, seguruena, Aniztasuna izango da; familiak gaur egun ez baitu erranahi bakar eta erabatekorik. Jendearen izaera ugaria eta askotarikoa den neurrian, biltzen gaituzten familiak ere, ondorioz, ugari eta askotarikoak izanen dira. Ikuspuntu horretatik, beraz, logikoa da familia-egitura horiek osatzen ditugun gizon-emakumeen behar eta desio aldakorretara egokitzea familia deitu izan dugun hori.

Horrela bada, gaur egun familia aipatzen dugunean, modu "naturalean" sortutako seme-alabak dituzten guraso heterosexualak baino zerbait gehiago ari gara izendatzen. Familia-egitura, dagoeneko, ez baita ez bakarria ez kolore bakarrekoa. Bertzeak bertze hauek aipatzen ahal ditugu: Familia nuklear klasikoa; Guraso dibortziatu edo banandutakoak dituen familia; Berrosatzen den familia (umeak badira gehien bat). Hemen ezindua edo eri dagoen senitarteko bat aldi baterako zure etxean hartzea; Seme-alabarik gabeko familia; Izatezko familia; Guraso bakarrekoko familia: Harrera familia eta Adopzio familia; Guraso homosexualak osatutako familia; Etnia eta kultura desberdinetako gurasoak dituen familia;

Ikusten denez, ugariak dira familia-aukerak.

Familia, kulturaren eta gizartearen ikuspuntutik begiratuta

Seme-alabekin bizi diren aita batek eta ama batek osatutako familia nuklear klasikoan, hainbat elementu biltzen dira: heterosexualitatea, ugalketa, ernalketa, ezkontza, filiazioa (seme edo alabari gizon bat eta emakume bat adjudikatzea aita eta ama modura), eta etxe berean elkarrekin bizitzea. Familia-modu berriek, ordea, hautsi egiten dute elementu horien batuketak, eta jada ez da beharrezkoa denak batera gertatzea talde hori familiatzat hartzeko. Ezkontzarik egon ez arren familia izan daiteke, edo ugalketarako sexualitaterik gabe, edo etxe berean bizi gabe...

Familiaren historia: bilakaeren historia da

Familia kontzeptuak azken 30 urteotan izan duen aldaketarik nagusia familia ulertu eta bizitzeko bertzelako moduak gero eta gehiago onartzea eta onestea izan da. Horixe gertatu da berrosatutako familietan, adopzio-familien kasuan nahiz harrera-familienean; bai gizarteak bai legeek poliki-poliki onespina eta zilegitasuna eman baitiete. Era beran, erran bezala, familia-egitura berriak azaldu dira. Azken hiru hamarkadatan, familiak osatzeko moduan eragin zuzena duten hainbat aldaketa gertatu dira legerian, gizartean eta ekonomian edo demografian; aldi berean, lagunduta-

ko ernalketarako teknologia berriak agertu dira eta Emakume Feministen Mugimenduak eta Gay eta Lesbianen askapenentarako Mugimenduak landutako asmo eta baloreek eragin nabarmena izan dute giza eta jarriaren aldaketan.

Azken hamarkadatan gertatu diren aldaketa hauek guztiek gure ideia, sentimendu eta jokamoldeak aldatu dituzte, bai familiari edo ezkontzari dagokionez, bai sexualitate edo guraso izateari buruz, nola beste hainbat gaitan. Bilakaera hauek talde eztabaida eta gogoe- ta ugari emaitza izan dira, bai eta norbanakoen pizkanakako bilakaera prozesuen fruitu, jende askok egin behar izan baitio aurre hainbat bizipen familiar edo pertsonalari, hastapenetan behintzat, gatazkatsuak izan ohi direnak: Nork ez du ama/aita bat, lagun bat, anai/ arreba/ahizparen bat, lehengusu-lehengusina bat, barride bat..., labur erranda, gertuko pertsona bat, une jakin batean honelako erabaki baten berri eman diguna: banandu egingo naiz, lesbiana naiz eta bi seme-alaba ditut, ume bat adoptatuko dut?

Eztabaida eta erronka interesgarriak planteatu ditu familiak azken hiru hamarkadatan eta horrela izango da datozen urteotan ere.

Horren aintzinean: FAMILIA BITARTEKARITZA

Hemen Bortzirietan, bertze tokietan bezalaxe, hainbatetan ematen dira senideen arteko gorabeherak edota gaizki ulertuak: etxekoren bat eritu edota ezindua dela, guraso dibortziatu edo bananduta dituen familia edo familia berrosatzen den kasuetan, bitartekari baten beharra antzematen da.

Nafarroako Gobernuak Familia Bitartekaritzako Zerbitzua eskeintzen du aspaldian eta erraten ahal dugu gero eta gehiago erabiltzen den zerbitzua dela. Hona hemen Bitartekaritzaren ezaugarri garrantzitsuenak:

Zer da Familia Bitartekaritza?

- Familia egoerak auzitara eramane gabe konpontzeko Nafarroako Gobernuak eskaintzen duen Zerbitzua. Bortziri mailan udal gizarte zerbitzu bulegoetan nola osasun etxean eskatzen ahal den tresna da.

- Debaldekua da, eta hura jasotzea borontatezkoa.

- Bitartekaritza-lana familiaren eta bikotearen inguruan garatzen da.

- Disziplina anitzeko bitartekariak osatzen dute lan-taldea (arlo sozial, psikologiko eta juridikoak).

- www.cfnavarra.es/serviciomediacionfamiliar

Zer eskeintzen du Bitartekaritza?

- Informazio juridikoa, psikologikoa eta soziala, bitartekaritzaren barruan.

- Esparru neutral bat, familia egoeraz edota bikote egoeraz solastu ahal izateko.

- Helburua da familia gatazkei aurre egiten laguntzea eta haiei buruzko komunikazioa erraztea.

- Adostutako konponbideak bilatzen laguntzen du.

- Prozesuak kontu emozionala eta gatazka gainditzeko denbora gutxitzen du, familia harremanak auzitara eramatea saihesteaz gain.

Informazio gehiago eskuratzeko edota baliabidea eskatu ahal izateko gizarte langilearekin harremanetan jarri:

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak, tel. 948 635 036 edo Lesakako osasun etxea: tel. 948 638 000

Komikia



Irakurleak mintzo

Ongi pasa
pasatu gabe

Baztan, Bortziarik eta
Malerrekako gizarte
hezitzaileak

Gure gizartean aisia eta drogen kontsumoa erlasionaturik daude. Uda garaia dator, eta gazteen aisialdi denbora handitzen da. Honekin batera, herrietako bestak hasten dira. Honakoa, familia askoren kezka eta gatazka iturri izan daitekenez, garrantzitsua da drogen kontsumoari eta prebentzioari buruz solastea.

Drogak hartzeko
moduak gaur egun:

1. Adina: Kontsumitzen hasteko adina jaitsi egin da. Nafarroan 14,8 urtekoa da batz bestea esaterako alkohola kontsumitzen hastearen adina. Honekin lotuta, arriskuaren pertzepzioa gero eta txikiagoa da, nerabeen garapen ebolutiboan eragin zuzena izanik.

2. Edateko modua: Kontsumo konpultsibo eta intentsiboak (denbora gutxian kantitate asko).

3. Substantzien nahasketa, polikontsumoa: Edari alkoholduak, estimulatzaileak diren drogak (tabakoa, speed-a, kokaina...), eratorri kannabikoak, diseinu drogak...

Aita dator...
ai, ai ama!!!

Zintzurretik iragana ez dudanez iragana, bertsoetan banan bana konfesatu nahi dut drama. Ametsetan niregana Aita dator... ai ai ama!

Urte batek zenbat negu, zenbat arren ta erregu ez zen Aita, zen Belzebu, nire zoru haren zeru. Behar zuen hark eredu, bizi oso bat erre du.

Garai hartan, haur bat nintzen ilusio ta aski sen. Hasi zinen, "zera" gizen, eskuekin erabiltzen. Juan Kruz ez al duzu izen?! Ez dut deuse konprenitzen.

Zer egin familia
kontestutik PRE-
BENTZIO arloan?

- Denbora eskaini eta bere inguruneaz interesatu: Denbora egon badago. Antolatu eta lehentasunak jarri eta eraginkortasunez komunkatu.

- Maitasuna eta babesa eman arauak eta mugak jarritz: Mugak eta

arauak segurtasun eta kontrol sentimendua sorrarazten diete, beren jokabidea bideratzen eta porrotari aurre egiten laguntzen diete, bai eta beren jokabideak beraingun zein besteengan dituen ondorioak aintzat hartzen ere.

- Orduetgia eta dirua adinaren arabera ego kitu.

- Seme-alabei era-

baki propioak hartzen erakutsi: Lagun taldetik etor daitezkeen presioak gestionatzen lagundu.

- Gurasoak eredu gara: Egiten dugun hori beraiek ikusi, naturalizat jo eta ikasiko dute.

- Seme-alabei drogei buruz hitz egin: Egunerokotasuneko momentuak aprobetxatu gaiaz hitz egiteko.

Bota bertsoa
Iban GARRO ALTZURI (Lesaka)
Doinua: Itsasoa laino dago
Baztan-Bidasoko 30. Bertsopaper lehiaketan 1. saria (18 urtetik goiti)

Nola a(ha)ztu begirada,
zure ahots, zure aba.
Sotanaren azpi-laba
Satanasen adarkada.
Maitemina zigorra da
minez maite baldin bada.

Bizitzea dut kondena,
etsipenak etsipena,
aspirina, hasperena,
zuregatik da hau dena.
Desberdina da naizena
eta izan nintekeena.

Zenioen sator-sator
«ni gabe ez zara inor».
Oroitzen dut eskua hor
mugituaz lizun, bizkor.
Ogitxoa ogi gogor
bi "ostia" dizkizut zor.

Zenioen «egon lasai
nauzulako zure artzai,
laster ere denon gotzai,
Jainkoaren pare naiz, bai!»
Baina nik ez nuen... ai, ai...
zure bildots bihurtu nahi.

Nik «ez, ez, ez», zuk «oi, oi, oi»
Zuk otoitza, ta nik «otoi»
Hankarteko zeruak goi,
bilakatu ninduzun lohi.
Sexu-grina bada pozoi
arrak beti du arrazoi.

Zure boto, zure barau
bihurtuak nire birau.
Ez nintzen bat, ez ginen lau;
infernuak luze dirau.
Agintzea zure arau
Mandamendu bat al zen hau?

Opa dizut: ez za(ha)rtzea,
zure jaunak ez hartzea,
sekula ez barkatzea,
kontzientziak bakartzea,
gurutzea ta iltzea,
gurutzeak zu hiltzea.

Gauetz busti ohi dut muda,
baina xorta hau da muga.
Salatzeko guzi hura
azpian da sinadura.
Joan zaitetz Infernura!
Nirea gaur akautu da.

- Aisialdi eta jai giro osasungarria sustatu.

Zalantzak baditu-
zu... hemen gaude

Bestelako informazio-rik behar izanez gero, Baztan, Bortziri eta Malerrekako Gizarte Zerbitzuetan atea zabalk aurkituko dituzue.

Ongi pasa pasatu gabe!

Prentsatik bildutakoak



«Hagitz kontent gaude denok Euskadi-Murias taldeak Kontinental Profesional mailara salto eginen duelako, sari bat da. Oraindik ez dakigu segituko dugun edo ez, baina motibazio bat da. Nere aldetik, lanean ongi segitu eta Jon Odriozolaren konfidantza irabazi nahi nuke Muriassen segituzeko, hori gustatuko litzaidake».

Beñat TXOPERENA
Igantzioko txirindularia
D. VASCO 2017.06.17



«375 kilometro koa-droko bailaran 1.628 kilometro bide ditugula erraterakoan, ez da gehiago azaldu beharrik. Azpiegiturak mantendu ahal izateko toki finantziario sistema aldatu beharrik litzateke eta aunitzetan aipatu diogu Gobernuari. Baztanek 16 eskola ditu, 6 mediku-kontsulta, 18 frontoi, 27 ur-deposito... eta hori kontuan hartu behar da».

Joseba OTONDO
Baztango alkatea
D.NOTICIAS 2017.06.19

11 galdera labur

Nor dugu Leire Barrenetxe?

Azpilkuetan bizi den 19 urteko gaztea naiz.

Zergatik erabaki zenuen erizaintza ikastea?

Alde batetik beti gustatu izan zaizkidalako osasunarekin lotutako gaiak eta bertetik ingurukoak laguntzeko aukera ematen duen lanbidea delako.

Zeintzuk dira gaixorik hobere-nak?

Onak edo txarrak denek zerbait erakusten ahal datzute. Baina egiten duzun lana estimatzen dutenak dira hoberen sentiarazten dituztenak.

Zer behar duzu derrigor zure botikinean?

Lasaiatasuna eta norbera zaintzeko denbora hartzea.

Zer litzateke bizitza musikarik gabe?

Zaila da hori imaginatzea, lorerik gabeko lorategiarekin parekatuko zen.

Zein musika instrumentu jotzen duzu?

Zeharkako txirula eta pianoa jotzen ditut, eta orain gitarrarekin hastea pentsatu dut. Ez nuke jakinen erra-ten nondik datorkidan afizioa,

7 urterekin hasi nintzen ikasten eta gaur egun arte!

Gauza berriak probatu zalea zara?

Denbora libredua dudanean bai, horregatik hasi nintzen aurten antzerkia egiten, zerbait berria probatzeko, eta esperientzia polita izan da.

Zein da Azpilkueta bestetako be-reizgarria?

Sortzen den familia giroa.

Zein da zuretzat bestetako egu-nik politena?


Lehenengo eguna. Besten hasiera izanda jendea gogotsuen egoten den eguna iruditzen zaidalako eta baztan zopak jatea aunitz gustatzen zaidalako!

Eguneko edo gaueko giroa nahiago duzu?

Biek daukate ber xarma baina, egunekoak bereziagoa eta alaiagoa da.

Amets bat?

Bat ba-karrik?



Leire BARRENETXE → Azpilkuetako gaztea

MARITX

- Ingeniaritza elektrikoa
- Boletín industria
- Proiektu elektrikoak
- Instalazio elektrikoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

sarobe[®]
gozotegia okindegia

pº de eztegara 25 bajo
34780 bera(navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net

MARSH ORBEA CONDA SCOTT LOOK

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

KULTURA

ANTZERKIA → UZTAILAREN 21, 22 ETA 23AN BERAKO KULTUR ETXEAN

'Harritik hazia' herri-antzerkia taularatuko dute hiru egunez

Arte adierazpenaren bidez oroimena lantzeko helburuarekin urtebeteko lanaren ondotik

TTIPI-TTAPA

Oroimen historikoan oinarritutako herri-antzerkia lantzen ari dira Beran joan den urteko ekainetik hasita. Lan horren emaitza, 'Harritik hazia' antzezlanaren oroimena lantzeko helburuarekin urtebeteko lanaren ondotik

Berako Euskara eta Kultura Batzordeek bultzatuta, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen adostasunarekin, Oroit(h)arri antzerki tailerra 2016ko ekainaren 9an hasi zen lanean eta urtebetean etengabe bildu dira eta sormen prozesu aberatsa gara-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herri-antzerkia lantzen ari diren aktoreak eta zuzendariak, entsaio batean.

tu dute. Horren ondorioz, «harreman sendotan oinarritutako talde trinko bat» dutela aipatu digu Ramon Albistur zuzendariak.

Talde horretan, aktore eta aktore musikariak Axuri Zapiain, Aina Maya, Aitziber Almandoz, Aritz Bizkai, Arantza Zubieta, Ekhiñe Zapiain, Eneritz Zapiain, Eugenia Arriola, Kemen Ruiz, Jerardo Ros, Lizar Elexpuru, Maddi Irazoki, Manex Zapiain, Nagore Orbeltzu eta Oihane Zelaieta dira. Zu-

zendaritza artistikoari dagokionez, Esther Carrizo (adierazpen lana), Ramon Albistur (gidioia eta eszenan jartzea), Aritz Bizkai (musika sortzaile eta zuzendaria), Nagore Orbeltzu (koreografia) eta Maddi Irazoki (lan plastiko eta afitxa) ari dira. Irudi- eta bideo-lanak Katubiko Oier Fuentes eta Monika Agirrerren esku daude. Baina antzerkilari eta zuzendaritza lanez aparte, antzerki bat gauzatzeko bertze zenbait behar ere badaude.

Bertze lan horietarako taldeak sortu dituzte eta lagundu nahi duenak badu talde horietan sartzeko aukera ere. Ekainaren 21etik aitzinera, elkarlanean hasteko aukera izanen dute. Hauek dira lan taldeak: Eszena espazioa (antolamendua, tresnak eta atrezzoak, kokapenak...); Jauntziak eta osagaiak; Publizitatea eta komunikazioa; Logistika eta hornidurak eta Gidoi-lana (ideietan parte hartu, testua antolatu, argitaratu, banatu...).



HARRI BATEZ HERRI BAT

Mikel Tabernak testua eta Maddi Irazokik irudia

TTIPI-TTAPA

Egitasmoaren *Harri batez... herri bat* logoa erabili dute lanari izenburua jartzeko. Testua idatzi duen Mikel Taberna idazleak egin zuen proposamena: 'Harri' hitzak, 'ar' duela bere baitan. «Beraz, ideia litzateke harritik, arren historia zurrutetik, eme hazi bat ateratzea, bertzelako bizi-proposamen baterako hazia... Eme+Hazi». Maddi Irazokik ideia horren inguruan lan grafikoa sortu zuen. Azkenean, *Harritik hazia* izenburua iduritu zitzaizen argiena eta hala jartzea erabaki zuten. «Berako harrobian jende inozenteen odola isuri arazi zuten matxinatuen tropek fusilamenduekin... eta imajinatzen ahal dugun odol gorri horrek harriak tindatuz eta blaituz mundu amestu baten hazia garaztatu duela».



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com





Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzea zure esku ere badago

**BETIKOn LEIHOAK
NEURTU, FABRIKATU eta
INSTALATZEN DITUGU**





**PVC-zko sistema bakarra*
Passive house ziurtagiriarekin
BETIKOn daukagu.**

**6 kamara 82 mm-ko profila
Merkatuko isolamendurik
hoberena.**

A+++

LESAKAKO BESTAK

UZTAILAREN 6tik 10ERA

EGITARAUA



UZTAILAK 6, ORTZEGUNA

12:00 Herriko Etxetik altxaferoa botako dute beste hasiera emanez. Ordu berean txistulariek, soinulariek, trikitilariak, Elutxa Txarangak eta haur ttikien danborradak girotuko dizkigute herriko kaleak euren soinu alaiekin. **17:30**: Frontoian, Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen erakustaldia. **20:00**: Peña guzien ordezkariak altxaferoa bota ondoren danborrada nagusia abiatuko da, Erraldoi eta Buruhandi, danbor-jole eta soinulari eta Lesakako Bandaren laguntzarekin, herri osoari itzulia emanen diote. **Gauez** Musika Plaza Zaharrean Laiotz taldearekin.



UZTAILAK 7, ORTZIRALEA

08:30 Ezpata-dantzarien meza isila. Joan-etorria Txistulari bandaren laguntzaz eginen da. **10:30** Udaltza berte agintariekin, Ezpata-dantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aitzinean dituztela, abiatuko dira Herriko Etxetik elizara, Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. **Meza ondotik**, Fermin Zaindariaren irudiarekin herri guzitik prozesioa. Ibilaldia berriro Elizan burutu ondoren, Udaltza, lehen aipatutakoekin, mezara joan diren moduan jaitziko dira Eskolttikira, Onin errekaen bi aldeetan egiten den Zubigainekoa dantza ikustera, XV. mendean lesakarren artean lortu zen bakea oroitazten diguna. **Segidan**, Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko-etxera igan aitzinean. **18:00** Bezperak. Lesakako Abesbatzak kantatuko du eta ondoren, ohiturari jarraituz, Ezpata-dantzari taldeak Mutil-dantza, Neska-dantza, Aurre-skua eta Jotak dantzatuko ditu Plaza Zaharrean. **19:30** Plaza Zaharrean, bertso jaialdia, Arrano Elkarteak antolatua. Bertsolariak: Amets Arzallus, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Eneko Fernandez. Gai-jartzailea: Iban Garro. **Gauean**, Musika Plaza Zaharrean Trikidantz taldearekin.

GOZOTEGIA
HAIZEA
BOLLERIA KAFETEGIA
Ongi pasa bestak!
T. 948 63 80 36
Plaza Zaharra, 7 · LESAKA

ZOANSA

SEAT Audi VW HYUNDAI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA | TXAPA | PINTURA
KOTXEEN SALMENTA
BERRIAK | BIGARREN ESKUKOAK | OKASIKOAK | KMO

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA • zoansa@zoansa.com

MALE REKA
KUSTOM

Arropa eta osagarri personalizatuak

NAGUSIA - HANAKO 30 URTE

Nagusia, 1 · Doneztebe T. 948 451 571 / 636 885 190
male-reka@male-reka.com Male-Reka

BAR · RESTAURANTE

KASINO

OSTATU · JATETXEA

*Jai alai eta pozgarriak
izan itzazue*

PLAZA ZAHARRA, 14
TEL: 948 637 152 · 948 637 287

ONGI PASA BESTAK!

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

APITTU
ALUMINIO LANAK

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak, Ateak, Portxeko itxidurak eta barandilak

GORA SAN FERMIN!

T./F. 948 638 297 | M. 626 312 326
Otsango auzoa - 12. pabilioia | 31770 Lesaka

ARRANO
ostatua

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KOMBINATUAK
ta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

NIK HERRI BIZI BAT NAHI DUFT, ZUK?

ASTORE Loreak MENDIAN TERNUA Deegual.

paz torras

Ongi pasa Sanferminetan!

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
arropa denda

Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110



Garazi CONDE ORUBE
Kartel lehiaketako irabazlea

«Sanferminetan konpromiso aunitz ditut baina horrela gozaten dut»

Hilabete baino ez da Mexikotik etorri zela, eta lur hartzeko asti haundirik izan gabe lanean hasi da 22 urteko lesakako gaztea: txozna batzordean, Gazte Asanbladan, Nafarroa Oinezeko Komunikazio Batzordean... Halakoxea baita bera, han eta hemen auzolanean ariz, gustura bizi dena.

Herrian «aunitz ibiltzen» den neska izateaz gain, badu maite duen bertze pasio bat ere, eta hala aitortu digu berak ere: «diseinu grafikoa aunitz gustatzen zait. Beti gustatu izan zait gauzak eskuekin egitea, artea...». Horri tiraka egin ditu ikasketak ere: Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako Gradua egin baitu. Gainera, ikasketak tarteko, urruti ibili da: Mexikoko unibertsitate batean egin du ikasketetako azken urtea: «urte bat pasatu dut han, eta hagitz esperientzia ederra izan da. Praktikak ere han egin ditut eta hagitz ongi ibili naiz». Orain, berriz, gradu amaierako lana egiten ari omen da eta «uztailan graduatzea espero dut».

«Mexikotik bi proposamen bidali nituen kartel lehiaketara, eta kasualitatez, niri gehien gustatzen zitzaidanak irabazi du».

Aitortu digunez, «gerora diseinu grafikora dedikatzea gustatuko litzaidake». Eta badu artea. Lortutako emaitzak dira lekuko. Aurten sanferminetako kartel lehiaketa irabazi du, baita Arantza Rockeko kartel lehiaketa ere. Kartel saila egindakoa bada ere, aurten lehenbiziko aldiz aurkeztu omen da herriko bestetako lehiaketara: «urtero egin behar nuela erraten nuen, gustatzen zaidalako eta kartel aunitz egiten ditudalako bertzela ere, baina ez nuen egiten». Aurten, ordea, eman du pausoa: «Mexikotik bi proposamen bidali nituen eta kasualitatez, niri gehien gustatzen zaidanak irabazi du». Saria «sorpresaz» hartu duela ere azaldu digu:

«ez nuen pentsatuko lehiaketa irabaziko nuenik. Lesaka herri kontserbadorea iruditzen zait zentzu zabalean, eta kartel honek pixka bat modernotik badu». Baina lortu du saria, eta nola ez, pozik dago.

EZPATADANTZARIRIK GABEKO KARTELA

Txupinazoko momentua ageri da kartel irabazlean: «azken urteetako kartelak beti ezpatadantzarietan oinarrituak izan direla iruditzen zitzaidan, eta hagitz ongi dago, baina niretzako ez zuten sanferminen esentzia guztia errepresentatzen». Hori gogoan sortu zuen bere kartela: «dena txupinazoarekin hasten denez, horrekin zerbait egitea erabaki nuen». Bere kartela «xumea» dela dio, hori delako bere estiloa: «alderdi minimalista gustatzen zait, gauzen kontzeptura, oinarria joatekoa naiz».

«Konpromiso aunitz izaten ditut sanferminetan, mila gazetan parte hartzen dudalako, baina horrela ere gozaten dut».

LANA ETA BESTA

Atsegin ditu sanferminak, «herriko bestak hoberenak dira» beretzako, baina bestetan dena ez da parranda: «konpromiso aunitz izaten ditut, mila gazetan parte hartzen dudalako. Txosna batzordean hagitz aktibo, Gazte Asanbladarekin lanean, Tantiрудantzan dantzan nahiz eta aurten ez naizen ariko...». Baina gustuko tokian ez baita maldarik izaten: «mila kontu izaten ditugu, baina horrela ere gozaten dut». Bada hutsik egiten ez duen ekitaldi bat ere: txupinazoa. «Ez da munduko txupinazorik hobereena, baina gurea da», dio. Hortik aparte, egunean egunekoarekin disfrutatu nahi izaten du: «egun guztiek badute zerbait gustatzen zaidana. Peñen Eguna ederra da, baina ustekabean besta ederrak egiten ditugun egunak ere gustatzen zaizkit».



EGITARAUA

UZTAILAK 8, LARUNBATA

09:00 Peñen gosaria. **10:00** Peñen danborrada, Elutxa Txarangarekin. **11:00** Haurrentzako entzierroa Ote kalea eta Plaza Zahararren artean. **12:00** Betizuak, Plaza Zaharrear Elutxa Txarangarekin. **17:00** Plaza Zaharrear haurrentzako ikuskizuna. **18:00** Peñen kontzentrazioa Elutxa Txarangarekin Peñen jaitsierarako. **Arratsalde eta gauetz** Oharkabe taldearen emanaldia Plaza Zaharrear.



UZTAILAK 9, IGANDEA

10:30 Haur eta gurasoen danborrada Elutxa Txaranga lagunduta. **Goiz eta arratsalde,** Haur ikuskizunak Eltzeta plazan. **12:00** Betizuak Plaza Zaharrear Elutxa Txarangarekin. **18:00** Frontoian eskuzko pilota partidu profesionalak. **Arratsalde eta gauetz** Trakets taldearen emanaldia Plaza Zaharrear.

UZTAILAK 10, ASTELEHENA

11:00 Haurrentzako entzierroa: Ote Karrika-Plaza Zaharra. **11:30** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Nafarroako Jotak. San Fermin Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta. **11:30** Gorriti eta bere animaliak Bittiriako Plazan. **12:00** Betizuak Plaza Zaharrear, Elutxa Txarangarekin. **17:00** Haur ikuskizuna Harriondoa Kultur Etxearen inguruan. **18:00** Plaza Zaharrear, Nafarroako Jotak. **20:00** Txakaindik jatsiera, Zortziko doinuarekin. **Arratsalde eta gauetz,** Tximeleta taldearen emanaldia Plaza Zaharrear. **Ondotik** Jai-hilak Elutxa Txarangarekin.

TXOZNETAKO EGITARAUA

UZTAILAK 6, ORTZEGUNA

10:00 Gosaria eta txoznen irekiera. **13:00** Euskal Presoak San Ferminetara kalejira. **21:30** Txozna-gunean Fermintxo Rock: Zakill nekez, Kalera, Sarkor.

UZTAILAK 7, ORTZIRALEA

20:30 Tokan2 La Polla eta Tiri&Tery taldeak txozna-gunean.

UZTAILAK 8, LARUNBATA

Egun osoan Peñen besta. **23:00** Reimy txozna-gunean.

UZTAILAK 9, IGANDEA

18:00 Txozna-gunean haurrendako kamixeta tailerra (kamixeta zuria etxetik eraman). Mural kolektiboa. **20:00** Bi zaldi taldearen kontzertua.

UZTAILAK 10, ASTELEHENA

00:00 Gaixoa ni? Gaixoa zu!

GORA SANFERMINAK!!!

bortzirudi
inprenta

kopistegia, rotulazioa • serigrafia, tanpografia, papertegia

948 631 521
bortzirudi@bortzirudi.eu

ONGI PASA BESTAK!

D

◀◀◀◀HIRUKIDE▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

Semper Semper Semper

autoeskola

ESKAINITZA BEREZIAK!

Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

udana

salazones

ongi pasa Sanferminak!

Alkaiaga Ind. - 31789 LESAKA
Tel. 948 631 536 Faxes. 948 631 550
E-posta. bacalao@salazonesudana.com
www.salazonesudana.com

ITURBENA

ONGI PASA BESTAK kafetegia

Koskontako bidea 5, behea - LESAKA



ongi pasa bestak!



IZARRA OKINDEGIA

PLAZA ZAHARRA 12~13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855



ONGI PASA BESTAK!

OPARIAK • BITXIAK
ENMARKAZIOAK

Albistur 39 LESAKA
T. 948 627 542

JAVIER ALZUGARAI S.L.U

Hondeaketa eta Garraio Lanak

ONGI PASA BESTAK!



Nabaz auzoa | Guillen-borda | 31770 Lesaka | Nafarroa
T. 646 986 448 | F. 948 637 390
excavacionesjavieralzugarai@gmail.com



TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN, S.L.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

EKO TXAKAIN S.L.

GAIKAKO HONDAKIN BILKETA

Gora San Fermin!

T. 669 840 198 / 948 638 052
Faxa: 948 627 578
Otsango Ind. 28 • LESAKA
transtxakain@yahoo.es



GARBILEKU

LAVANDERIA



bestak ongi pasatu

ALFONBRAK, LARRUA, ANTEA...
DENETARIK ORO HAR GARBITZEN DUGU

Plaza Berria 8 LESAKA
T. 948 637 438

ETXABEAK LESAKAN



info@sarobe.eus

639 623 473 • 649 980 394

www.sarobe.eus



RAIKUNTZAK

AROBÉ

Obra berria

Etxebizitzen zaharberritzea

Igogailuen kudeaketa osoa:

- Diru-laguntzen kudeaketa
- Obra zuzendaritza
- Proiektua

antoiu

OSTATUA

Goizeko 6:00etatik aitzin idekia.

GOSARIAK
BAZKARIAK
AFARIAK

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 637 087

Antoiu, 17-LESAKA



JOISA



**ARROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**

Barandak, balkoiak, atea, hesiak, forja artistikoa, ...

**T./F. 948 638 150
M. 646 774 117**

www.talleresjoisa.com **ONGI PASA BESTAK!**
Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com




Dia

LESAKA

Sanferminetan otordu goxoak prestatzeko **LESAKAKO DIA**

Ongi pasa bestak !!

Plaza Berria, 10
T. 948 637 335



Ekaitz LANDA Txozna batzordeko kidea

«Herriari besta gune alternatibo oso bat eskaini nahi diogu, dagoenari deus kendu gabe»

Elkarlanaren emaitza da Lesakako txozna-gunea, «herriko eragile ezberdinek hartzen dute parte txoznetako batzordean; gune bizia da eta bere konposaketa urtetan zehar aldatuz doa. Oraitxe bertan Buruztanka Gaztetxea, Gure Esku Dago, presoen aldeko mugimendua eta Bihozkada artisauen kolektiboa ari dira parte hartzen». Tartean dabil, Ekaitz Landa ere, «txoznekin zerikusia duen guztia antolatzen dugu: muntaia, txandak, egitaraua...»

HELBURUAK

Bi helburu nagusi dituzte txozna gunean «batetik, herriari beren ekarpena egiten dioten talde eta eragileentzako diru-iturri bat izatea». Sanferminetan aterako den diruarekin, «Buruztanka Gaztetxeko lanak edota Gure Esku Dagok Bortzirietan egin berri duen galdeketa» finantzatu dira, adibidez. Bertzetik, herriari besta gune alternatibo oso bat eskaintzea, herrian dagoenari deus kendu gabe bertze zerbait gehituko diona, positiboan».

«Txozna-gunea aitzinera ateratzen da hamarnaka eta hamarnaka lesakarrek eskuzabalki bertan lan egiten dutelako».

Pasa den urtean lehenbiziko aldiz karpa bat paratu zuten txozna-gunean: «ikusiten genuen txozna solteek asteburuetan ongi funtzionatzen bazuten ere, aste barreneko egunetan hagitz triste gelditzen zela txozna-gunea. Lesakarrek Sanferminetako egun guzietan gozatze-ko moduko besta eremu alternatibo bat nahi genuen eta hor ateri zen karparen ideia». Iazko arrakasta ikusita, aurten ere, errepikatze-ko asmoa dute: «aski kontent gelditu ginen. Izan ere, muntatzen duguna ez da karpa soil bat, besta eremu oso bat baizik: badu bere eszenatokia,

bestarako argiak, dekorazioa... karpak elementu guzi horiek babestu eta gune bakarrean kokatzen laguntzen digu». Honek guziak jendea biltzea ahalbidetzen duela uste du eta ondorioz, «aste barreneko egunetan ere sekulako giroa izaten da».

EGITARAU BEREZIA

Bestarako tokia soilik ez, egitarau berezia ere prest dute eta denetarik dago: «Fermintxo Rock jaialdia antolatu dugu uztailaren 6an, asteburuko arratsetan kalitatezko DJ desberdinak izanen ditugu, kontzertu akustikoak ere bai, La Pollako kide ohi batzuek ere eskainiko dute emanaldi bat... hori musika aldetik, baina horrez gain, kamiseta tailerra, mural herrikoia...». Ekitaldi guztiak garrantzitsuak direla aipatu du, baina bat azpimarratzekotan, «Fermintxo Rock jaialdia» aipatu luke «garrantzia berezia eman diogu. Pasa den urtean, karparen egitarauari buruz mintzatzen ari ginela, garrantzitsua iruditu zitzaigun rock jaialdi bat antolatzea, ikusirik programa ofizialak ez duela halakorik eskaintzen». Fermintxo Rock «musika jaialdi sendo eta iraunkor bat izatea» nahi dutela ere gaineratu du, «urtero Sanferminetako karpantolatu dena». Txoznen inguruan sortzen den giro bereziaz ere egin du aipamena, «giro desberdina izaten da, bertze musika batek ere laguntzen duelako kontrapuntu hori ematen, baita bultzatzen ditugun balioek ere». Ez da atzendu behar, «errespetuan eta elkarlanean oinarrituriko gune bat dela, eta beraz, sexu erasoei aurre egiteko plan bat ere badugula». Uztailaren 6an, goizeko 10etan irekiko dituzte txosnak. Hori posible izateko, baina, herritarren borondatea ezinbertzekoa izan da «eskerrak eman nahi dizkiegu. Beraiek gabe ez bailitzateke deus posible izanen. Animatu nahi ditugu aurten ere beraien ekarpena egitera. Denok gonbidatuta zaudete!»

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASTA BESTAK
629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 · LESAKA
(osasun-zentroaren parean)
BESTETAKO ORDUTEGIA
08:30-13:00

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARAK, ALDIZKARIAK

Etori Lesakako instalaziora, eta gozatu dauden aukerekin!

ONGI PASA SAN FERMINAK!!
LESAKAKO LIDAL KIROLDEGIA
T. 948 637 400 • kiroldegia@lesaka.eus
www.lesakakoudalkiroldegia.com

kattagorria

Ongi pasa San Fermínak!

Behoko plaza, 10 - 31770 Lesaka
Tel. 948 627 514 - www.kattagorria.com

LESAKAKO BESTAK

UZTAILAREN 6TIK 10ERA

BORDA ONGI PASA BESTAK II

PLADUR LANAK · ISOLAMENDUAK
Termikoak · Akustikoak · Suaren kontrakoak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

T/F. 948 637 546 · M. 609 477 277
LESAKA · bordaisolamenduak@telefonica.net

BORTZIRI
UNSION ANIAK

Ongi pasa bestak!

Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

"TELLETXEA"
Lorazaintza

Paisajismoa
Kimaketak
Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
ONGI PASA BESTAK!

Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
T. 619 418 683 | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

oh
HOTEL **churrut**

Churrut jatetxeak **besta zoriontsuak opa dizkizue** eta urte osoko gure menuak ezagutzera gonbidatzen zaituzte:

Eguneko menua astelehenetik ostiral eguerdira arte
Asteburuko menuak (27 eurotik aurrera)
Taldeentzako menuak
Jaunartze, ezkontza... menuak
Menu personalizatuak eta neurrira egokituak
Sasoiko produktuekin osatutako karta

Foruen plaza | BERA | T. 948625540 | 948625542
www.hotelchurrut.com



Garbiñe SARASOLA

Tantirumairu dantza taldeko arduraduna

«Gauza berriak probatzeko prestutasunak definitzen du dantza taldea»

«Herrian gustura bizi den lesakar bat naiz» erranez aurkeztu du bere burua Garbiñek. Herrian bizi soilik ez, herriari bizia emateko zenbait taldetan ere badabil. Tantirumairu dantza taldeko arduraduna da eta 26 urte daramatza zeregin horretan «1991. urteaz geroztik». Lesakako dantza taldearen sekretu gehienak aski ezagunak zaizkio, bera arduratzen baita taldeko funtzionamendurako behar diren hainbat gestio egiteaz: «irakasleak bilatu eta euren eta ikasleen arteko harremanak bideratu, irakasleekin batera ordutegiak antolatu, jantziak banatu eta jaso, irteeretako harremanak bide-

ratu eta autobusak enkargatu, gurasoen beharrezkoak diren oharrak bidali...», emanaldi borobilak eskaintzeko guztia- ren beharra izaten baita.

HANDITZEN JOAN DEN TALDEA

laz bete zuen mende laurdena Tantirumairu dantza taldeak eta sorrerako testuinguruaz galdetuta azaldu digu Ikastolatik sortutako taldea dela, «bertako ikasleek Lesakako dantzak, bereziki, eta euskal dantzak orokorrean ikasi ahal izateko sortu zen taldea». Denborarekin, helduen taldea ere osatu zen, Tantirumairu izenarekin jarraituz, «baina izaera eta funtzionamendu propioa duen taldea eratuz».

«Tantirumairu Ikastolako ikasleek Lesakako dantzak, bereziki, eta euskal dantzak orokorrean ikasi ahal izateko sortu zen taldea».

Gaur egun, 167 dantzarik osatzen dute taldea eta urte hauetan guztietan, kide kopuruan soilik ez, dantzatze moduan ere izan dute eboluzioa: «Euskal Herriko gainerako taldeetan ere eman den

urtek
water technologies
Uren tratamendua

Potabilizazioa, desmineralizazioa, deskaltzifikazioa, osmosia, filtrazioa, berretailpena, depurazioa, instalazioen mantenua.

T. 948 638 118 | urtek@urtek.org | www.urtek.org


744 484 361
ttipi-ttapa

Otxoteko
PINTURAK
ELEKTRIZITATEA

Bittiria, 18 - 31770 LESAKA
tel. 948 637 902
Juan Luis 678 993 818 - Jon 687 147 466
e-posta. otxotekopinturak@yahoo.es

Ongi pasatu Sanferminak!

NIK HERRI BIZI BAT NAHI DUT, ZUK?



antzeko fenomenoak bizitu izan dira gure taldean». Neskato eta mutikoen dantzen artean historikoki egon izan den banaketa orain gutxitu dela uste du: «duela 35 urte genero aldetik dantzak orokorrean gehiago bereizten ziren. Bertalde, tradiziozko dantza eta pausoetan oinarritutako koreografia berriak sortu eta lantzeko modak gure taldean ere indar handia izan du». Baina sustraiak ongi errotuak ditu taldeak «tradizioa edo modernitatearen arteko oreka bilatzea baino, emanaldi edo saio bakoitzarekin zer landu eta zer lortu nahi den kontuan izatea da garrantzitsuena. Normalean horrek baldintzatzen du hartuko duzun bidea. Edozein moduz, gure oinarrian ia beti tradiziozko pausoak daude». Bere ustez, Tantirumairu dantza taldea definitzerako orduan «dantzak baino, gauza berriak probatzeko prestutasunak definitzen du taldea. Antzerkiarekin jolastu du, musika berriak probatu ditu, olerkietan oinarritutako emanaldiak eskaini...».

«Tradizioaren edo modernitatearen arteko oreka bilatzea baino, emanaldi edo saio bakoitzarekin zer landu eta zer lortu nahi den kontuan izatea da garrantzitsuena».

Herriko bestak ailegatzen direnean arropa zuri-gorriak jantzi eta ekitaldi batetik bertera ibiltzen da Garbiñe. Tantirumairu dantza taldeko zereginak ere izaten ditu tartean: «uztailaren 6an jaialdia izaten dugu frontoian eta altxaferora joan ondotik, arratsaldean goiz xamar dantzariak prestatzera joaten naiz». Dena ez da lana ordea, «emanaldiaren ondotik, 16 urtetik goitiko taldekideekin afaltzera joaten gara». Uztailaren 7an, ez du hutsik egiten dantza emanaldietara «goiz eta arratsaldez joaten gara dantzak ikustera» eta uztailaren 8an peñen danborradan atera izan da «nahiz eta azken urteetan aukerarik ez dudana izan. Aurten ere ez naiz aterako Nafarroa Oinezeko dendan egonen naizelako». Danborradan aterako ez bada ere, etxeko ttikienekin beteko du urteroko ohitura «semeekin barreratik

xexenak ikustera joaten naiz eta eurekin zerbait hartzen dut». Posible duenean peñakoekin bazkaltzen du «eta arratsaldez dantzan ibiltzen naiz txarangarekin».

«Musika talde edo ikuskizun ezberdinak gehituko nituzke nik, bertze ordutegi eta tokietan, berbena itxurakoa ez den zerbait».

Uztailaren 9an, etxekoekin osatzen du egun osoko plana «semeekin xexenak ikusi eta beraientzako prestatuak izaten diren ekitaldietara joaten gara. Gorriti eta bere animaliak, ikuskizunen bat... eta barraketara ere bueltaren bat egin behar izaten da. Egun horretan, kanpoan afaltzen dugu etxekoekin». Eta bestei bukaera borobila emateko, uztailaren 10ean danborra gogor astinduko du, «danborradan atera eta xexenak ikusten ditugu goizean. Zerbait hartu eta bazkaltzera joaten gara. Azken urteetan Txakainen eta iaz eta aurten etxean,. Arratsaldez Txakaingo jeitsiera ikusi eta kanpoan afaltzeko ohitura dugu».

EGITARAUARI ERREPASOA

Garbiñeren ustez, egun guztiak badute berezitasunen bat, «baina egia esan nerretzat aurreneko hirurak berexiagok dira». Egitarauari errepasoa egiten hasita, zer kendu eta zer jarri aipatu du «xexenak hiru egunez egotea sobera da. Musika talde edo ikuskizun ezberdinak gehituko nituzke nik, bertze ordutegi eta tokietan, berbena itxurakoa ez den zerbait».

GIROAN ALDAKETA

Eguneko edo gaueko giroa nahiago duen galdetuta, «egunekoa nahiago dut, nahiz eta 6ko gauean kanpoan ere gustura egon. Beste egunetan beti egunez bertzerik ez nabil». Eguneko giroan ez omen du aldaketarik nabari «baina badakit gauetz eta astebukaeretan berexiki kanpotik datozenak ez dutela besta lehen bezala egiten, askotan ez omen dira herrira hurbiltzen. Kanpinetan gelditzen dira eta beraiek etxetik ekarritakoa bertan hartzen pasatzen dute gaua».

TALLERES FRAIN
LESACA · Tel.: 948 637 525
Ongi pasa bestak!

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA BESTAK -
Arretxea, 12 • LESACA • 948 638 287

FRONTOIKO OSTATUA LESAKA
Instalazio berriak eta berrikuntzak sukaldean
Plaza Berria, 38 · T. 948 627 518

INDARRI
HOTZ KOMERTZIALA ETA INDUSTRIALA
Ongi pasa bestak!
T. 639 103 305

MIKEL UBIRIA
eskabazioak
garraioak
ONGI PASA BESTAK!
Biurrana 8 · 31770 Lesaka
948.637.302 619.716.322 608.779.641
info@excavacionesubiria.com

IRU BIDE GORA SAN FERMIN!!!
Erretegia · Asador
Biurrana, 3
LESACA
Tel:
948 637 127

ONGI PASA BESTAK
Irene
ileapaindegia
610 256 557 · 948 638 186
LESACA

BERA

KIROLA → DONOSTIA ETA BARTZELONA ARTEAN

Asier Valverde 10. Non Stop proba gogorrean

32 ordu eta erdi behar izan zituen 519 kilometrora murriztu zuten proba egiteko

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 9tik 11ra burutu zen Donostia-Bartzelona Powerade Non Stop mendi bizikleta proba. Hiru egunez, 709 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten txirrindulariek, ba-

naka edo bi, hiru edo lau laguneko taldetan banatuak. Iaz bezala, bakarka aritu zen Oiarzunen bizi den Asier Valverde beratarra eta hamargarren izan zen sailkapen orokorrean.

Asier Valverdek ere, bertze parte-hartzaile gehienek bezala, zenbait arazo izan zituen. Aragoi aldean, erraterako, baimenak zirela eta arazoak izan zituen Guardia Zibilarekin eta Aragoiko bi etapak neutralizatu egin zituzten, Balaguerrera iritsi arte.

Azkenean, 709 kilometrotik 190 kendu behar izan zituzten probatik. Honela, 519 kilometroak egiteko, 32 ordu, 30 minutu eta 7 segundo behar izan zituen Asier Valverdek. Ibilbidea bakarka egitera atera ziren 58 txirrindularietatik 27 ailegatu ziren helmugara, erdia baino guttiago eta horien artean hamargarren izan zen Berakoa. Halere, «be-roarengatik eta ibilbidearengatik hagitz gogorra» egin zaiola onartu du Valverdek.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Asier Valverde Jaizkibelen goiti lehen etapan eta Bartzelonako helmugan.

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

AMETS

Espezialistak gara zure atsedenean

PROMOZIO BIKAINAK KOLTZOIETAN

Markarik onenak | Neurri guztiak | Deskontu handiak

C/Sastrin 2,3,4 Bera (Navarra) | 948 630 537 | mueblesamets.com | amets@mueblesamets.com

GIZARTEA → UDALAK MOZIOA ONARTU DU

Altzateko bestetan Guardia Zibilaren jarrera salatu dute

«Larunbat gauerdian, inolako beharrik gabe, bestan zebilen jende artean ibili ziren uniforme eta guzti, arrisku egoera sortuz»

urtasun gehiago izan hobe dela». Herrirako taldeko zinegotzi batek erantzun zion bera momentu horretan Alzateko kontzertuan zegoela eta «ez zela sentitu ziur, ez dela normala 4 guardia zibil sartzea jendearen artean egin zuten moduan».

Mozioak, ekainaren 10eko larunbat gauean Guardia Zibilak erakutsitako jarrera salatzen du, «inolako beharrik gabe, gauerdian, jendea bestan zegoela haien artean ibili ziren uniforme eta guzti, arrisku egoera larria sortuz. Ez dugu horrelakorik berriz errepikatzerik nahi».

Aldi berean, Espainiako Polizia Nazionalaren, Guardia Zibilaren eta Armadaren errepliege osoa aldarrikatu du Udalak.

TTIPI-TTAPA

Guardia Zibilak Alzateko bestetan izan zuen jarrera salatuz EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartu zuen udalak ekainaren 14ko batzarrean, aldeko 9 botoekin (EH Bilduko 6 eta Herrirako taldeko 3) eta 2 abstentziorekin (Herrirako 1 eta UPNko zinegotzia). Hain zuzen, UPNko zinegotziak aipatu zuen «gero eta zi-



Ba al zenekien

Nerea Fagoaga, Mikel Telletxea eta Andrea Gouraud herriko artisten *Bidasoa Iokatzetik begirada* erakusketa uztailaren 16ra arte ikusgai da goela Kultur Etxean



UTZITAKO ARGAZKIA

Isidoreoren bidaia antzertu eta kantatu dute

'Isidoro Fagoaga, bada tenorea!' izenburupean egiten ari diren jardueren baitan, Isidoro Fagoagaren Lagunak elkarteak antolatutako udaberriko azken ekitaldia ekainaren 9an egin zen. Artistaren izena daraman Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako ikasleek Herriko Etxeko plazan, gauez, *Isidoreoren bidaia* antzerki-musikatu hunkigarria eta ikusgarria eskaini zuten, izenburuak dioen bezala, Fagoagaren ibilbidea musikaren bidez laburbilduz. Udako atsedenaldia- ren ondotik, udazkenean segituko dute Illekueta auzoko Agramontean sortutako tenore eta idazlea gogoratzeko ekitaldiekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Burlatako Arkaitz Ordoki nagusitu da Ibardingo II. Igoeran

Ilargi Sport eskuderiak eta Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatutako Ibardingo II. Igoera burutu zen ekainaren 10ean. 48 auto gidarik parte hartu zuten Nafarroako eta Errioxako Mendiko auto lasterketa txapelketetarako baliagarria zen proban eta horietatik 41ek lortu zuten bukatzea. Iaz bezala, Iguanto Motorsport-eko Arkaitz Ordoki burlatarra nagusitu zen, BRC B49 autoarekin. Ilargi Sport taldeko Joseba Beola herritarra izan zen bigarren eta talde bereko Beñat Población hirugarren. Jendetza bildu zen Ibardingo maldan.

KSAT
Telekomunikazioak
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Internet konexio simetrikotik ultralasterra

T. 637 40 86 40 - 31780 BERA - andonimabako@gmail.com

Goieko DESINBERA
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINFEKZIOAK · DESINSEKTATZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarna, kukuza...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu daitez! Termita eta Pipien tratamendurik

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

xirgil
jaione goya

ileapaindegi mistoa

Alzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

KULTURA → EKAINAREN 30EAN KONZERTUA

'160 urte ondoren' lehen diskoa atera du Musika Bandak

Ortziralean 22:00etan aurkeztuko du Onin erreka gainean herriko 'soinu-bandako' 15 kantu biltzen dituen lana

Aitor AROTZENA

160 urte ondoren bere lehen diskoa karrikaratu du herriko Musika bandak. Hain zuzen, 160 urte bete dira Nafarroako musika bandarik zaharrena dena sortu zenetik eta nolabait, ibilbide hori herriko soinu-banda izan daite-

keen lan honetan bildu du, 15 kanturekin. Tartean daude *Napoleones*, *Zako Zahar Plus Ultra*, *Mozkorrenborda*, *Beti Gazteren himnoa*, *Iria*, *Lesakako peñak*, *Txakaingo jeitsieraren zortzikoa*... Abesbatza- ren, eskola eta ikastolako ikasleen edo Beti Gazteko jokalarien kolaborazioa izan dute grabatzerakoan. Disko hori 12 eurotan jarriko dute salgai eta aurkezpena, Sanferminen aitzineko ohiko emanaldian eginen du musika bandak. Hain zuzen, ekainaren 30ean, ortziralean 22:00etan Onin zubiaren gainean eskainiko du kontzertua, doan.



Ba al zenekien

Nafarroa Oinezeko kantua eta bideokliparen aurkezpena egitekoa zutela astelehenean Iruñean. Aitzinetik, udako eta Sanferminetako arroparen aurkezpenean izan ziren Oier Sanjurjo futbolaria, Abel Barriola pilotari ohia eta Anabel Arraiza.

**SAN FERMINETAKO MENUA
GAUEZ ETA ASTEBURUAN**

Bereau
Hotela-Jatetxea

Etxeko entsalada
Zainzuri beteak
Arrain-pudina
Pikillo piper beteak
1/2 legatz-betea
1/2 entrekota
Etxeko postreak
Ura, krintza ardoa, sagardoa...

25€

**BESTA ON ETA
PAREKIDEAK
OPA DIZKIZUE**



Animatu eta joan-etorriak XARUTA TAXIA 619 974 252



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

Tomas Rekondori ezusteko omenaldi hunkigarria

Omenaldi ezustekoa eta hunkigarria eskaini zion ekainaren 10ean Musika bandak Tomas Rekondo Andueziari, orain arte zuen taldekide zaharrenari. 65 urte eman ditu klarineta jotzen. Rekondo erremontezalea da eta Koteto Ezkurra du lagun handia eta idoloa. Ezkurra eta Barrenetxea IV, Zeberio eta Ionon kontrako partida ikusten ari zela sartu zen udal musika banda pilotalekuan eta kanta erdira deitu zuten. Aurrekoa dantzatu zioten, Koteto Ezkurra berak sinatutako erremontea eskaini zion eta klarineta dotore bat oparitu zioten. Kalejira ateratu ziren eta Rekondoren etxe atarian kontzertu bat eskaini zion musika bandak. Musika bandak berze oroigarri dotore bat eman zion Rekondori eta lore-xorta Mari Carmen emazteari. Alaitz Rekondo alaba ere bertso kantari ari zuen zitaion etxeko balkoitik. Bukatzeko, Kasinon bazkaldu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Osasun eskoletako ziurtagiria lortu du Irain Eskola Publikoak

Irain eskolak Osasun eskoletako ziurtagiria lortu zuen ekainaren 5ean, Nafarroako bertze sei eskolekin batera. Horretarako, eskola hiru urtez ekintza osasungarriak bultzatu eta ekin ditu. Horien artean *Tranqui* programa, Once-ko lehiaketa, Lacturaleko *Gosari osasungarriak*, Fluor kanpaina, emozio hezkuntza, Bide Hezkuntza... Argazkian, ikastetxean azken ikasturtea egin duten 6. mailako ikasleak daude, Sastrinera irteera egiteko prest, ziurtagiria eskuetan dutela.



ARGAZKIAK: MARKEL ITURRIA ETA GOIATZ JAUREGI

Izkueko enduro proba

Ekainaren 18an Etxalarko Markel Iturria eta Goiatz Jauregi Izkueira joan ziren bertako enduro bizikleta proban parte hartuz. 24km-ko ibilbide bat denbora neurtuan egin behar zuten, jaitsiera kronometratuarekin. Markelek bizikletarekin arazoak izan eta bukatzerik izan ez bazuen ere, Goiatz bigarren geratu zen 23 urtez azpikoen kategorian eta hamaugarrena parte hartu zuten 80 kirolarien artean.



ARGAZKIAK: IDOIA ITURRIA ETA MIREIA MARTINEZ

Nafarroako kenpo-kai txapelketa eta gerriko aldaketa

Maiatzaren 27an Nafarroako Kenpokai txapelketa egin zen Elizondon. Bertan Unai Arburua Etxalartarrak emaitza onak lortu zituen 14 urtekoen kategorian. Lehenengo postuak lortu zituen kata armarekin modalitatean eta baita konbatean ere, eta bigarren postua kata armarik gabe modalitatean (eskuinean). Bertetik, ekainaren 11n gerriko aldaketa egin zuten Oiartzunen (ezkerrean). Bertan Etxalarko Mikel Iturriak gerriko urdin marroia lortu zuen eta Eneritz Iturbidek gerriko horia. Zorionak bikote.



ARGAZKIAK: JABIER IRIARTE

Pello San Millan ezkerreko argazkian, eta Jaione Irigoien eskuinekoan, epaimahaikideekin.

GIZARTEA → LEHEN ALDIZ EGIN DA LEHIAKETA

Bestak iragarriko dituzten kartela eta azala aukeratu dituzte

Jaione Irigoien eta Pello San Millan izan dira sarituak lehen edizioan

Iruñe ELIZAGOIEN

Aurten lehenengo aldiz herriko bestak iragartzeko kartel eta programaren azal lehiaketa antolatu du Udalak eta dagoeneko erabaki dute zein diren irabazle-

ak. Guztira 5 azal eta 5 kartel aurkeztu dira eta kultura zinegotzi bat, Altxatako kide bat eta herriko gazte taldeko kide batek osatu dute epaimahaia. Pello San Millan arizkundarra izan da kartelaren irabazlea eta 50 euro eta herriko ostatuan 2 lagunentzako otordua irabazi ditu sarizat. Azaletan, berriaz, onena Jaione Irigoien etxalartarrarena izan

da eta 100 euroko saria irabazi du.

Su-itzalgailuen errebisioa

Uztailaren 1ean extintoreen errebisioa egingen da Kultur Etxeko arkupean goizeko 10etan. Mendiko suak itzaltzeko pala bereziak ondoko baserrietan dauzkate: Urritzokietan Zamudieneko-bordan, Larrapil-Sarrakun Iturraldeko-

bordan, Lakain-Apezboron Arrineko-bordan, Orizkin Tolareko-bordan, Lurriztederran Goietxegaraietan, eta Gorosurretan Maisterreneko bordan.

Kultur etxearen udako ordutegia

Ekainaren 19tik abuztuaren 31 arte Kultur Etxeko ordutegia 10:00etatik 13:45era izanen da.

ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

- Pentu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

ETXEZ ETXEO BANAKETA

ARANTZA

GIZARTEA → UZTAILAREN 3TIK 28RA

31 haurrek eman dute udalekuetan izena

Hiru begirale izanen dituzte

Nerea ALTZURI

Heldu den astelehen hasiko dira udalekuak. Aurten herrian inoiz baino arrakastatsuagoak eta parte hartzaileagoak izanen dira. Guztira 31 neska-mutikok eman dute izena, horietatik 12 dira 3-6 urte bitartekoak eta gainerako 19ak 6-12 bitartekoak. Goizez, 10:00etatik 13:00etara elkartuko dira.

Begirale arduraduna Olaia Matxikote igantziarra izanen da, eta berekin batera, bertze bi begirale ariko dira lanean.

Uztailaren 28ra arte izanen dira udalekuak, eta tartean, uztailaren 25a besta izanen da.

Arantza Rock-eko kartela

Abuztuaren 19an izanen den Arantza Rock-eko 22.edizioa iragaritzeko badugu kartela. Gazte Asanbladak antolatutako lehiaketan, Garazi Conde lesakarraren kartelak irabazi du. Zorionak!



Gobernuarekin hitzarmena

Plan municipalari dagokion elkarlan hitzarmena sinatu du Udalak Nafarroako Gobernuarekin. Horren arabera, erakuntza huts eta utziak berrituedo berreraikitze-ko planak sustatuko dituzte. Herri Ondasunaren Katalogo berria ere egingen da, udalerraren interes kultureko elementuak aintzat hartuz. Bertzalde, mendiguneak identifikatu eta analizatu beharko ditu Udalak. Aurrekontua 95.000 eurokoa da eta Gobernuak 76.000 finantzatuko ditu.

Herri bazkarirako txartelak salgai

Bestetako lehenbiziko egunean, abuztuaren 14an, egingen den herri-bazkarirako txartelak salgai paratu ditu Kultura Batzordeak. 25 eurotan eros daitezke herriko ostatuetan, eta erosteko azken eguna uztailaren 25a izanen da.



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETxea

Egun borobila

Aise atzenduko ez dugun eguna... Halaxe izanen da ekainaren 18a. Hainbat herritarren lan eta parte-hartzeari esker, zoragarria izan baitzen herri-galdeketa eguna. Inaxi, Gabi eta Itxarok, familia bereko hiru belaunaldik elkarrekin eman zuten eguneko lehenbiziko botoa eta gainerakoan, botoa ematera deituak zeuden 514 lagunetik 310ek eman zuten botoa (%60,31). Horietatik 288k baiezkoa. Parte-hartzea handia izateaz gain, ekitaldiak ere jendetsuak izan ziren. Trikitilarien kalejira, Arantzako Dantza Luzea, haurren pilota partidak, gazteen herri-kirol desafioa, haurrak kantari, luntxa, Beñaten dantzaldia... Egun ederra izan zen, eta argazkiak dira lekuko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortz neska-mutikoren Jaunartzea

Beñat Azpiroz Errandonea, Iraide Burlada Lukanbio, Oinatz Madariaga Alberdi, Ainhize San Juan Taberna eta Saioa Etxegarai Maizek Jaunartzea egin zuten ekainaren 18an. Argazkian Martin Legarra apezka, Lucia Iparragirre eta Irati Azpirozekin ageri dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txamukosen emanaldia Burladan

Ekainaren 16an, Txamukos mariatxi taldeak bere bigarren diskoa aurkeztu zuen Burlada jatetxean antolaturiko afari eta emanaldian. Giro ederra sortu zen eta batzuentzat besta goizaldeko ordu tikiak arte luzatu zen.

GIZARTEA → IRAILERA BITARTE

Udako ordutegiarekin hasiak dira Irrisarri Land parkean

Egunero zabalik da 10:00etatik 19:00etara

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 16tik hasi eta irailera ikasturtea berria hasi bitarte egunero irekiko ditu atea Irrisarri Land abentura parkeak. Joan den udan 30.000 lagunek bisitatu zuten parkea.

Irekiera ordutegiari dagokionez, erremon-tea edo monitorea behar duten jardueretakoa 10:00etatik 19:00etara izanen da, baina bertze ekitaldiak eta ostatua ere gauera arte egonen dira irekiak.

JARDUERA BERRIAK

Hiru ibilbide interaktibo berri paratu dituzte

martxan. Zentzumenen ibilbidean, bisitariak zentzumen guztiak erabiliko ditu naturarekin harremanatzeko. Ibilbide mitologikoan, basoko zuhaitzen artean euskal mitologiako pertsonaiak topatu eta beraien kondairak ikasteko aukera izanen dute haur nahiz helduek. Naturaren ibilbidean animaliak eta landareak dira protagonista.

Bertzalde, Jolastokian 2 eta 7 urte arteko haurrendako Txikipark bat egokitu da, monitorean, haurrek jostatzeko duten bitartean, handiagoek aktibitate ezberdinak egin ditzaten.

Azken urteetan bezala, ekainaren 23tik 25 era bitarte San Juan bestak ere ospatu dituzte Irrisarriin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarren %41,59ak bozkatu zuen herri-galdeketan

Bozkatzera deituak zeuden 16 urtetik goitiko 517 herritarretatik 215ek bozkatu zuten ekainaren 18ko herri galdeketa (%41,59ko parte-hartzea). Horietaatik 198k baiezkoa eman zioten *Nafar gisa, Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan nahi duzu?* galderari. Zortzi herritarrek ezezkoa bozkatu zuten, bertze zortzi zuri eta baliogabeko boto bat ere izan zen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Tirolina erabiltzeko aukera egunero izanen da Irrisarriin.

ERREKALDE
OSTATUA

PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATAK

TFNOA: 948 630 259
BERA

CASAS IPARLA

Bungalow eta neurria egindako etxe nordikoak

Ubela Pol. 4 | 31780 BERA | M. 636 069 754

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auza - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

anterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

HERRI-GALDEKETAK BORTZIRIETAN ETA MENDIALDEAN | 2017/06/18

HERRI-GALDEKETAK → BORTZIRIAK ETA LEITZALDEA

Eskualdeko 3.493 herritarren botoekin erabakiaren bidea hasi da Nafarroan

Bortzirietan 1.914 lagunek eman dute botoa eta 1.579k Leitza, Goizueta, Areso eta Aranon



ARGAZKIA: GURE ESKU DAGO

Leitzako Mikaela Apeztexeak (96 urte) eta Ramon Astizek (97 urte) txalo artean eman zuten ekainaren 18an botoa.

G. PIKABEA

«Bide berri bat hasi dugu Nafarroan, jarraipena izanen duen itxaropenarekin». Halaxe, baikor, mintzatu da Gure Esku Dagoekainaren 18an Nafarroan egindako herri-galdeketen harira. Balarazio positiboa egin du, eta azaldu duenez, «urtebeteko prozesuaren ondotik, hitza hartu dugu gure etorkizun politikoa- ren inguruan. Ate hori herritarrok ireki dugu, gure eskubideen jabe eginez, prozesu zorrotz bezain emankor baten bidez».

Nafarroako 26 herri- tan egin zen ekainaren

18an galdeketa, tartean ziren eskualdeko bederatz. Gisa honetara, Gure Esku Dagoren irudinarako, «Nafarroan ere erabakiaren bideari ekiteko borondate eta konpromisoa badela erakutsi dugu».

PARTE-HARTZEA

Arano, Arantza, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta, Igantzi, Leitza eta Lesakan 3.493 herritarrek eman zuten botoa.

Nafar gisa, Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan nahi duzu? galderari erantzun zioten Bortzirietan. Arantzan

izan zen parte-hartzerik altuena: %60,31k eman zuen botoa. Beran %19,79koa izan zen parte-hartzea, Etxalarren %26,97koa, Igantzin %41,59koa eta Lesakan %25,27koa.

Mendialdean, bi izan ziren galderak: *Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea? eta baietzkoa bada, Nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?.* Parte-hartzeari dagokionean, ekainaren 18an Nafarroa mailan da-

turik altuena lortu zuen herria Goizueta izan zen (%63,43), eta hurbil ibili ziren aranoarrak ere (%61,46). Areson %42,51ekoa izan zen parte-hartzea eta Leitza %40,04koa.

Gure Esku Dagok adierazi duenez, «datozen hilabeteetan ere lanean jarraituko dugu, borondateak ehunduz, adostasunetan sakonduz eta herritarrek ahalduz, Euskal Herrian erabakia gauzatu arte, libre eta demokratikoki. Gaur pauso bat hurbilago gau-

deatzo baino helburu horretatik».

BOLETO SARITUAK

Aitzineko hilabeteetan saldutako boletoen zozketa, ekainaren 18an egin zuen Eman Bortzekoa Elkartek eta zenbaki sarituak zein diren jakinarazi du: Arantza Hotelean gau bateko egonaldia 0930 zenbakari tokatu zaio, Euskal Tonboloko lotea 4.303 zenbakari; Zalainen bazkaria 5.528 zenbakari eta Irrisarrin Baxiko Abentura Plus saria 2.921 zenbakari.

BORTZIRIETAKO GALDERA:

«Nafar gisa, Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan nahi duzu?»

	Errolda	Parte-hartzea	Abstentzioa	Bai	Ez	Zuriak	Baliogabeak
ARANTZA	514	310 (%60,31)	204 (39,69)	288	7	12	3
BERA	3.164	626 (%19,79)	2.539 (%80,21)	610	10	5	1
ETXALAR	660	178 (%26,97)	482 (%73,03)	171	4	3	0
IGANTZI	517	215 (%41,59)	302 (%58,41)	198	8	8	1
LESAKA	2.315	585 (%25,27)	1.730 (%74,73)	553	18	12	2

MENDIALDEKO GALDERAK:

«Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?»

Baiezkoa bada: «nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?»

	Errolda	Parte-hartzea	Abstentzioa	Bai-Bai	Bai-Ez	Bai-Zuria	Ez	Zuria	Baliogab.
ARANO	96	59 (%61,46)	37 (%38,54)	49	1	4	2	2	1
ARESO	247	105 (%42,51)	142 (%57,49)	103	1	0	0	1	0
GOIZUETA	638	405 (%63,48)	233 (%36,52)	368	9	7	3	12	6
LEITZA	2.525	1.011 (%40,04)	1.514 (%59,96)	922	16	42	9	17	5

BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

*Erakutsi eta
probexu aukerak!*



BIANDITZ
NEKAZARIEN ETXEA

%5 DESKONTUA
pensu
ekologikoetan

Zalain Ind. 5 | BERA
T. 600 97 73 39

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
OFFTOP deada

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

bortzirudi

DESKONTUA
%15 Kamisletan **%10** Inpreta lanetan
%5 kopia, enkusadumazio eta plastikazko 30tik gortik
* Aurrekontatik kanpo

Eztegara, 26 esk. behea | BERA
T. 948 63 15 21

elika Dietetika eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behea | BERA
T. 948 63 12 83

Intzuri
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria kalea, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

TuriSani
LAND

%50 DESKONTUA sarreran
%10 DESKONTUA tirolina eta penduloetan

Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

kattogorria

%10 DESKONTUA
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

LIRAIN
ESTETIKA ETA ONIZIATZE ZENTROA

%5 DESKONTUA kosmetikan
%5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora.
Promozioetan ezik

Iparralde, 1 | BERA
T. 948 62 57 17

LESAKAKO UDAL
KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

oreKa
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HK podologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren azterketa digitaletan

Legia, 42 | BERA
T. 688 87 81 77

Semper
autoformaketa

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98

Semper
autoformaketa

%10 DESKONTUA
matrikulan

LESAKA | 948 63 82 99

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskuletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

Urdi Bera
BERRIEN BERRIEN / BERRIEN BERRIEN

%20 DESKONTUA
urteko abonarenean matrikulan

Toki Ona Kirolegia | BERA
T. 948 63 02 15

ZK zela
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

ZU
lorenda dekorazioa osagarriak

%5 DESKONTUA
lore moztuan 30€tik gorako erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

SUNBILLA



UTZITAKO ARGAZKIA

Igor Agestak eta Eneko Herrerak ezin izan zuten Donostia-Bartzelona ibilbidea bukatu.

KIROLA → BIZIKLETAZ

Gure kirolariek erronka bereziei aurre egin diete

Jon Maritxalar txirrindulariak Everest Erronka (8.850 metroko desnibela) hogeitaz bete zuen

bildarrak Everest Erronka parte hartu zuen. Guztira 8.850 metroko desnibela zuen ibilbidea, bizikletaz 20 orduz egitea lortu zuen Errekako bertze hiru taldekidekin batera. Guztira 320 kilometro egin zituzten Arizkunen hasi eta akituz.

Maider PETRIRENA

Ekainaren 9tik 11ra burutu da Donostia-Bartzelona Powerade Non Stop mendi bizikleta proba. Hiru egunez, 709 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten txirrindulariak, baina edo bi, hiru edo lau laguneko taldetan banatuak. Errekako bikotea, (Igor Agesta eta Eneko Herrera) ongi hasi zen, baina arazo teknikoak medio, ez zuen proba bukatzerik izan.

Bertze aldetik, Jon Maritxalar Etxenike sun-



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA

Ikasturte bukaera Bertzen

Ikasturteari bukaera ederra eman zioten ekainaren 20an eskolako irakasle eta ikasle guztiek Bertzen. HH eta LH 1. eta 2. mailakoak autobusez joan ziren. LHko gainontzeko ikasleak berriz bizikletaz. Bertzen jokoak, bainua eta naturaz gozatzeko aukera izan zuten baita agur berexiak entzuteko ere. 5. eta 6. mailako ikasleak dantza bat prestatua zuten agur moduan, datorren ikasturtean 6. mailakoak Doneztebera joanen direlako. Beraiek ere agur berexia jaso zuten bertso bat kantatu baitzieten irakasleek.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Malerrekako herrietako eskolen 7. Joko Topaketa

Malerrekako eskola ttiketako irakasle eta ikasleek zazpigarren urtez Sunbillan egin zuten Joko Topaketa. Harreraren ondotik, HHkoak jokoak izan zituzten eta LHkoak Ginkana. Gosariaren ondotik, jaialdia egin zuten. Haur Hezkuntzakoek *Koloreak ikasten* eta *Popurri* kantak abestu eta dantzatu zituzten. Ondoren LHko 1., 2. eta 3. mailakoak izan ziren eta hauek *Makilak airera*, *Ipharadisi* eta *Euskaraz bizi nahi dut* kantak abestu eta dantzatu zituzten. LH 4, 5 eta 6. mailakoak izan ziren segida eman ziotenak *Danubio Urdina*, *Kokoleoko*, *Bonse aba* eta *Euskararen txantxangorria* kantatu eta dantzatu zituzten baita txirula jo ere. Ondoren LHko mailako ikasle guztiak *Mantusha*, *Ahoa bizi* eta *Color Esperanza* kantatu zituzten. Eta akitzeko parte hartu zuten ikasle guztiak eszenatokira atera eta Joko Topaketarako sortutako bertsoa kantatu zuten.



ARGAZKIA: JOSETXO APEZTEGIA

Korpus Kristi eguna

Ekainaren 18an Korpus Kristi eguna ospatu zen. Eguraldia lagun prozesio eder eta polit bat egiteko aukera izan zen. Ibilbidea hasi baino lehen eta akitu ondotik, Banderaren dantza dantzatu zuen Florentino Gelbentzu Almandozek.



ARGAZKIA: SILBIA EZKURRA

Rebeka eskolako emanaldia

Ekainaren 11n Donezteben dagoen Rebeka eskolako emanaldi bikaina eskaini zuen Koteto Ezkurra pilotalekuan. Bertan hainbat dantza egin zituzten. Argazkian ageri diren sunbildarrak Ballet eta Dantza Jazz-ean parte hartu zuten.

GIZARTEA → IRAILERA BITARTE

Turismo Bulegoa irekiko dute uztailaren 4an

Turismoa bultzatzeko gida eta mapa ere argitaratu ditu Udalak

Marga ERDOZAIN

Doneztebe prest dago aurtengo udan bisitatuko gaituzten turistei harrera egiteko. Uztailaren 4tik aitzinera eta irailera bitarte bertako turismo bulegoa zabalik egonen da: asteartetik igandera zabalik egonen da goizez, 11:00etatik 13:30era eta arratsalde, 17:00etatik 19:30era. Turismoa bultzatzeko Udalak Doneztebeko gida berria

kaleratu du baita bertako mapa ere. Bi euskarri berri hauek ere landetxe eta bertze hainbat tokitan ere banatuko dira gure herria ezagutarazteko. Horretaz gain, aurten ere bisita gidatuak eskainiko dituzte.

Udako ludoteka prest

Uztailaren 3an hasita, eta bi hilabetez, udako ludoteka martxan egonen da. Zerbitzu hau astelehenetik ortziralean eskoletako gimnasioan burutuko da, goizez, 09:00etatik 14:00etara. laz bezala, Udalak adizuna mugatu du; aurten 2008-2014 bitarteko



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

Irakurri, gozatu eta oparitu ekimena Malerrekan

Argazkian agertzen den neska Doneztebeko Paula Ruiz da, *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* ekimenaren apirilko irabazlea. Maiatzeko irabazlea Zubietako Kattalin Paul suertatu da. Bi saridun hauetaz gain (30 euroko txekoa liburuak erosteko irabazi dute), aipatu behar da kanpaina honek hagitx emaitza ona izan duela. Ekimena martxoaren 20an hasi eta maiatzaren 31n bukatu zen eta tartet horretan 12 urte arteko umeek 106 liburu eta 12 urtetik gorakoek 53 liburu hartu dituzte maileguan liburutegian. Antolatzaileak Euskaltzaleen Topagunea eta Malerreko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua izan ziren eta Doneztebeko Liburutegiak eta Ostiz liburu-dendak ere ekimen honetan parte hartu dute. Helburuak bete dira: irakurzaletasuna bultzatu, herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratu eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera bultzatu. Liburutegian jasotako erosketatxekeak, euskarazko beste edozein liburu %35 merkeago erosteko aukera ere eman du.

umeentzako zerbitzua izanen da.

Aipatu behar da aurtengo eskaria ikusita (24 neska-mutikok eman

dute izena), Udalak biltalde martxan jarriko dituela, monitore bana izanda: Amaia Iraola eta Inaxio Agara. Uztailean

eta abuztuan jokoak, musika, tailerrak eta bertze hainbat ekintza egiteko aukera izanen dute 24 txiki hauek.

UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

Goizeko ordutegia izanen du liburutegiak

Marga ERDOZAIN

Herriko bestak pasatuta, uztailearen 3tik aitzinera liburutegia udako ordutegiarekin hasiko da, hau da goizez 10:30etik 13:30era irekiko dituzte ateak.

Liburutegiak ikasturte bikaina burutu du, ohiko zerbitzuaz gain, ipuin txokoa, ipuin kontaketa, eskoletako bisitak izan ditu. Azken zerbitzu hauek hagitx positibotzat jotzen dira irakurzaletasuna bultzatzeko eta kalitatezko erabiltzaileak lortzeko. Ekimen horien barrenean azpimarratu behar da Helduen Literatur Tal-

dearen sorrera. Aurtengo udaberriarekin batera ekimen berri honetan murgildu da emakume talde bat. Martxoan 5 pertsona hasi ziren eta ekainean 15 lagun biltzera ailegatu dira. Tailer honen helburua emakume idazleak gehiago ezagutzea eta horrelaxe egin dute, hilero, liburu bat aukeratu eta irakurri ondoren, elkar-tu eta komentatu egiten zuten bai liburu, bai egilearen inguruko zenbait datu, zalantza, hausnarketa, sentipen. Ekimen interesgarri hau udazkenean itzuliko da, baita ipuin txokoa ere.

FLASH

Ikastetxeak itxita

San Miguel eta Mendaur Institutuko ateak ekainaren bukaeran itxiko dira. Txostenak, buletinak, bilerak... hori guztia egindakoan, pertsianak jaitziko dira heldu den irailaren 6ra arte. Bi hilabete hauetan Udalak aprobetxatuko du hainbat mantentze-lan egiteko. Azpimarratu behar da San Miguel Ikastetxean 70 leiho aldatuko dituztela. Horretaz gain, pintaketak, txukunketak, sukaldeko hobekuntzak ere egingen dira.

EGA ikastaroa abuztuan

Doneztebeko IKA euskaltegiak, urtero bezala, EGA ikastaroa antolatu du. Ikastaroa abuztuaren 6tik irailaren 1era egingen da eta bi eratara egin daiteke: klase presentzialak eta on-line edo autoikaskuntzaren bidez. Interesatuak abuztuaren 3ra arte dute apuntatzeko aukera. Argibide gehiago 948 45 1555 telefonoan edo mallerreka@ikaeuskaltegiak.eus

ITUREN

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK

Udal plana egiteko 40.000 euroko laguntza emanen du

Mendaur ingurua ere ikertuko da lurzorua birmoldaketan

Arkaitz MINDEGIA

Hamar udalerriren udal planak egiteko aurrekontuaren %80 ordainduko du Nafarroako Gobernuak. Tartean, Iturengo. Etxebizitzarako behar den lurzorua beharra ikertuko du, herriak dituen hiru nukleoak kontuan hartuz. Hornidura azpiegitura orokorrak leku egoikiagoetan kokatzea eztabaidatuko da, eman beharreko zerbitzuaren arabera. Udal plan honenkin Malerrekako antolaketa urbanistikoa osatuko da, Ezkurra errekak duen funtzio komunikatiboa aintzat hartuz. Bertzalde, Mendaurko mendigunea ere ikertuko da lurzorua birmoldaketan. Aurrekontua 50.000 eurokoa da eta 40.000ko dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak.

Ludoteka

Urtero bezala aurten ere udan Ludoteka martxan jarriko dute Ixiar Bazterrikak eta Garbiñe Olazarrek uztailen,

astelehenetik ortzirale-ra 10:00etatik 13:00etara. Haurrak 09:00etarako uzteko aukera ere bada. Haur bakoitzak 100 euro ordaindu beharko ditu, bi senide apuntatuz gero 160 euro. Norbaitek apuntatu nahi badu honako telefono hauetan egin beharko du 628 618 218 (Garbiñe) eta 679512963 (Itziar). Jendea apuntatuko balitz abuztuaren erdian eskainiko litzateke zerbitzua.

Maika Ariztegi txapeldun

Pasa den ekainaren 18an Maika Ariztegi Nafarroako koxkor biltze txapelketan txapela lortu zuen bertze behin ere. Uhartan izan zen proba eta 50 koxkor 7:57 minututan biltzea lortu zuen herritarrak. Kirol orrialdeetan informazio gehiago.

Herriko ttiekiek oporrak hartu dituzte

Ekitaldiz beteak ibili dira Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleak. Ekainaren 1ean Malerrekako herri eskolek, zazpigarren joko topaketa eguna ospatu zuten Sunbillan eta goizean zehar joko eta kan-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasturte bukaera Juan Carlos Pikabea margolariarekin

Ikasturtea akitzeko ekitaldien artean, Pulunpa eskolako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek Juan Carlos Pikabea margolari lesakarrarekin hiru orduko tailerra izan zuten. Joaldunak gaitzat hartuta margolan ederrak egin zituzten eta aski gustura aritu ziren bai ikasleak, baita Pikabea ere.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ikasturte bukaera ekitaldiz beteak izan dute eskolako neska-mutikoeak.

tuekin egun borobila pasa zuten. Eta azkenik ekainaren 20an oporrak behar den bezala hartu zituzten. Goizean eskulan, jokoak, zumba...

eta eguerdian ikasle, irakasle eta guraso andanak bildu ziren herriko ostatuko estalpean bazkaltzera. Eguna ongi akitzeko egurrezko

joko, puzgarriak eta aparbesta izan zuten eta berroari aurre egiteko errekan ere bainua hartzeko aukera izan zuten. Ongi pasa oporrak!!

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 18AN

Akuntzulotako gazta garaile Bestaberriko lehiaketan

Zortzi aurkeztu zituzten eta bigarren saria Borraldara

Fermin ETXEKOLONEA

Bestaberri eguna ospatu zen ekainaren 18an Zubietan ere. Arratsaldean zehar, lorez eta oi-halez apainduta zegoen herrian barrena prozesioa egin zuten.

Ondotik, zortzi gazta aurkeztu ziren lehiaketara. Epaimahaiak lana egin, eta Akuntzulotako Mari Mar Bergararen gazta suertatu zen garaile. Bi lagunentzako

otordua Herriko Ostatuan jaso zuen saritzat. Bigarren saria, Borraldako Patrixi Telletxeak eraman zuen.

Horietaz gain, Olasenea, Iriarte, Serokoa, Parazelaieta, Martutze-nea eta Seroineako gaztak ere aurkeztu zituzten. Denak ere aski goxoak, gero udalak proposatutako berenduan egon zirenek aipatu zuten. Musika giroa Joxe Angelek jarri zuen.

Oritzako eguna

Beroarekin baina ongi joan zen Oritzako bestaren hamabigarren edi-



zioa. 30 lagun bildu ziren bazkaltzera. Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu bertsotan aritu ziren eta Mikele eta Olaia trikitixa joz.

Errusiatik udapasa

Errusiako Olga neskatxa ekarri dute Joxemi Aranguren eta Ixabel Elizalde bi hilabeterako, udapasa.

Arrateroko pista moldatuko dute uztailean

Arratero inguruko pista



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Bestaberri eguneko prozesioa eta gazta lehiaketako epaileak lanean.

uztailean moldatzeko asmoa dute. Ubiria erakuntza enpresak eginen ditu zementuzko pista

egokitzeko lanak. Egun batzutan itxia egonen dela kontuan har dezatela erabiltzaileek.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Erreka, igerileku eta hondartzarako toallak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

URROZ

KULTURA → IVAN FERNANDEZEN ZUZENDARITZAPEAN

Aktore ezagunak filma grabatzen ari dira Leurtzako urtegian

Herriko landetxetan hartu dute ostatu eta horrek eguneroko bizia aztoratu du

Jaione ARIZTEGI

Maiatza hondar aldera film bat grabatzen hasi ziren Leurtzako urtegian, eta oraindik horretan dabilta lan talde handi bat. Denboraldi hau Urrozren pasatzen ari dira, bertako landetxetan hartu dute ostatu eta erran beharrik ez

dago horrek herria pixka bat aztoratu egin duela, eta poztasuna nabaritzen dela.

Pelikularen argumentuari dagokionez, gaur egunera egokitu-tako pelikula bat da, non bikote hippi baten unitbertsoak eta bikote "milleniar" (hazkunde ekonomikoaren garaian jaiotako gazte intelektu- al eta ikasketadunak) bat egiten duten. Pelikulan ikusiko da bikote bakoitzak zein arrazoi ematen dituen beraien bizi ereduaren alde.

Lau dira beraz, pertsonaia nagusiak, telebistan nahiko ezagunak direnak, besteak beste, *Gym Tonic* bezalako te-

lesaietan agertu direnak. Horien izenak, Rodrigo Paison, Maria Almodéver, Sala Sálamo eta Jaime Olías dira. Gainera, tartean bertzeak bertze Norma Ruiz aktorea ere izan da egun batzuetan grabatzen (hau, *Yo soy Bea* tele-sailean agertu izan da batik bat).

Pelikularen zuzendaria Iván Fernández de Córdoba da (2016. Urtean *Un Lugar* pelikularekin Donostiako epaimahiaren saria jaso zuena).

Baina erran bezala, lan talde handi bat ari da lanean gogotsu, gauetan ere grabatzen aritzen baitira.



ERATSUN

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK

Julian Retegi saritu dute

Karlos III. Prestuaren Gurutzea eman diote

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Karlos III. Prestuaren Gurutzea eman die zazpi pertsona eta erakunderi, dagozkien jardueren bidez, «Foru Komunita-

tea garatzen, hedatzen eta ezagutarazten nabarmen laguntzeagatik». Zehazki, zenbait foru-dekretu onetsiz, hauei banatu zaie kondekorazioa: Aralar Mendiko Elkarte, Artzai Egunerako Antolatzen duena; Nafarroako DYA bide-laguntza elkarte; Humberto Bustince, zientzialaria; José Ulibarrena, eskultorea; Julián Retegi, pilotaria; Miren-

txu Purroy, kazetaria eta Javier Ochoa, enologoa. Kondekorazio hori ekainaren 17an eman zituen Uxue Barkos presidentea.

Julian Retegi Barberiari buruz, Nafarroako Gobernuak adierazi duenez, «bere izenak leku nabarmena du euskal pilotaren historian», eta bere «kirol-jarduera ikusgarria» nabarmendu du, «pilotarien be-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Retegi II.ak Barkos presidentearen eskutik jaso zuen saria.

launaldi guztientzat eredu delako». «Bere pertsona eta palmaresa funtsezko tresna izan

dira Nafarroako historian errotuta dagoen kirol hau sustatzeko», aipatu du.

BASABURUA TTIKIA

GIZARTEA → EKAINAREN 20AN

Beintza eta Saldiasko ikasleek ederki ospatu zuten ikasturte bukaera

Bazkaldu aurretik, goiz osoa pasatu zuten elkarrekin erreka bazterrean

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 20an, astearte goizeko 9etan Saldiasko eskolan elkartu ziren Beintza eta Saldiasko eskoletako haurrak, gurasoak eta irakasleak.

Bertan emanaldi txi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekan bero sargoriari aurre egin zioten ikasle, guraso eta irakasleek.

ki bat gurasoei eskaini ondoren, datorren urtean bi eskoletan egongo ez diren ikasleei agurra egin zieten.

Ondoren, errekarara abiatu ziren eta bertan

goiz atsegina pasatu zuten denek.

Hamaiketakoa hartu eta gero, indar berriturik, herrira itzuli ziren. Bertan, bazkari goxo batekin bukatu zuten

eguna, udara eder bat opa zioten elkarri eta datorren ikasturte arte agurtu ziren.

Iraila bitarte agurtzeko oso egun polita izan zen denentzat.

ETXEBIZITZA BERRIAK **DONEZTEBE**

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA

Lokal komertzialak ere baditugu!

- ✓ **RURAL KUTXA**ren babes eta laguntzarekin
- ✓ Salmenta zuzena: **PROMOTOREAK GARA**
- ✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin %15eko desgrabazioa errenta aitortpenean



Zure neurria egindako finantziazioa

395€ -tik aurrera hilean

135.000€ -tik aurrera
Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



ERNE! Ez galdu zure aukera



Hermanas Hospitalarias

BENITO MENNI OSPITALE ZENTROA

BENITO MENNI OSPITALE ZENTROA

Mendinueta kalea,
ELIZONDO
Tel.: 948 452 162

www.hospitalariasnavarra.org

Osasun-arreta eta babesa, eskutik doaz

Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroak 1938an ireki zituen atea. Mendinueta karrikako Villa Felisa eraikinean kokatua dago eta urtetan instalazioak handitzen joan dira, egungo itxura hartu arte. Hermanas Hospitalarias kongregazioak du zentroaren ardura eta zientzia eta karitatea uztartzea da beraien bereizgarria.

Zentroan 154 pertsona daude, hiru esparrutan banatuta: psikiatria (60 plaza), psikogeriatría (68 plaza) ezgaitasun intelektuala eta jokabide desorekak (24 plaza) eta Errehabilitazio Psikosozialeko Zentro bat ere badu, 25 pertsonendako tokiarekin.

PROFESIONALAK ELKARLANEAN

140 langilek osatzen dute lantaldea, eta gehienak Baztan edo inguru-ko eskualdetako langileak dira. Kalitatezko arreta eskaintzeko, diziplina anitzetako profesionalak elkarlanean aritzen dira: psikiatrak, medikuak, psikologoak, erizainak, klinikako laguntzaileak, gizarte langileak, terapeuta okupazionala eta fisioterapeuta. Horiekin batera, farmazia, ikuztegia, garbiketa, sukalde, mantenimendu eta administrazio sailtako langileak, harrerakoak eta giza baliabideetakoak ere zentroaren parte dira eta pastoralista eta boluntario talde bat ere badituzte.

Eritasun mentalak dituzten pertsonen beharrezko osasun-arreta eskaini eta gizartean integratzea da helburua.

ERREHABILITAZIO PSIKOSOZIALEKO ZENTROA (EPSZ)

Benito Menni Ospitale Zentroaren baitan, Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroa dago. Eguneko egoitza da eta bertan, asistentzia eta osasun-laguntza integrala behar duten pertsonen arreta eskaintzen diete.

Astelehenetik ostiralera irekita, jai-egunak izan ezik. Bi interbentzio programa aukeran:

- **Errehabilitazio Psikosozialerako programa:** Intentsiboagoa eta bereziagoa (15 plaza): 09:30-13:30
- **Eguneko Zentroko programa:** Eguneroko bizitza egituratzeko laguntza gehiago behar duten pertsonen zuzendua (10 plaza): 09:30-17:30

Pertsona edo familiarteko batek Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroaren inguruko interesa badu, familiako medikuarengana jo beharko du. Honek Burladako Osasun Mentaleko Zentrora bideratuko ditu eta bertan, kasu bakoitzaren balorazioa egin eta bere beharretara hobekien egokitzen den programa zein den erabakiko du.

Nori zuzendua?

Eritasun mental larria edo kronikoa duten 18 eta 65 urte bitarteko pertsonen: **eskizofrenia, nortasun desorekak, depresioa, antsietatea, anorexia, bulimia...**

EPSZn langile hauek daude:

Psikologo bat, gizarte langile bat, terapeuta okupazionala eta bi monitore.





ITSASO ETCHART: Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroko psikologoa eta arduraduna

“Eritasuna ezagutu eta bizi-kalitatea hobetzeko beraien indarguneak lantzen dituzte gurekin”

Eritasun mental larri edo kronikoak dituztenen beharrei erantzuteko sortu zuten Benito Mennin Errehabilitazio Psikosozialerako Zentroa. Bertako profesionalak, bakarka zein taldeka egiten dituzten ekintzen bidez, pertsona hauen integrazioa lortzeko lan egiten dute, errehabilitatu eta osatzeko. Egiten duten lanaren nondik norakoak azaldu ditu Itsaso Etchart psikologoak.

Zenbat erabiltzaile dituzue Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroan?

25 lagunentzako tokia izan arren, gaur egun 12 pertsona ditugu. Gehiago izatea nahi genuke eta horretarako egiten dugun lanaren berri ematea garrantzitsua da. Uste dugu inguruko jende aunitzek ez dakiela non gauden, zer egiten dugun eta zeintzuk diren gure helburuak. Gainera, gaixorik dauden pertsona batzuei kostatzen zaie beraien inguruetik aldentzea eta ez dute gurera etortzeko premiarik sentitzen. Eta aipatu behar da gaixotasun mentalek oraindik orain, tabua izaten segitzen dutela.

Zer da Zentroan eskaintzen duzuenak?

Eguneko zerbitzua da, astelehenetik ostiralera eskaintzen dena, jai-egunetan izan ezik eta bi programa mota eskaintzen ditugu: Errehabilitazio Psikosozialerako programa eta Eguneko Zentroko programa. Burladako Osasun Etxeko psikiatrak, erabiltzailearen iritzia kontuan hartuta, zehazten du zein programatan parte hartu behar duen bakoitzak. Erabiltzaile bakoitzaren egoera pertsonala, lanbidea... eta beharrak eta helburuak ere kontuan hartzen dituzte ekintza batzuk edo bertzeak gomendatzeko orduan. Eguneko zentroko erabiltzaileek garraio zerbitzua eta bazkaria eskatzeko aukera ere badute.

Zein helburu dute antolatzen dituzuen ekintzek?

Eritasun mentala duten pertsonen bakartzeko joera izaten dute, etxean geratu, zabartu, jan eta kirolak egin ez.... Jokaera hauek saihesteko, jarduera okupazionalak antolatzen ditugu: baratzegintza, galgoterapia, eskulanak... eta Baztango Udalarekin lankidetzan genero indarkeriaren aurkako pin eta brotzeak ere egiten dituzte. Jarduera hauei esker, integrazioa, motibazioa, arreta, autoestima... hobetzea lortzen da. Kirol-ekintzak ere egiten ditugu eta aisialdiaz gozatzeko proposamen desberdinak egiten dizkiegu. Asteburuetan beraien artean elkartzen jarraitzeko gonbidapena egin genien eta pentsa, kuadrilla osatua dute da goeneko.

Zeintzuk dira lortzen diren hobekuntzak?

Pertsona hauek beraien gaixotasuna ezagutu eta egoera hobeki kontrolatzea lortzen dute gurekin.

Desorekak tratamendua egokituta gainditzea lortu dute, ingratatzeko beharrik gabe. Etxean bakarrik eta ohean egoteari utzi diote eta egunero gurera etortzeko errutina bat jarraitzea ahalbidetu die. Beraien aldar-teak hobera egin du, gehiago ateratzen dira kalera, beste pertsonekin hartu-emanen daude eta eguneroko ekintzak egiteko gaitasunak ikasi edo berreskuratu dituzte (sukaldatzea, garbitzea....)

ZENTROAREN HELBURUAK:

- Oreka eta ongizate orokorra lortzea, bizi-kalitatea hobetuz.
- Euren gaitasunak garatzeko bitartekoak ematea.
- Erabiltzaileen beharrei erantzutea: bizimodu aktiboa, autonomia eta independentea izan dezaten.
- Gizarte integrazioa sustatzea eta ahal den neurrian egoitzetan ingratatzea saihestea.
- Lan mundura bideratzea.
- Denbora libre eta aisialdiaz gozatzeko gaitasunak ematea.
- Familiei babesa, aholkuritza eta informazioa eskaintzea.



EZKURRA

GIZARTEA → AISIA-GUNE BEZALA ERABILIKO DA

Ludotekako lanak ia bukatuak daude

Altzariak jartzea besterik ez da falta

Fernando ETXEBERRIA

Ludotekako eraikuntza lanak ia bukatuak daude, altzariak jartzea besterik ez da falta. Gune berriak haur, gazte eta erretiratuak biltzeko balioko du, eta helburuak oraindik zehaztuak ez dauden arren, jakina da aisia-gune bezala erabiliiko dela.

Ezurrako Mendi Itzulia

Abuztuaren 22rako, Ezurrako biztanle eta Arkupeak elkarteko jubilatuentzako mendi itzuli bat antolatu da.

Horretarako, hilaren 15ean bost boluntariok ibilbidea egin zuten modu egokian prestatzeko. Migeltxo, Tolare, Patxi, Tomas eta Juanitok 4 orduko bidea egin zuten, Barranka Ostaturatik hasi eta Intxaurpetik igo ziren, Kasteneako bordatik pasa eta Eratsungo lurretatik barrera Iruñarri eta Elizmurnoraino, eta behin Ezurrako eremuan egonik, Olegi eta Ezkainetik gailur altuenera igo ziren, Erakurrira, 1.142 metrora. Bertatik Idoia-ko putzura jeitsi ziren, eta baserri eta bordak inguratuz Barranka Ostaturaino iritsi ziren.

Bertzalde, abuztuaren 25erako Leitzatik Saldiasera ibilaldi bat aurreikusia dago.




ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ludoteka hartuko duen eraikinak itxura ederra hartu du.

Heriotza

Ekainaren 15ean Maritxu Mariezkurrena ezurrarra Leitzan zendu zen, 78 urterekin. Intxaurpean jaio zen 1939ko maiatzaren 3an, eta papeleran lanean ibili zen, Martin Mariñelarenarekin ezkondu aurretik. Seme bat eduki zuten elkarrekin, Jesus. Iruñeko erietxean ingratsatu zuten, San Juan de Dios klinikara lekualdatzeko. Bertan zendu zen hilaren 15ean. Hileta elizkizuna hurrengo egunean ospatu zen Leitzako elizan, eta egun batzuk beranduago Ezurrakoan. Goian bego.



UTZITAKO ARGAZKIA

Maritxu Mariezkurrena, erdian.

DONAMARIA

KULTURA → EKAINAREN 17AN DONAMARIKO BENTAN

Liburu berria aurkeztu du Elixabet Badiolak

Sei kontakizun bildu ditu 'Aita, aún quedan nueces' liburuan

TTIPI-TTAPA

Sortzez donostiarra eta aspaldian Donamarian bizi den Elixabet Badiolak *Aita, aún quedan nueces* bere azken liburua aurkeztu du.

Bere aita zena zaintzen eta hil zen arte idatzi zuen egunerokoan oinarritutako sei kontakizun biltzen ditu liburuan, Ester Fernandezek ilustrazioekin.

Elixabet Badiolak 1974an argitaratu zuen bere lehen liburua, *Poemas de mujer* izenekoa. 40 urteko geldialdiaren ondotik, 2014ko ekainean argitaratu zuen *Glicinia rota*, 2015eko urrian *Suenan muchas campanas dentro de nosotras* eta 2017ko udaberri honetan, *Aita, aún quedan nueces*.

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO
Elixabet Badiola, bere azken liburua eskutan.



GIZARTEA → EKAINAREN 18AN

Korpus egunez berendu-afaria egin dute herritarrek

San Juan bezperan ere sua piztu eta afari-berendua izan zen

Mattin LARRALDE

Aspaldiko urteetako ohiturari eutsiz, Korpus egunean berendu-afaria egin zen eta pintxoak eta edariak banatu

zituzten. Jendea hurbildu zen, baina garai batean, bakarrik gazta bat eta ogia banatuz, jende gehiago izaten zela aipatzen zuten herritarrek. Beharbada, ikuspegi batetik normala izaten ahal da: erlijikoarekin lotutako besta da eta ez du jende guztiak ados egon beharrik. Horregatik ez diote halako garrantzirik ematen.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Ez garai batean haina, baina jende aunitz bildu zen Korpus eguneko afari-berenduan.

San Juan suak

San Juan suak berriro piztu dira eta orain dela urte batzuk egiten hasi zen berendu-afaria ere egin zen. Bertara bakoitzak zerbait eramaten du eta denek elkarrekin afaltzen dute. Gero, suaren gainetik salto eginez, txarra uxatzeko.

Lapurreta

Zoritxarrez kronika beltza ere egin beharra dugu, indarkeria handia erabiliz lapurreta bat izan delako. Bakarrik bizi den gizon bati ezagun bat etxean hartzeko eskaria egin zioten. Honek, edari bat presatatu zuen eta probatze-rra eskaini zion herrita-

rrari. Konorterik gabe gelditu eta 24 orduren buruan esnatu zenean, 112ra deitu eta ospitalera eraman zuten. Han kolpe fisikoak sendatu eta egun pare baten burura etxera bidali zuten. Baloreko bitxiak eta dirua ebatsi dizkiote, baina okerreana, barrenean gelditu zaion ikaria.

Zure neurriko tailerra!



AUTO-MARKA OFIZIALAREN BERMEA GALDU GABE

ORDEZKO PIEZA HOMOLOGATUAK

www.buscounroller.com



Tailer-sarea

ELITE



Premium

1.000 tailer baino gehiago zure zerbitzura

KULTURA

ARGAZKILARITZA → LANAK IRAILAREN 12RA ARTE BIDAL DAITEZKE

III. Argazki lehia abian da erran.eus atarian

Sari dotoreak izanen dira aurten ere

TTIPI-TTAPA

Aurten ere, argazki lehiaketa eginen du erran.eus-ek. Ekainaren 29tik irailaren 12ra arte bidaltzen ahalko dira argazkiak, baldintza batzuk betez.

Parte hartzeko, 16 urte baino gehiago izan behar da eta Ttipi-Ttapa zabaltzen den eremuan sortu izan edo bizi behar da. Gainera, argazkiek ere eskualdean ateratakoak izan behar dute, lekua zehaztuz, eta aurretik ezin dute bertze inon argitaraturik izan. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke eta 300 px-ko bereizmena eta 30x20 zentimetroko gutxieneko tamaina izan behar dute. ERRAN.EUS-en artxiboan gordeko dira argazkiak eta antolatzaileak berretzat gordeko du jasotako lanak argitaratzeko eskubidea.

Epaimahaiaren saria,



ARGAZKIA: XABIER ERASUN

Bi langile argazkiak irabazi zuen iaz epaimahaiaren saria.

Haitzalde Landetxean, Mutrikun, 2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari-ko egonaldia izanen da. Erabiltzaileen saria ere izanen da, Nafarroa Oinezeko lotea. Horretarako, ERRAN.EUSeko erabiltzaileek bozkatzeko aukera izanen dute

irailaren 12tik 26ra arte. Irabazleak urriaren 5ean jakinaraziko dira ERRAN.EUS atarian eta sari-banaketa urri hasieran izanen da.

Parte-hartzaileen artean ere Donamariako Bentan 2 lagunendako otordua zozketatuko da.

KIROLA

UZTAILAREN 2AN

Nafarroako sega txapelketa Donezteben jokatu dute

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jon Kanflanka leitzarrak irabazi ditu azken bi txapelak.



Iruñeko Sanferminetan Nafarroako hainbat txapel erabakiko dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sega txapelketa erabakiko da uztailaren 2an, igande goizeko 11etan hasita Mateoren etxearen gibelako belagietan.

Ez da izanen, noski, uztailaren erabakiko den Nafarroako herri kirol txapelketa bakarra. Ohikoa denez, Iruñeko Sanferminetako eguerdian, Foruen Plazan hainbat txapel jarriko dira jokoan.

Uztailaren 8an, Nafarroako lehen mailako trontza txapelketa eta emakumezkoen trontza txapelketa jokatu dituzte; uztailaren

9an, Nafarroako bikoitekako aizkora txapelketa eta orga txapelketa; uztailaren 10ean Nafarroako harrijasotze txapelketa, emakumezkoen txinga txapelketa eta lasto altzatze txapelketa; uztailaren 11n, Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketa kanporaketa eta kadete mailako trontza txapelketa; uztailaren 13an, emakumezkoen eta gizonzkoen Nafarroako ingude altzatze txapelketak eta uztailaren 14an, Nafarroako gizonzkoen txinga txapelketa.

Hau idazterakoan, ariko diren kirolariak ez dira erabat zehaztuak baina eskualdeko ordezkariak zabala izanen da eta seguru txapelen bat etorriko dela hiriburutik.



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 625 474

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla • Tel: 948 450 862

ORBELA
SENDERSMOIA ALBERGUESA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/tpi.eus



erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Eskualdean ateratako **UDAko argazki** ederrenaren bila lehiaketa antolatu dugu.

III. ARGAZKI LEHIAKETA
erran.eus atarian

informazio +
erran.eus



ONARRIAK

1. Ttipi-Ttapa zabaltzen den eremuan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte hartu dezake.
2. Argazkiak eskualdean ateratakoak izan behar dute (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak originalak eta bertze inon argitaratu gabeak izan beharko dute. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 30x20 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertu egingen dira).
4. Argazkiak ERRAN.EUS artxioban gordeko dira eta antolatzaileak beretzat gordeko du jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak ERRAN.EUS atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko dira.

EPEAK:

- **Argazkiak bidaltzeko epea.** Ekainaren 29tik irailaren 12ra arte.
- **ERRAN.EUSeko erabiltzaileen saria emateko bozketa fasea:** Irailaren 12tik irailaren 26era arte.
- **Irabazleak:** ERRAN.EUS atarian jakinaraziko dira urriaren 5ean.
- **Sari-banaketa:** Urri hasieran.

SARIAK

HAITZALDE LANDETXEA

Eskimera Parajea, **Mutriku**

Tel: 943 60 48 65

www.haitzalde.com



EPAIMAHAIAREN SARIA:
HAITZALDE LANDETXEAN
2 lagunendako
2 gau eta 2 gosari.

Info +



BIKIN BATIN

NAFARROA OINEZ

LESAKA

nafarroaoinez.eus



ERRAN.EUSeko
ERABILTZAILIEN SARIA:
BIKIN BATIN NAFARROA
OINEZeko lotea.

Info +



DONAMARIAKO BENTA

Bentak auzoa, 4 **Donamaria**

Tel: 948 450 708

www.donamariako.com



Parte-hartzaileen artean
DONAMARIAKO BENTAN
2 lagunendako otordua.

Info +



ARKUPEAK

GIZARTEA → UZTAILAREN 13KO BIDAIA

230 bazkidek izena eman dute Bizkaiko kostaldera txangoa egiteko

Uztailaren 18an, berriz, Urdazubira joanen dira

Fernando ETXEBERRIA

230 bazkidek izena eman dute Bizkaiko kostaldera joateko uztailaren 13an. Bertze ateraldi bat aurreikusia dago uztailaren 18an Urdazubitik atera eta Axular, Azkar, Loiara, Urbia eta Ibañetatik barrena, berriz Urdazubira iriste-

ko. Bazkaria Dantxarri-
neko Otxondo jatetxe-
an izanen da.

Zizelkadura eta piro-grabatu ikastaroa

Maiatzean bukatu zen zizelkadura eta piro-grabatu ikastaroa. Bertan parte hartu zutenek eta zuzendaritzako kide batzuk Jose Ig-nacio Telletxearen lokalean bildu ziren, berendu on batekin ikastaroari bukaera emanez.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Zizelkadura eta piro-grabatu ikastaroetan egindako lanetako batzuk eta parte-hartzaileak, berenduan.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

59 mendizale Alkurruntzera

59 mendizale (gaur arteko kopuru handiena) Ordoki jatetxean bildu ziren ekainaren 13an, kotxez Orabideko aparkalekura joateko. Bertatik, oinez abiatu ziren Atxuela eta Betartera, goiz erdian Alkurruntzera iristeko. Ondoren, Larroin eta Zuztoien barrena ibilita, Licorera jatetxera jaitzi ziren. Bertan, 24 mendizalek izena eman zuten Pirinioetan ibilaldi bat egiteko, zehazki Respomusotik Pantikosara. Autobusa irailaren 4an aterako da, astelehenez, eta mendizaleak La Sarran utziko ditu, Sallent de Gállego inguruan, eta hurrengo egunean Panticosan hartuko ditu. Mendizale guztiek mendiko aseguru behar dute. Ekainaren 13ko mendi ibilaldira bueltatuz, Mikaelak zoritxarreko erorketa izan zuten. Tibia eta peronea hautsi zituen, eta Oronozko suhiltzaileak gerturatu ziren, Erratzuko osasun zentrorera eramateko. Bertan lehen sendatzea egin zioten, eta anbulantziak Iruñera eraman zuten, han ebakuntza egiteko. Arkupeak elkarteak suhiltzaileak eta Erratzuko mediku eta erizaina eskertu ditu, emandako laguntza eta zaintzagatik.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA


Bardeetara bidaia

136 bazkidez beteriko hiru autobus Bardeetara abiatu ziren ekainaren 8an. Goizeko 10ak aldera iritsi ziren Castejonera, eta bertan pintxo batzuk dastatzeko aukera izan zuten, ardo onarekin batera. Ondoren, hiru gidek lagundurik Bardeen zatirik garrantzitsuenen barrena ibili ziren, haize freskoak lagundurik. Kideek diotenez, UNESCOk Biosfera Erreserba deklaraturako gunera hurbildu izanak merezi izan du. Bi orduz ibili ondoan, Castejon gunera itzuli ziren, bazkaltzeko. Jan ondoren, Montercierzo bodegara hurbiltzeko aukera izan zen, arduradunaren azalpenak aditu eta lekua bisitatzeko. Oroitarazi zuten Nafarroako Jatorri Izendapena jaso zuela bertako ardoak, eta batzuek hainbat ardo erosteko baliatu zuten aukera. Beranduago, musika eta dantzaldia izan zituzten, berriz ere etxera bueltatu baino lehen.

GOZOTU GUREKIN



LIDERRAK GURE ESKUALDEAN
ETA BAITA AZTERKETA EGITERAKOAN
CIESEK NAFARROA GARAIKO MENDIALDEAN
HARTU DUEN 111 UDALERRIEN EREMUAN ERE



TTIPI-TTAPA	26.000	IRAKURLE
DIARIO DE NAVARRA	14.000	IRAKURLE
DIARIO DE NOTICIAS	12.000	IRAKURLE
GARA	7.000	IRAKURLE
7 HAIZETARA	6.000	IRAKURLE
GAUR 8	4.000	IRAKURLE
BERRIA	3.000	IRAKURLE
ARGIA	1.000	IRAKURLE
BESTE BATZUK	6.000	IRAKURLE

TTIPI-TTAPAREKIN
ZURE IRAGARKIAK ERAGIN
HAUNDIAGOA DU



SEXUAREN ARABERA
GIZONAK %52,70
EMAKUMEAK %47,30

ADINAREN ARABERA
14-24 URTE %12,20
25-34 URTE %08,00
35-44 URTE %21,60
45-54 URTE %30,00
55-64 URTE %13,80
+64 URTE %14,40

IKASKETA MAILAREN ARABERA
IKASKETARIK GABE %28,60
OINARRIZKO BATXILERGOA %17,00
GOI MAILAKO BATXILERGOA %21,70
UNIBERTSITATEA %32,70

DATU ITURRIA: CIES, 2017KO LEHENENGO NEURKETA

ARESO

HITZARMENA → PROIEKTUAREN %80 NAFARROAKO GOBERNUAK ORDAINDUKO DU

70.000 euro erabiliko dira Udal Plan Orokorra osatzeko

Herri-gunea indartzeko neurriak hartu nahi dituzte

Juana Mari SAIZAR

2013az geroztik aritu da Udala hirigintza plan berria egin nahian. Hori ahalbidetzen duen akordioa berriki sinatu dute Nafarroako Gobernuarekin eta 70.000 euro erabiliko dira Udal Plan Orokorra osatzeko. Diru kopuru horren %80a hartuko du bere gain Nafarroako Gobernuak, 56.000 euro, alegia.

Ur Alguero alkateak adierazi duenez beharrezkoa zen proiektua, «egun indarrean dagoen hirigintza plana zaharkitua geratu delako». Gainera, hainbat hutsune ditu: «1996ko plana egin zenean Bega ingurua urbanizatzeko lur eremu bezala definitu



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrian eraiki ahal izateko eremu berriak identifikatu nahi dituzte.

zuten. Kontua da, bertan ez zela egin uholde arriskuen azterketarik eta euriteetan urpean geratzen den eremua izaten da. Gainera, Bega eremuko lurjabe guztien adostasuna behar harko litzateke bertan eraiki ahal izateko. Beraz, praktikan ezinezkoa da bertan eraikitzea».

Gauzak horrela, zonalde berriren bat iden-

tifikatzea da Udalaren helburua «behar bada urbanizatzeko aukera egongo dena». Eremu hau zehazteko orduan lehenasuna herri-gunea indartzea da, «hazkundera herri barruan gertatzea, sakabanatutako eremuetan eraiki beharrean, herria barrurantz haztea». Horretarako, herrian eraikitze-ko dauden zenbait bal-

dintza malgutu eta «dauden eraikinei probetsu gehiago ateratzeko moduak bilatzea da asmoa. Baserritatean, adibidez, etxebizitza bat baino gehiago eraikitzea».

Hainbat azterketa, tramitazio, lurren katalogazioa... prozesu luzea dute aurretik «lau urte beharko ditugu guztia osatzeko».

OSPAKIZUNAK

Sanpedroek pesta giroa piztuko dute herrian

Juana Mari SAIZAR

Ekainaren 29tik uztairearen 1era ospatuko dira herrian Sanpedroak. Ostegunean, meza eta ondoren merienda izango da. Ostiralean, 17:00etan trikitixa doinuekin emango zaio hasiera pestari. 18:00etan ekingo diote Lagunartekoek herriko eskeari eta gauean, ohitura mantenduz, gazteek afaria izango dute Pake Toki elkartearen. Larunbatean gosaltzeko elkartu eta indarrak hartuta, baserriz baserriko bidari ekingo diote. 18:00etan plazan sagardo dastaketa eta pintxoak eskainiko dituzte eta Tolosa-ko Udaberri dantza taldeak emanaldia eskainiko du 19:30ean. 21:00etan herri afaria eta 23:00etan erromeria izango da Gozo Gozo taldearekin eta indarrak bukatu arte pesta!



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

105 boto bildu dira Gure Esku Dagok egindako galdeketa

Ekainaren 18an egun historikoa bizi izan genuen herrian. Gure Esku Dagok antolatuta, herri-galdeketa egin zen eta %42,51-ko parte hartzea izan zen. Hau da, botoa emateko eskubidea zuten 247 pertsonetatik, 105k hartu zuten hitza. Horietatik 103k erantzun zioten baietz bi galderei, batek erantzun zion baietz lehenbiziko galderari eta ezetz bigarrenari eta boto zuri bat ere jaso zen.

EKAINAREN 21ETIK UZTAILAREN 31RA

Udarako zaintza zerbitzua eskaintzen ari dira

Juana Mari SAIZAR

Lehenbiziko aldiz, zaintza zerbitzua eskainiko dute udan. 3 urtetik 12 urtera arteko haurrei zuzendutako zerbitzua da. Ekainaren 21etik uztailearen 31ra bitarte, lagunartean ederki pasatzeko aukera izango dute etxeko ttikienek: kirolean, txangoak eginez herri inguruan, musika, marrazketa edo eskulan tailerrak... 08:30etik 14:30era eskainiko da zerbitzua eta gurasoek haurrak uzteko tarteak 08:30etik 09:00etara izanen dute eskolan. Gurasoek hala eskatuz gero jangela zerbitzua ere eskainiko da. Hilabete osoa (5 aste) 100 euro kostako da eta seme alaba bat baino gehiagok ematen badute izena %25eko deskontua izango dute. Aste betez joaten direnek 30 euro eta egun solteak 8 euro balio du.

KULTURA → UZTAILAREN 1EAN

'Goizuetan bada' antzerki ibiltaria eskainiko dute larunbatean

Olatz Beobidea zuzendaria, Landarte programaren baitan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak sustatutako Landarte programaren baitan, Olatz Beobideren eskutik, herri-antzerkia berreskuratuko dute Goizuetan. *Goizuetan Bada* tailerra eskaini du bi hilabetez Beobidek, eta uztailaren 1ean, larunbatean 21:00etan, herri-

tarrek duela 27 bat urte antzeztutako *Trabukola*-naren bertso berritua estreinatuko dute.

Antzerki-ibiltaria izanen da plazan hasi eta Yandenean, Goiko Iturrin, Irisarriko frontoian eta berriz ere plazan egiten dituzte saioak, zortzi agerraldi denera. Maiatzean eta ekainean astean bizpahiru entsaio egiten ari dira hainbat herritar, 9-10 urteko neska-mutiko kozkorretatik hasi eta 85 urteko beterranoenak bitarte. Umore Ona abesbatzak eta dantza taldeak ere par-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herri-antzerkiko entsaioetako bat, Yandeneko atarian.

te hartuko dute ikuskitunean.

Errespetuz Blai

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatutako Buthantxo proiektuaren barrenean, Andres NARBARTÉ 'Xalto' eskolako azkeneko egunean, gin-

kana egin zuten. Aurten-go leloa hau izan da: *Errespetuz blai bizi nahi dugulako*.

Ginkanan, herriko denda eta beste hainbat gunetatik pasatu ziren ikasleak hitzak lortzeko. Hitza eskatzeko abestu behar zuten, keinuka egin edo esaera zaharra erabili. Hitzaren truke, den-

dariari edo lekuko arduradunari eskualdeko emakumeenganako indarkeriaren kontrako irudia eman zioten: esku koloretsua.

Horrela, aldi berean dendetako kanpaina abian jarri zuten, dendariak emakumeenganako indarkerien kontra daudela erakutsi ahaliko dute.

PROPOSAMENAK UZTAILAREN 6RA ARTE


Zubimuxu aterpetxea errentan emateko kontratazioa egitea erabaki du Udalak

TTIPI-TTAPA

Zubimuxu aterpetxearen zerbitzua alokairu bidez kudeatzeko kontratazioa egitea erabaki zuen Udaltzatzen maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran. Proposamenak aurkezteko epea ekainaren 12tik uztailaren 6ra egonen da irekita, Goizuetako Udaletxean edo postaz.

Kontratuaren iraupena 3 urtekoa izanen da, eta urtero luzatu ahaliko da, 6 urtez, gehienez ere 9 urte egin arte. Urteko balio estimatua, BEZ-ik gabe, 2.480 eurokoa da eta balio estimatua, luzapenak barne, 22.314,05 eurokoa (gehi BEZ-a).

Administrazio-baldintza partikularren eta teknikoen plegua eta gainerako agiriak udal idazkari-tzan, 09:00etatik 12:30era lor daitezke eta udalaren webgunean ere eskuragarri daude.



UTZITAKO ARGAZKIA

405 herritarrek parte hartu dute ekainaren 18ko galdeketan

Mendialdeko Gure Esku Dagok antolatutako herri-galdeketa erantzun zabalaren izenaz herrian. Bozkatzera deituta zeuden 633 herritarretatik, 405ek adierazi zuten beren iritzia. Egun horretan, Nafarroa mailan parte-hartze daturik altuena lortu zuen herria izan zen (%63,43).



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona Abesbatzak hamar urte Hernaniko aurorak kantari

Ekainaren 18an, Umore abesbatza Hernaniko San Joan festetan izan zen, Ereñotzuko Ozenki abesbatza eta Hernaniko Kantuzekin batera, kalez kale Aurorak kantatuz.

LEITZA

GIZARTEA → MENDIALDEKO GURE ESKU DAGOK ANTOLATUTA

1.011 herritarrek parte hartu dute ekainaren 18ko herri-galdeketa

922k erantzun diete baietz bi galderei

JM BARRIOLA

Historian lehengo, herri bezala, gure etorkizunari buruz dugun iritzia adierazteko aukera izan genuen ekainaren 18an. 2.525 herritarrek zuten herri-galdeketa parte hartzeko aukera eta 1.011k adierazi zuten hautetsontzietan beraien iritzia, beraz, %40ko parte hartzea gainditu zen. Eguneko zenbait ordutan ilara luzeak ere osatu ziren plazan jarritako hautetsontziaren inguruan. Besta giroa ere izan zen, herri-kirol saioa, dantzariak... ekitaldi ugari izan ziren eguerdi partean.

Bi ziren erantzun beharreko galderak: *Nahi al duzu Nafarroako herriarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea? eta baiezkoa bada, Nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?*



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Adin guztietako herritarrak joan ziren plazan jarritako hautetsontzian botoa uztera.

Galdeketa parte hartu zuen gehiengo zabal batek, baietz erantzun zuten bi galderei, 922k hain zuzen. 16 herritarrek

lehenbiziko galderari baietz eta bigarrenari ezetz. Lehenbiziko galderari baietz erantzun baina bigarrena zurian

utzi zutenak berriz, 46 izan ziren. Ezezko botoa eman zutenak 9 izan ziren, boto zuria 17 eta baliogabeak 5.

EKAINAREN 16AN

Independentista sarearen ekitaldiak galdeketa aurretik

JM BARRIOLA

Ekainaren 16an, 19:30ean pintxo-potearen aurretik Independentista Sareak ekitaldia antolatu zuen herriko plazan. Igandean Mendialdeko Gure Esku Dago taldeak antolatutako herri-galdeketa parte hartzeko deia egin zuten eta baiezkoaren aldeko bozka eskatu. Argudioen artean, dua la urte herritarren artean egindako inkestan jasotako erantzunak aipatu zituzten. Euskal Herriko independentzia aldarrikatzeko arrazoi ezberdinak jaso ziren orduan eta aldizkaritxo bat argitaratu.



Ekitaldian Leitzako abesbatzak ere parte hartu zuten, Nafarroako korteetako ereserkia abestuz. Herritarrak emandako 11 arrazoi ere irakurri zituzten eta hizlarien artean, Txutxi Ariznabarretak parte hartu zuen.

KIROLA

Plazaolako maratoia eta maratoi erdia irailaren 17an

JM BARRIOLA

Irailaren 17an, igandean, izanen dute korrikalariak hitzordu berezia; Plazaolako maratoia eta maratoi erdia jokatzeko baitira. Bi probetan iazko ibilbidea errepikatuko dute, hau da, Maratoia Lekunberritik abiatuko da eta 42 kilometroren ondok Andoainen amaituko da. Maratoi erdia egingen dutenak, aldiz, Leizatik abiatu eta Andoaingo plazara arte, 26 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Ibilbide osoa Plazaolako bide berdean barrena egingen dute.

Ekainaren 30ean bukatuko da bi probetan izena emateko lehenengo epea. Data horretatik aurrera epe berri bat irekiko da abuztuaren 18ra arte (hirugarren bat ere izango da, hain zuzen azkena: Irailaren 12an). Dena den, bigarren eta hirugarren txandan prezioak gora egingen du zertxobait. Interesa duenak www.maratonviasverdes.com web orriaren bidez egin beharko du izenematea.

Lasterketa hauen bidez, bertako inguruaren promozioa eta ezagutza ere bultzatu nahi dituzte. Inguruko Udalak eta beste hainbat entitate ari dira elkarlanean eta dortsalen zozketa, alojamentuetako promozioa eta beste zerbitzuen bitartez, inguruan dagoen eskaintza ezagutaraziko dute.

HIRIGINTZA → ZINEMA ZAHARRA FUNTZIO-ANITZEKO HERRI ARETO BIHURTU NAHI DUTE

Herri aretoaren proiektua babesteko sinadura kanpaina jarri dute martxan

Udalak zinea moldatzeko lanen memoria aurkeztu du

JM BARRIOLA

Leitzako zinea oso zaharkituta dagoela gauza jakina da; baita Leitzan dagoen kultur ekimen eta sormenerako azpiegitura egoki baten beharra ezinbestekoa dela ere. Leitzako Udalak zinea moldatzeko memoria eta aurrekontua prestatu ditu eta Nafarroako Gobernuarekin lanean ari bada ere, herri ekimen bat jarri da martxan, Herri Aretoa egokitzeko diru-laguntza eskatuz.

FUNTZIO-ANITZEKO ARETOA

Udalak dagoeneko zinean egin beharreko moldaketa lanen memoria (aurreproiektua) aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Kultura Zuzendaritzan. Garrantzia handia ematen dio Udalak gaur egun zine aretoa kokatzen den eraikinari: «garapen sozial eta kulturalerako erreferentea izan da herrian. Arazo asko ditu irisgarritasun arauak betetzeko, hezetasunak ere kalteak eragiten ditu urtero eta isolamendu termiko ezak energia galera handiak sortzen ditu. Erreforma eta moldaketa lanak eginez gero, gaur egun dituen arazoak konpontzeaz gain, aukera dago zine aretoari beste izaera bat eman eta funtzio-antitzeko areto bihurtzeko.



ARGAZKIAK: UDALA

Ezkerrean, Leitzako Herri Aretoak hartuko lukeen itxura. Eskuinean parlamentarien bisita, zinemaren egoera ikusteko.

Nafarroako Gobernuan aurkeztutako aurre-proiektuak eraikina kanpotik eta barrutik hobetzeko proposamenak biltzen ditu: teitlatua konpondu, fatxadak eta kanpo arotzeria moldatu, desnibelak kendu, eraikinaren distribuzioa egokitu, ibilbideak egokitu eta arrapalak eta igogailua jarzea. Gainera, instalazioak eguneratzeko ere probestu nahi dute, grada teleskopikoak eta proiektore digitala jarriz.

1,2 MILIOI EUROKO AURREKONTUA

Aurkeztutako proposamenaren aurrekontua 1,2 milioi eurokoa da eta egitasmo hau bideragarria izateko beste instituzioen parte hartzea «ezinbestekoa» dela azaldu du Udalak «hori dela eta, hainbat lan

aurreratu ditugu: azterketa teknikoa eta aurreproiektua egin, herriko errealitate kultural eta soziala jasotzen duen txostena osatu...». Beste instituzio batzuei ere elkarlana eskatu diete.

SINADURAK NON?

Proiektuari bultzada emateko, orain herri ekimenetik sinadura bilketari abiatu dute herri aretoaren alde. Kanpainarekin bat egin nahi duenak, Astiz eta Maimur li-

burudendetan, Ogiberrri, Zortziko eta Atsedend-Gozo okindegiatan, igerilekuan, Udaletxean eta Osasun Etxean sinatu dezake, herritar guztientzako izanen den eraikinaren alde eginez.



ARGAZKIA: ALKE

Sagardo eguna arrakastatsua izan zen

Temperatura altua eta sagardo frexkoa nahasi ziren ekainaren 10ean ospatu zen sagardo egunean. Bederatzigarren edizioa izan zen eta 19:00etatik aurrera herriko plazan 22 sagardogileren sagardoak probatzeko aukera izan zuten herritar eta bisitariak. 700 sagardozaletik gora bildu ziren, lehen aldiz edalontziak eskas suertatu ziren eta zaharrak banatu behar izan zituzten. Bero handia egin zuenez izotzak ere behar baino lehenago urtu ziren eta gehiago ekarri behar izan zituzten. Giro onaren seinale, sagardo probaketak 22:00ak aldera arte iraun zuten, inoizko sagardo dastaketarik luzeena izan zen.

BAZTAN

GIZARTEA → BATZAR NAGUSIKO PRESIDENTEAREN ESKARIA

Aroztegiko plana gelditu eta erabakia Baztanerat ekartzea eskatu du

Joseba Otondok idatzi bana igorri die Nafarroako Gobernuako presidenteari eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilariari



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Joseba Otondo Batzar Nagusiko presidentea, Lekarozko alkatearekin eta batzarkideekin.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Lekarozko Aroztegiko udalerriz gaindiko eragina duen plana (UGEP edo PSIS) onartu zuenetik bi urte pasatu dira eta lanak ez dira hasi. Horregatik, legeak ematen duen aukera baliatuz ekainaren 6an Nafarroako Gobernuako presidenteari eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilariari Joseba Otondo Batzango Batzar Nagusiko lehendakariak eskari ba-

na igorri zien, Aroztegi-ko PSIS gelditzeko eta honen inguruko erabakia Baztanerat ekartzeko eskatuz. Uztailaren 3a artio Batzar Nagusia ez da bilduko eta bilera horretan eskari hau berrestea eskatuko da.

Batzar Nagusiko lehendakariak aipatu duenez, «Aroztegiko UGEP-a baztandarren gaintik egin nahi den proiektua da eta bailaran alimaleko eztabaida piztu du. Haatik, Nafarroako Gobernuak bailarako eztabaidari aterabide

demokratikoa eman beharrea berean tematu eta baztandarren gaintik pasatu nahi izan du, proiektu partikular bat egiteko, pelotazo bat bururatzeko, interes orokorrik ez duena».

PSIS hau Baztango erakundeei egindako eraso handia izan dela uste dute, Hirigintzako eskumenak Baztango Udalarenak direlako eta herri-lurrenak Batzar Nagusiarenak. Batzar Nagusiko kideen erranetan, «PSIS honek funtsean tokiko erakunde-

en autonomiaren eta izateko arrazoiaren kontra jotzea erran nahi du eta, hori, ustez aldaketa defendatzen duen Gobernuak egitea eskandalagarria da. Horregatik, gauza guztien gaintik eskari honekin Baztango erakundeen autonomiaren eta eskumenen defentsa egin nahi dugu. Gehiago, herritarren geroan eragin handia izanen duten proiektuei buruz herritarrek zuzenean erabakitze eskubidea ere aldarrikatu nahi dugu».

HAMAR URTE ETA GERO

Garrantzia
estrategikoa
zalantzan

TTIPI-TTAPA

Gobernu desberdinek Aroztegiko proiektuaren alde agertzeko «proiektuaren garrantzi estrategikoa» aipatu izan dute, «baina gaurgero hamar urte pasatu dira eta ez dutela fitzik aitzinatu» gogoratu dute batzarkideek. «PSIS onartu zenetik bi urte joan dira eta lanak ez dira hasi. Proiektuak izaera estrategikoa omen du baina inork ez ditu Lekarozen egin nahi dituzten 228 etxebizitzak faltan botatzen. Baina, inorat ez doan proiektu hau egiteko Baztango erakundeei ostiko eman diete eta herritarrei erabakitze eskubidea kendu».

Batzar Nagusiko presidentearen erranetan, «Geroa Bairen gobernuak urrezko aukera du Aroztegiko gatazkari aterabide demokratikoa emateko, tokiko erakundeen autonomia aitortzeko eta gobernatzeko bertze modua erakusteko. Aukera paregabera du berrazterketa honetan kalteordainik jokoan ez dagoelako eta aukera paregabera du Gobernuak erran duelako orain artio PSISekin eman den aldrebeskeria zuzentzeko lege berria egin nahi duela iragarri eta Aroztegikoa hor sartzen ahal duelako».

FANTXIKE
www.fantxike.com

BAZTANDARREN BILTZARRA
GAINEAN DUGU!!

GU PREST GAUEDE... ETA ZU?

ONGI PASA BESTAKI!



KULTURA → MAIATZAREN 31N

Artearen Ibilbidea eginen da aurten ere

Ohiko erakustokietan eta denda eta ostatuetako erakusleihoetan

TTIPI-TTAPA

Uda honetan ere, Baztango herri ezberdinar margolan eta eskultura erakustokiak izanen dira.

Jose M^a Apezetxeak margolanen erakusketa eginen du, uztailaren 28tik abuztuaren 27ra, Erratzuko Zubietea etxean. 18:00etatik 20:30era egonen dira ateak irekita.

Ana Mari Marinek, Elizondoko Bergarenean eginen du margolan erakusketa, abuztuaren 13tik irailaren 17ra. 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara ikusi ahal izanen dira lanak.

Tomás Sobrino Habans margolariak, Arizkuneneako 1. solairuan jarriko du ikusgai *Un Viaje* erakusketa, uztailaren 22tik irailaren 3ra. Astelehenetik ortziralera 18:00etatik 21:00etara eta larunbat eta besta egunetan, 11:30etik 13:30era, eta 18:00etatik 21:00etara.

Miquel Cazañak pintura erakusketa eginen du Elizondoko Arizkunenean, *Baztanetik mundura* izenpean, uztailaren 27tik abuztuaren 13ra 11:30etik 20:30era.

Xabier Soubelet artistak bere margolanak Arizkuneko Sasternean

erakutsiko ditu uztailaren 15etik irailaren erdialdera, ortzegunetik igandera 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

José Luis Alzugarayk pintura erakusketa eginen du Elizondoko Jaime Urrutia karrikako 3.ean, uztailaren 20tik irailaren 17ra, ortzegunetik igandera, 19:00etatik 21:00etara.

Roque Lasak margolanak ikusgai paratuko ditu Erratzuko Zubietea etxean uztailaren 28tik abuztuaren 27ra, 18:00etatik 20:30era.

Lesagibel eskultoreak bere lanak Elizondoko Arizkunenean erakutsiko ditu abuztuaren 16tik irailaren 6ra, egunero 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Teresa Lafraguak

margolan erakusketa eginen du Santxotena Parke Museoan, Bozaten. Uztailaren 16tik abuztuaren 31ra ikusgai izanen dira lanak, asteartetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta igandetan 11:00etatik 14:00etara. Parke Museoazabalik egonen da ordutegi berean.

Baztango Museoa ere zabalik egonen da, Braulio Iriarte karrikako 38.ean, astelehenetik ortzegunera 10:00etatik 20:00etara eta ortziraletik igandera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ERAKUSLEIHOETAN

Azkenik, *Artearen erakustokian* parte hartuko dute inguruko 9 establezimenduk, haien erakusleihoetan arte la-



UTZITAKO ARGAZKIA

Juan Angel Perotxenaren kartela Elizondoko Santioak iragartzeko

Elizondoko Juan Angel Perotxenak (Mälmo illustration&design) egindako kartel honek iragarriko ditu Elizondoko Santioak bestak. 150 euro eta zikiro-jarterako bi txartel izanen ditu sarritzat. Sei lan aurkeztu dira aurten lehiaketara.

nak paratuz. Hauek izanen dira parte hartzaileak: Zangue-Kattalngorri, Fantxike, Idoia

Oteiza ileapaindegia, Virgilio, Argibel, Elbeteko Ostatua, Malkorra, Piko Piko eta Axular.

NAFAR MENDI
HIPERSIMPLY
merkatalgunea
Araloz, Baztan | 948.452.656 | 9h00-21h00

PARTE HARTU HIPER SIMPLYKO ZOZKETAN CLUB SIMPLY TXARTELAREKIN ETA IRABAZI...

ZOZKETA EGUNA 2017.07.01 - 16:30

1 HYUNDAI I10 AUTOA

2 100 EUROKO 5 EROSKETA TXARTEL ARROPA DENDAN ERABILTZEKO

3 BERTAKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO 3 SASKI

BAZTAN

GIZARTEA → BALLEKO ETXEAREN URTEROKO SUBENTZIOA

Gizarte jarduera eta nazioarteko lankidetzarako laguntzak eman ditu

Denera 53.031 euro bideratuko ditu

TTIPI-TTAPA

Gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteak eta nazioarteko kooperaziorako proiektu, programa eta planak diruz laguntzeko subentzioak onartu ditu Udalak aurten ere. Denera, 53.031,54 euro bideratuko ditu zeregin haue- tarako.

GIZARTE PROIEKTUETARAKO 16.362,24 EURO

Gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteek 16.362,24 euroko diru- laguntza jasoko dute Udaletik, honela banatuak: Bidelagun elkar- teak 2.343,10 euro, Xauli elkarteak 2.276,15 euro, Anasaps-Dizdirak 1.874,48 euro, Elikagai Bankuak 2.772,28 euro, Acodifnak 1.205,02 euro, Asomak 937,24 euro, Anfasek 2.008,37 euro, Bocalan-ek 1.472,80 euro eta Ademnak 1.472,80 euro.

NAZIOARTEKO KOOPERAZIORAKO 36.669,31 EURO

Nazioarteko koope- raziorako proiektu, pro- grama eta planak diruz laguntzeko, berriz, 36.669,31 euro bidera- tu ditu Balleko Etxeak.



ARGAZKIA: PATRI PELLICER/DIARO NOTICIAS

Baztan Futbol Taldea hirugarren mailara bueltatu da

Denboraldi bikaina osatu du Baztan Futbol Taldeak Nafarroako maila autonomoan. Ligan laugarren izan zen eta horrek, hirugarren mailarako promozioa jokatzeke aukera eman zion, hirugarren izan zen Peña Azagresa taldearen kontra. Giltxaurdin bana berdindu ondotik, igoera Azagran erabaki zen. Gorabeheraz betetako partida baten ondotik (1-0, 1-1, 2-1, 2-2 eta 3-2 joan ziren), hondar minutuan Xabier Gilek egindako hirunako berdinketaren golak eman zion igoera ere Baztan Futbol taldeari, jokalaria eta zaleen gozamenerako.

Saharaztani 3.163,90 euro, Mugarik Gabeko Haurtzaroa erakundeari 2.606,20 euro, Behar Bidasoari 2.198,65 euro, Mugarik Gabeko Arkitektura elkarteari 2.713,46 euro, Itxaropena Elkarteari 1.876,88 euro, ANARASD elkar-

teari 2.659,81 euro, Bi- garren Familia egitas- moari 2.413,13 euro, Ju- an Bonal Fundazioari 2.198,65 euro; Vicente Ferrer Fundazioari 2.466,78 euro, Mugarik Gabe erakundeari 2.091,40 euro, Bakera- ko Lankidetzeta Batzarrea

taldeari 2.681,26 euro, El Salvador Elkartasu- nari 2.627,65 euro, Ita- ka Escolapios taldeari 2.198,65 euro, Bide Be- rriak erakundeari 2.574,24 euro eta La- gun Dezagun haur bat erakundeari 2.198,65 euro.

FLASH

Kea taldea Elizondoko elizan

Elizondoko Abesba- tzaren 75. urteurrene- ko ospakizunen barne- an kontzertua antola- tu dute uztailearen 1ean Elizondoko elizan. La- runbatean 20:30ean hasiko da Kea ahots talde profesionalaren emanaldia eta sa- rrera 8 euro ordaindu beharko da.

Abeltegia hustarazi du Foruzaingoak

Lekarozko Abeltegia hustuarazi zuen Fo- ruzaingoak ekainaren 19an. Iruñeko Instruk- zio Epaitegiaren agin- duak segituz. Atxilo- ketarik egin ez bazu- ten ere, bi gazte iden- tifikatu zituzten eta orai epaitegira jo beharko dute Nasuvinsak jarri- tako salaketari eran- tzuteko. Abeltegiako gazteek mobilizazioak iragarri dituzte.

zergalan | asegi

asesores y consejeros de empresa
empresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

BESTAK → UZTAILAREN 5ETIK 8RAT

Azpilkuetan ere Sanferminak ospatzeko ekitaldi ugari prestatu dituzte

Hondar egunan zikiro jateaz gain, Hauspolariak taldearekin dantzaldia izanen dute

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz gainezka dator Sanfermin bestetako egitaraua Azpilkuetan. Lau egunez besta giroa herrian zabalduz.

ASTEAZKENA, UZTAILAK 5

- 18:30ean txupinazioa beste hasiera emateko.
- 19:00etan frontenis txapelketako finala.
- 21:30ean Baztan Zopak Joxe Angel Elizaldek alaiturik. Ondotik gaupasa!

ORTZEGUNA, UZTAILAK 6 HAUR ETA HELDUEN EGUNA

- 11:00etatik aitzinera puzgarriak frontoian.
- 16:30ean herriko mus txapelketa.
- 17:00etan txokolata-da eta haurrendako sorpresa.
- 20:00etan kantaldia Enara eta Mikelen eskutik.
- 22:00etan tortilla txapelketa eta, ondotik, afaria.

ORTZIRALEA, UZTAILAK 7 SAN FERMIN EGUNA ETA GAZTEEN EGUNA

- 11:00etan meza nagusia San Fermin sailduaren omenez.
- 12:00etan luntxa herriko elkarteetan.
- 14:00etan gazte bazkaria.
- 16:00etan gazte jokoa.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederrean ibiliko dira gazteak, Sanferminetan ere 'Aupa Azpilkueta!' erranez.

- 20:00etan kontzertua Lamiak taldearekin.

- 08:30ean gosaria.
- 14:30ean zikiro jatea, Joxe Angel Elizalde alaiturik.

- 21:00etan zikiro afaria eta ondotik Gaixoa

ni Joxe Angel Elizaldekin.

• 00:30etik aitzinera dantzaldia Hauspolariak taldearekin eta bestak akitzea.

LARUNBATA, UZTAILAK 8 ZIKIRO JATE EGUNA

- 08:00etan sua piztea.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

tanatorios **IRACHE**

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

BAZTAN

GIZARTEA → NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO ARETOAK

Aroztegia UGEP gisa tramitatzearen aurka Sustrai jarritako helegitea gibelera bota du

Aroztegia eta Gero Zer? Plataformak hasiera batetik inposatua izan den proiektua dela salatu du eta gelditzeko lanean segituko duela iragarri du

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegi-ko egitasmoaren sustatzaileen alde azaldu da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Aretoa, ekainaren 19an jakinarazitako epaian Sustrai Erakuntza fundazioak aurkeztutako helegitea gibelera bota baitu.

Lekarozen 228 etxebizitza, 135 logelako lau izarreko hotel bat eta golf zelai bat eraikitze-ko hirigintza proiektua UGEP Udalerriz Gai-diko Eragina duen Plan gisa tramitatu izana auzitan jarri zuen Sustrai Erakuntzak. Epailearen ustez, ordea, «planaren edukia irakurri besterik ez dago egitasmoa behar bezala justifikatua» dagoela ondorioztatzen. Hala, enpresa eraikitzailearen ikuspuntua bere eginez, Aroztegia proiektuak Nafarroa osoan «turismoaren sustapen politikak garatzeko» balioko duela azaldu du epaileak.

Horrez gainera, 300 biztanleko herri ttiki ba-

tean 228 etxebizitza berri eta luxuzko oporleku bat eraikitzeak izan dezakeen eraginaz, honako hau dio epaiak: «Lurraldean izanen duen in-tzidentzia estrategikoa eta sozioekonomikoa izanen da inbertsioan, enpleguan, Nafarroako erakargarritasuna indartzean eta tokian tokiko beste azpiegituren erabileran izanen duen eraginarengatik».

Orain gibelera botatako helegitean, Nafarroako Gobernuak 2008an eta 2014an argitaratutako bi txostenen artean kontraesanak daudela argudiatu zuen Sustrai Erakuntzak. 2008koan, proiektua UGEP gisa tramitatzeko motiborik ez zuten ikusi gobernua; handik sei urtera, berriz, aurkeztutako egitasmo «bertsua» izan arren, tramitazio mota hori baimendu zuen. Epailearen ustez, ordea, 2008an Nafarroako Gobernuaren aurka azaldu izanak «ez du esan nahi, gerora, UGEPa justifikatuko luketen baldintzak egon ez zirenik».

Gisa horretako egitasmo batek izan behar lukeen parte-hartze prozesua da, azkenik, aldean arteko eztabaida iturri nagusietako bat. Sustrai Erakuntzaren esanetan, «egiazko eta alderdikieririk gabeko informazioa jasotzeko eskubidea» urratu zuen enpresak, proiektuaren aldeko erakundeak lehenetsita: «Publizitate izaera du-

en proposamena da, datu erreal eta kontrastatuetan oinarritu gabe». Horretan ere, kontra egin die Nafarroako Auzitegi-ko epaileak. Harren irudiko, «legeak UGEP kasuentzat exijitutako parte-hartze prozesua» egin zuten proiektuaren sustatzaileek, «hainbat eragile sozialen parte hartzearekin, baita egitasmoaren aurka zeudenekin ere».

UPNren aitzineko gobernua onartu zuen Aroztegi-ko hirigintza proiektua UGEP gisa tramitatzeko, baina egungo gobernua ebatzi zuen egitasmoarekin segitzea. 2015eko abenduaren 30eko bileran hartu zuten erabakia, Eguberrietako oporren erdian. Lazko urrian, bertze urrats bat egin zuen Uxue Barkosen gobernua, UGEP horretan aurreikusten diren «urbanizazio, azpiegitura eta zerbitzu komunak obrak» zehazten dituen txostena baimenduta.

AROTEGIA ETA GERO ZER? PLATAFORMAK LANEAN SEGITUKO DU

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Aretoak emandako epai honen aitzinean, «argi eta garbi erran nahi dugu Aroztegi-ko proiektu urbanistikoa hasiera batetik inposatua izanen dela» adierazi du Aroztegia eta gero zer? Plataformak: «UGEPa onartu zenean ez zen inolako prozesu parte-hartzaileerik izan.



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Lehen jaunartzea Almandozen

Herriko besten barrenean, ekainaren 18an, argazkian ageri diren hiru neska-mutikoek egin zuten lehen Jaunartzea Almandozen: Amets, Jonai eta Oihanak. Ekainaren 11n, berriz, Anizen Julen eta Luissek egin zuten Jaunartzea.

Egin diren prozesu parte-hartzaile bakarrak 2009. urtean Lekarozen egin zen herri galdeketa eta 2016. urtean Baztan osoan egindako herri galdeketa dira. Lehenbizikoan %67a lurren birkalifikazioaren kontra agertu zen eta bigarrenean berriz %80a baino gehiago agertu zen proiektuaren kontra. Horrengatik, ez gaude inposaketa hau onartzeko prest».

Bertzalde, bi urte pasatu dira Nafarroako Gobernuaren UGEP hau onartu zuenetik eta

oraindik obrak hasi ez direnez, «Nafarroako Gobernuari lehenbailehen geldiarazteko» eskatu nahi dio Plataformak. «Bere esku dago –dio idatzian– herritarrek nahi ez duten proiektu hau geldiaraztea, afera Baztanen erabakitze bideratzea, eta oraindik errazagoa da orain epe hau pasatuta inolako arrisku juridikorik gabe egin baitaiteke». Akitzeko, Aroztegia eta gero zer Plataformak garbi erran nahi du proiektu hau gelditzeko lanean segituko duela.

KULTURA → MUSEOAK HELDUENDAKO

'Ixtorioak begarrietara' kontakizun lehiaketa antolatu du

Uztailaren 16an finituko da 18 urtetik goitikoek lanak aurkezteko epea

Josebiñe eta Koro

Ixtorioak begarrietara kontakizun lehiaketa paratu du martxan Museoak. 18 urtetik goitikoendako da lehiaketa, baina kontakizunak haurrei zuzendutako ipuina behar du izan, eta

KULTURA → UZTAILARE 6AN 18:00ETAN

Igelaren Bandak kontzertua eskainiko du lezean

Kultur 2017 programaren baitan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuak antolatutako Kultur 2017 programaren baitan ekainaren 23tik irailaren 9ra musika, dantza eta arteko 40 emanaldi prestatu ditu

38 udalerritan Programa herriko musikaren, dantzaren eta arte plastikoen ingurukoa da. Azken edizioetan bezala, bertaratutakoek turismo-jarduera osagarri bat izanen dute toki bakoitzean, Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak antolatuta.

Programaren barnean, uztailaren 6an, ortzegunean 18:00etan



ARGAZKIA: JOSEBINE ETA KORO

Arburua-Iparragirre familiaren bilkura

Arburua-Iparragirre familiak besta-bazkaria ospatu zuen ekainaren 17an. Zugarramurdi, Etxalar eta Donostiako hiru adarrak elkarturik, 81 lagun bildu ziren.

gaiak euskal mitologia-rekin lotura izan eta irudimena sustatu behar du. Sariak pulitak dira:

250 euro eta 150 euro, eta gainera ipuin sari-tuak argitaratuko dira (ilustrazioak emanik).

Norbait animatzen bada, jakin uztailaren 16an finitzen dela aurkezteko epea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hasier Oleagak, Bixente Martinezek eta Amaur Cajaravillek osatzen dute Igelaren Banda.

Igelaren Bandak emanaldia eskainiko du Zugarramurdiko lezeetan. 4 euroko sarrera ordaindu beharko da lezeetan sartzearen truke. Igelaren Banda 1998an sortu zen eta 2000. urtean karrikaratu zuen lehen diska. 2011 urtetik honat Bixente Martinez (gitarra), Hasier Oleaga (bateria) eta Amaur Cajaraville dira taldekideak. 2013ko martxoan

Preguntatxo bat diska karrikaratu zuten eta geroztik hainbat kontzertu eskaini dituzte. 2015 urteko udazkenean *Debalde festa* diska karrikaratu zuten, bertsolari-erabiltzen dituzten doinuei eskainia.

Egun berean, lezeetara eta Sorginen Museora bisita gidatua eskainiko da 11:00etatik 19:00etara. Helduek

4,50 euro ordaindu beharko dute eta 6-12 urte arteko haurrek bina euro. Erreserbak 948 599004edo info@zugarramurdi.eus helbidean.

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3.km
URDAZUBI

URDAZUBI

GIZARTEA → NAFARROAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI EPAITEGIAREN EPAIA

Marmoles Baztan-i 75.000 euroko isuna

Udalak jarri ziona baino 25.000 euro tikiagoa da, helegitea eta gero

Inigo IMAZ

2016ko apirilaren 20ko ebazpenaren ondorioz, Udalak ingurugiro arloko arau-haustek egotzi zizkion Alkerdiko harrobia ustiatzen duen Marmoles Baztan enpresari. Urte berean, ekainaren 22an, Marmoles Baztan enpresak helegitea paratu zuen Herriko Etxearen erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi prozesuari hasiera emanaz.

ALKERDIKO HARROBIAREN JATORRIA

Alkerdiko harrobia- ren ustiaketa aspaldikoa da, Udalean aurkitu ditugun datuen arabera, XX. mendeko 60. hamarkan hasi zen ustiapena. Garai batean,

Leorlas auzoan bi harrobi egon ziren, batto Alkerdikoa, bertzeaber- ritz Ikaburuko harrobia, gaur egun hetsia dena. Marmoles Baztan enpresak 1984an esku- ratu zuen kontzesioa eta 1999ko abenduan Ur- dazubiko Udalak akti- bitate klasifikatuenda- ko lizentzia eman zion enpresari, irekiera lizen- tzia 2003ko abuztuan eman zitzaion, 1999ko Udal Plan Orokorrak ezartzen zituen baldin- tza eta mugak kontuan hartuz. Ustiapena, jato- rrian, harrobiko marmo- la ustiatzeko asmoz ha- si zen. Udalak bere ga- raian ezarritako baldin- tzetan ustiapen siste- mari zegokionean, zo- naldeko leizeen babe- sa ziurtatzeko egokien izan zitekeena ezarri zu- en: hari diamantatzuko ebakidura erabiliz. Le- herketak mugatuak eta potentzia gutxikoak izan behar zirelarik.

Urte pare batez, ha- rrobiaren lanak eten zi- ren, eta 2012an Marmo- les Baztanek Nafar Go-

bernuari ustiapen proi- ektu berria aurkeztu zion eta 2013an enpresak Nafar Gobernuaren bai- mena jaso zuen lanari berriro ekiteko, proi- ektu berria ontzat emanaz.

HERRITARRAK KONTRA

Herrian, batez ere Le- orlas auzoan, harrobia- ren inguruko kezka eta galderek ez zuten eran- tzun garbirik. Udal ple- noren batean ere sortu zen horren inguruko gal- derarik. Dena den, urda- zubiari gehienek ez zu- ten aparteko iritzirik ga- iaren gainean. Egoera guztiz aldatu zen 2014ko uztailaren 15ean harrobian leherketa ika- ragarri batek herritarren artean izua eta kezka sortu zuenean.

Enpresa eta Leorla- seko auzotar batzuk Herriko Etxean elkartu ziren alkatearekin. Eran- tzun ezak, eta «Udala ez da oilotegi bat» beza- lako hitzak entzun on- doren, herritarren ba- tzarrak deitzen hasi zi- ren. Ondorioz, SOS Al- kerdi Plataforma sortu



ARGAZKIAK: INIGO IMAZ ETA SATORRAK TALDEA
Zelaieta III lezea lanen aitzinetik eta ondotik.

zen gertatzen ari zena ikertu eta ezagutzera emateko.

2015eko maiatzean udal hauteskundeak egin ziren, eta ordutik aurrera Herriko Etxean eztabaidagai izan da gaia. Ondorioz, 2015eko azaroan Marmoles Baztan enpresaren kontra espediente san- zionadorea abian jarri zen, udal lizentzietan ezarritako ingurugiro bal- dintzak urratzeagatik, eta Zelaieta III lezea -Udal Plangintzak babestua- larriki kaltetzeagatik.

ISUNA TTIKIAGOA

Nafarroako Admi- nistrazioarekiko Auzi Epaitegiak 2017ko ekai- naren 1ean emandako sententziaren arabera, Marmoles Baztanen kontrako ebazpena zu- zena da, baina helegi- tea partzialki onartzen dio, hortaz, Herriko Etxeak ezarri zion 100.000 euroko isuna 75.000 eurotan uzten du. Marmoles Baztan eta Udalak, bakoitzak bere kostu judizialak or- daindu beharko ditu gai- nera.

JATETXE-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantzarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

tabac maroquinerie restaurant cadeaux

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 18AN

Akerreta Plazako errota ikusleeri ideki diote

Erroten egunaren karietarat, barnetik bisitatzen ahal zen

Pierre BASTRES

Senpereko 6 errota edo eihera xutik egoki dira, horietako bat da Akerreta plazakoa, bertze guziak bezala uraren indarrari esker kurritzen duena. Urtean behin edo bitan hango nagusiek bisitatu nahi dutenei ateak idekitzen diozkatete, eta errota pizten dute jendeen ai-

tzinean artoa edo garia ehotzeko. Erroten historiaz jakintsu da etxeko nagusia Joanes Etcheverry eta zehazten duen bezala «erdi aroan sortu ziren errota, orduko jaun handiek eraikitzen zituzten eta jabetzen ziren. Eiherazainak, aldiz, etxetiarrek ziren, eta bi urtetarik behin erreberritua zitzaioten kontratua».

Horrez gainerat, tresneriako bihotza gogotik erakusten eta adierazten du Joanesek: «Amezpetu erreko presatik errotaraino 750 metroko musukoak ekartzen du ura, eta hu-



ARGAZKIA: PIERRE BASTRES

Joanes Etcheverry, Akerretako plazako errotako nagusia, azalpenak emanez.

nek 3,5 metroko errotaz itzulikatzen du errota berezi bat, *Zaldia* izenekoa. 23 zaldizko indarreko *motorra* horrek zurezko ardatzaren bitartez itzulikatzen du *errota harria*, bihiak lehertzen eta ehotzen dituen. Hemen ere, bertze eihera ainitzetan bezala, bi zaldi eta bi errota-harri badira, elkarretarik bereix, alde bategatik ogi bihientzat eta bertze aldetik arto bihientzat».

Joanesek azpimara-

tzen du «irina osoa baitzik ez zen egiten errotan. Eiherazainak bihien ehotzea baizik ez zuen egiten, etxaldeetan berean zetabean pasatzen zen bihien hautsa, irina fina izaiteko». Errotazainak nola saristatuak edo pagatuak ziren galdegina, Joanesek ihardesten du: «Baserritarrek ekarritako bihia pisatuta, ehotzen zen, zakuak bihi ehoaz betetzen eta orduan errotazainak bere parte hartzen zuen, unti tiki batez: laka ize-

nekoa. Nola nihork ez zuen baliatzen laka berdina, kalapita ainitz sorzitaizken, eta horregatik errotazainek fama txarra zuketena».

Bisitaren bururatzetan Joanes usaiari ez zitzaion jarraiki, eta irina oso pittat zetabetu egin du, taloak eta biskotsak berehala egiteko gisan, bisitarien atsegin handienarentzat.

Urtean zehar aitzinetik deitzen ahal da bisita bat antolatzeko: 00 33 59 54 19 49.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 18AN

Besta Berri ospatu dute karraketan

Herritar frango erlisionezkotik ohitura herrikoari jarraiki zaizkio

Pierre BASTRES

Geroz eta herri gutti agotan ospatzen segitzen da Besta Berri,

bertze munduko tokietan Korpus Kristi izenarekin ezaguna den erlisionezkotik. Besta.

Senperen aldiz, azkarki iraunarazten dute adin guzietako herritarrek. Napoleonen armadetako jantzi tradizional bezalakoak ibilki dira karraketan, prozeduraz batean antolatuta.



ARGAZKIA: PIERRE BASTRES

Joanes Etcheverry, Akerretako plazako errotako nagusia, azalpenak emanez.

Ohizko pertsonaia ezagunenak dira zapurrak, danbor nagusiak, eta soldaduak. Gainerateko ere nortasun berezia emaiten diote bes-

tari: makilariak, dantzariak, eta Senperen nolaz ez tamboradakoak. Estebe Fagoagak Tarapatan tanborada elkarrekin lehendakariak ai-

ortzen duenez, «erlisionean errotua da besta eder hau, bainan parada ona da ere kanta-tzeko eta herritarrekin biltzeko».

SARA

GIZARTEA → UZTAILAREN 3TIK IRAILAREN 25ERA

Udako merkatua izanen da astelehenero plazan

Herriko bestetako astelehenero salbu

Joana GERENDIAIN

Uztailaren 3tik goiti irailaren 25 arte (irailaren 11 salbu) astelehen

goiz guziz merkatu bat izanen da plazan. Merkatu horretan artisauak, bitxi, jantzigileak eta saltzaileak atxematen ahalko dira. Merkatua goizeko 9etan idekiko dute.

Kantaldia

Beti Gazte elkarteak



kantaldi bat antolatuko du elizan uztailaren 6an, ostegun gauez, 9:30ean. Gau horretan Azkaingo Larrun kanta abesbatza mistoaren doinu goxoak entzuten ahalko dira. Sartzeta 10 eurotan izanen da eta urririk 14 urte baino guttiagokoentzat.

Kermeza

Uztailaren 9an, igandearekin, kermeza ospatuko da Saran. Goizeko 10:30ean meza emana izanen da, ondotik pilota partida bat jokatuko da frontoian 11:30ean. Eguerdia eta erditan bazkari bat antolatua da plazan, ber-

tan jateko edo etxera eramateko aukera emana da. Arratsaldeko 4:30ean bertze pilota partida bat jokatuko da. Egun osoan kukusu merkatu bat eta jokoak izanen dira plazan. Bazkaria hartzeko 18 euroko parte-hartzea galdegina izanen da.


GIZARTEA → UZTAILAREN 3TIK IRAILAREN 25ERA

36 milioi euro Larrun mendiko eremu turistikoa berritzeko

Azkaingo Ideki elkarteak jakinarazi duenez, «erne egonen da eta ez du zernahi gauza egiten utziko»

TTIPI-TTAPA

Larrun 2020 proiektuaren berri eman dute ekain hasieran departamenduko eta lurraldeko aktoreek. Larrun mendiko gune turistikoa parte handiz berri-tu eta arramoldatzeko lanak zer izanen diren aurkeztu dute. 36 milioi



UTZITAKO ARGAZKIA

Obrak urritik martxora eginen lizateke datozen urteetan, sasoin turistikoa ez tratatzeko.

euroko aurrekontua beharko dute beraz, baina, aurkezpenean onartu dutenez, ez dituzte oraindik finantzaketa guziak atxeman.

Obrak urritik martxo-

ra eramanen dira heldu diren urteetan, sasoin turistikoa ez tratatzeko. Proiektuak Europatik diruztatzeak espero ditu, baita partaide guzientzako laguntza ere.

Egitasmoaren handitasuna kontuan hartuz, Azkaingo Ideki elkarteak jakinarazi du erne egonen dela eta ez duela zernahi gauza egiten utziko.

EZKONTZAK

Pablo Napal Barrena eta **Maite Ibarra Juankorena**, Bera eta Sunbillakoa, ekainaren 17an.

Marcos Elcuaz Muñoz eta **Ainara Mayayo Cillero**, Iruñekoak Igantzin ekainaren 10ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Aner Fagoaga Otxoteko, Lesakakoa, ekainaren 4an.

Andrea Castro Mindegia, Zubietakoa, ekainaren 9an.

Nahikari Gurrutxaga Olazabal, Are-sokoa, ekainaren 17an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortziritan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Josetxo Etxepare Astigarraga Txispারে, Lesakakoa, ekainaren 8an, 65 urte.

Benito Donazar Gofii, Lesakakoa, ekainaren 8an, 86 urte.

Angel Irazoki Danboriena, Lesakakoa, ekainaren 9an, 70 urte.

Maria Perpetua Maritxalar Iturria, Lesakakoa, ekainaren 9an, 87 urte.

Maria Pilar Biurrarena Altzuri, Berakoa, ekainaren 10ean, 86 urte.

Teofila Ariztegui Iribarren, Doneztebekoa, ekainaren 10ean, 78 urte.

Manuel Serrano Otxoa, Iturengoa, ekainaren 12an, 52 urte.

Maria Carmen Beraza Iriarte, Leizakoa, ekainaren 12an.

Jose Mitxelena Jorajuria, Sunbillakoa, ekainaren 14an, 94 urte.

Maria Mariezkurrena Telletxea, Leitzakoa, ekainaren 15ean, 78 urte.

Maria Victoria Sanzberro Graziarena, Sunbillakoa, ekainaren 16an, 67 urte.

Margarita Legasa Yoldi, Berakoa, ekainaren 16an, 92 urte.

Francisco Mateo Martin, Berakoa, ekainaren 17an, 70 urte.

Domingo Belaunzaran Arraiago, Are-sokoa, ekainaren 18an, 92 urte.

Santiago Mitxelorena Mitxelorena, Etxalarkoa, ekainaren 19an, 76 urte.

Jose Mari Erasun Erasun, Doneztebekoa, ekainaren 20an, 68 urte.

Teofila ARIZTEGUI IRIBARREN Miguel AROZENA IRIBARREN Doneztebe, 2017-06-10 eta 2016-07-05

*Orain gaude ezin kontsolaturik
bihotzean dugun pena*

*Jainkoaren altzoan har ezazu atsedena.
Zeruan itxaroten daukazu zure senar maitea
duela urte bat jada. hasi zen bere bidea.
Miguel eta Teofila berriro elkarrekin zaudete*


*gure gau ilunak argituko dituen
izarra bihurtu zarete.*

*Gure oroimenean bizirik,
ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.*

ZUEN FAMILIA



Rekordatorioak
egiten ditugu



Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458

Sorterria utzi eta duela borts urte etorri zen gure eskualdera Irune Izkue Otxandorena (Barañain, 1991). Gaur egun, Elgorriaga du bizileku, baina aitzinetik Beintza-Labaienen

bizi izan zen. Han hartu zuen lehenbizikoz aikora. Eta gustua hartu eta Martin Mindegiaren aholkuekin urrutira ailegatu da. Bera da Urrezko Txapela jantzi duen lehenbiziko ema-

kumezkoa. Halakorik sekula pentsatu ez bazuen ere, ustekabean eta denbora laburrean, herri-kirolaren mundua barren-barrenetik bizi duen kirolari izatera pasatu da.

Irune IZKUE OTXANDORENA | Elgorriagako aikolaria

«Kirolaz gozatzen eta kirola bizitzen segitu nahi dut»

G. PIKABEA | ELGORRIAGA

Aizkora sekula eskue-tan hartu gabea izatetik, Urrezko Txapela jantzi duen lehenbiziko emakumezkoa izatera pasatu da Irune hiru urte eska-sean. Duela borts urte Beintza-Labaienera etorri arte, kalekumebatzen, eta orain, «nire bizitzako zati handia osatzen du herri-kirolak». Halaxe dio.

Duela 26 urte jaio zen Barañainen, berak dioenez, «herri-kirolerako afizio eta ohiturarik ez dagoen herri batean», eta bertzelako bizimodu baten bila gure eskualdera ailegatu zen, Beintza-Labaienera lehenbiziko eta Elgorriagara gero. Nahiz eta bere garaian osaba bat aikolaria izan, «Labaienera etorri arte ez zitzaidan piztu kirolerako harra. Familia bati belarrak eta iratzeak egiten laguntzen nion, eta zerbait ikusi zuten niregan: abilidade pixka bat, gogo... Auskalo zer izan zen. 2014ko urrian edo azaroan hasi nintzen aikoran, Martin Mindegiari erakutsi zidan».

Kirolgogorra da aizko-
ra. Izkuerentzat, ordea, «gogorragoa izanzen litzateke fabrika batean egunean zortzi orduz aritzea». Entrenamenduetan sufrituta, «ikasi» egiten duela erran digu: «lan gogorrak egin ahal izateko prestatzen laguntzen dit. Ez da sufrimendua, hobetzeko modua baizik».

AIZKORAN BAKARRIK EZ

Kañamarestarrek in ibiltzen da eta asteen bi egunez «serio» entrenatzen du: «egunetik egunera lan luzeagoa egiten saiatzen naiz, poliki-poliki hobetzeko». Halere, aikora ez da probatu duen kirol bakarra: «pala, mendian oinez eta bizikletarekin, arpanean, ingudearekin, kozkor biltzen, giza proban, segan, lasto altxatzen...». Dene-tan ibili da. Elikadura zaintzen duela ere adierazi digu: «denetarik jaten saiatzen naiz, nahiz eta barazki batzuekin borrokan ibili». Baina garbi du: «orain kirola dut buruan eta fundamentuzko zerbait egiteko gogoia dut. Kirolak ematen didan pozak aunitz balio du».

URDURI BAINA POZIK

Ekainaren 4an jantzi zuen Azpeitian bere lehenbiziko txapela, eta historiara pasatu da Urrezko Txapela jantzi duen lehenbiziko emakumezkoa baita. Hori «ohore handia» dela dio. Txapela soinean urduri sentitu zela aitortu digu: «ez nekien zer egin, zer erran, nora begiratu...». Baina aldi berean, «hagitz kontent».

Txapelketak, plazak, apustuak... Denak probatu ditu eta «denak gutuko»: txapelketak «gogotsu» hartzen dituela kontatu digu eta jokatu



Irune Izkue aikolaria.

ESKERRAK

«Kañamares familiari laguntzen didan gutziagatik, gurasoei hor egoteagatik, Elgorriagako jendeari eta aitzinera segitzeko animatzen nauen horri, eta Martin Mindegiari aikoran erakusteagatik, eskerrak eman nahi dizkiet».

duen apustu bakarra (iaz Maika Ariztegi iturendarrarekin, Iñaki Aierberen kontra) irabazia du. Apustuak, «oraingoz, harmailetatik ikusi nahiago» dituela aipatu digu, «baina nork daki, aitzinera go akaso ez diot ezetzik erranen apusturen bati». Erakustaldietan, berriz, «normalki aunitz disfrutatzen» omen du, «dakinazuna erakusteko aukera

ona dira». Baina nerbioak kontrolatzen ikasi behar duela ere azaldu digu: «nahiz eta lana ongi menperatu, nerbioak beti hor daude kontra egiten».

Batera edo bertzera, argi du «kirolaz gozatzen eta kirola bizitzen» segitu nahi duela: «lan txukunak eta dotoreak egin eta barrenean daukadan gutzia atera nahi dut».

MENDI LASTERKETAK → EKAINAREN 18AN

83 korrikalari Berroeta-Abartan-Saioa lasterketan

Mikel Beunza eta Ana Reina nagusitu dira 16,5 km-ko proban

TTIPI-TTAPA

Berroeta- Abartan-Saioa Mendi Lasterketa ekainaren 18an burutu zen. 83 parte hartzaile izan ziren orotara eta horietarik 66k lortu dute 16 kilometro eta erdiko proba akitzea. Igan de goizeko 9etan ateratu ziren Berroetatik eta lehena, irabazlea, Alkotzeko Mikel Beunza, ordubete 44 minutu eta 3 segundotan iritsi zen Saioara. Egun zoz-

ragarria izan zen, jende aunitz hurbildu zen herrira, baita Abartanera eta Saioara ere, batez ere lasterketa ikusteko.

Bero handia egin arren, uste baino hobeto akitu zuten lasterkariak ibilbidea, izan ere, lasterketan zehar, 6 puntutan edaria eta janaria hartzeko aukera izan zuten.

Gizonezkoetan, Mikel Beunzaren ondotik, Arantzako Daniel Iparagirrek (1:46:03) eta Elizondoko Unai Plazak (1:46:43) osatu zuten podiuma.

Emakumezkoetan, Ana Reina lesakarra izan zen bizkorrena (2:15:09) eta Lucia Oskozek



UTZITAKO ARGAZKIAK

Probako podiuma eta korrikalariak Saioarako bidean.

(2:23:13) eta Letizia Altunak (2:29:44) osatu zuten podiuma.

Baztandarren artean, gizonezkoetan Elizondoko Unai Plaza Arnal izan zen bizkorrena (1:46:43) eta emakumezkoetan, Amairuko Begoña Ariztegi Mikelestorena (2:59:49).

Eguerdikoa 12:30 al-

dera herrira agertu zirenean, sari banaketa eta parte hartzaile guztien artean sari zozketa ere egin zen (Martiko produktua eta Jauregia esnekiak). Berroetan ikusmin handia sortu zuen ekitaldiak eta gerturatuko guztientzat luntxa izan zen ondoren.

Berroetako herriak

ESKUALDEKOAK	
2	Daniel Iparagirre-Arantza
3	Unai Plaza-Elizondo
5	Joseba Elizagoien-Narbare
12	Agoitz Altzugarai-Lesaka
13	Imanol Otero-Elizondo
15	Xuban Goñi-Elizondo
17	Jaime Zalba-Elizondo
20	Patxi Barberena-Ziga
21	Unai Elizagoien-Bera
22	Xabi Irigoien-Elizondo
23	Dani Etxeberria-Arizkun
26	Asier Gamio-Berroeta
27	Gabon Gamio-Aniz
28	Iñaki Larrañaga-Bera
30	Asier Irazoki-Bera
31	Joxean Arruti-Lesaka
32	Iñaki Pikabea-Bera
35	Gorka Urtasun-Irurita
36	Joxe Mari Zamora-Oronoz
37	Ana Reina-Lesaka
39	Iñaki Yanci-Aniz
40	Xanti Dendarrieta-Erratzu
41	Xanti Lertxundi-Irurita
43	Jagoba Ramos-Irurita
44	Beñat Arregi-Oronoz
48	Rafa Alzate-Bera
49	Julen Agirre-Ziga
50	Jabier Arregi-Elizondo
52	Mikel Leiza-Lesaka
56	Joseba Oskariz-Lekaroz
58	Asier Etxeberria-Lesaka
64	Imanol Arretxea-Elizondo
65	Begoña Ariztegi-Amairu

eskerrak eman nahi dizkie parte hartzaile guztiei eta nola ez, antolakuntzan lagundu zuten guztiei, babesle eta laguntzaile guztiekin batera. Arrakastatsua izan da lehenengo edizioa eta hurrengoetarako hatziak erein ditu Berroeta-Abartan-Saioa Mendi Lasterketak.

HERRI KIROLA → NAFARROAKO KOXKOR BILTZE TXAPELKETA

Maika Ariztegi berriz ere txapeldun suertatu da

Gizonezkoetan Txantreako Aitor Blanco izan zen garaile

TTIPI-TTAPA

Nafarroako lokotx biltze txapelketa ekainaren 18an jokatu zen, Uhartan. Kirolariek 50 lokotx bildu behar izan zituzten, ahalik eta az-

karren, 1.25 metrotara pausatua, bi lerrotan.

Emakumezkoetan, Maika Ariztegi iturndarra (7:57) izan zen txapelduna. 14 aldiz Euskal Herriko txapelduna izana Nafarroako txapelduna ere izan da hainbat aldiz eta pronostikoa bete ditu aurten ere. June Etxeberria txantrearrak (8:11) eta Ainhoa Iraizoz elso-

arrak (8:18) osatu zuten podiuma. Laugarren Antsoaingo Irune Biurrun izan zen (8:27) eta bosgarren Antsoaingo Saioa Zurbano (9:32).

Gizonezkoetan, berriz, Aitor Blanco txantrearrak (6:34) suertatu zen garaile, Fernando Etxegarai beratarrak (6:44) bigarren eta Iñigo Lasaga etxalartarrak (6:46) hirugarren.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gizonezkoen eta emakumezkoen podiumak.

Emakumeetan, Maika Ariztegi eta June Etxeberria sailkatu dira Euskal Herriko txapelketara, gizonezkoetan Fernando Etxegarai eta Iñigo Lasaga, Aitor Blancock ezin izanen baitu

bertan egon. Irailaren 9an Saran jokatu den Zazpi herrialdeen arteko txapelketa ere Nafarroako selekzioarekin Fernando Etxegaraiak parte hartuko du, arrazoi berarengatik.

ekainak 29 - uztailak 13

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Kontzertuak



ZUGARRAMURDI | 2017.07.06

Igelaren Bandak Zugarramurdiko leze barrenean

Zarauztar eta bilbotarrek ostatatuko Igelaren Bandak taldeak kontzertua eskainiko du lezean. 2013ko martxoan *Pre-guntatxo bat* lana karrikaratu zuen eta 2015eko udazkenean *Debalde festa*.

Antzerkiak



GOIZUETA | 2017.07.01

'Goizuetan bada' antzerki ibiltaria larunbatean

Herritarrek duela 27 urte antzeztutako *Trabukolanaren* bertsio berria estreinatuko dute larunbatean, Olatz Beobideren zuzendaritzapean. Antzerki ibiltaria denez, zortzi agerraldi eginen dituzte herrian barna.

Azokak



SARA | 2017.07.03

Astelehenero artisau eta merkatarien azoka plazan

Uztailaren 3tik irailaren 25era arte (irailaren 11n ez) astelehen goizetan merkatua izanen da plazan. Artisauak, bitxi eta jantzigileak, merkatariak... Aukera zabala izanen da. 09:00etan irekiko dute merkatua.

Erakusketak

BERA

'Bidasoa lokatzetik begirada' eskultura, collage digital, pintura eta bideo erakusketa

Uztailaren 16ra arte astearretik igandera Kultur Etxean, 10:00-14:00 eta 15:00-18:00. Nerea Fagoaga, Mikel Telletxea eta Andrea Gouraden lanak.

Tailerrak

LESAKA

Kamiseta tailerra

Uztailaren 9an 18:00etan haurrentzako. Txoznen gunean.

Ikastaroak

DONEZTEBE

EGA ikastaroa

Abuztuaren 6tik irailaren 1era Doneztebeko IKA euskaltegiak antolatua. Izenematea abuztuaren 3ra arte. Informazio gehiago: 948 451555ean edo *malerreka@ikaeuskaltegiak.eus*.

Antzerkiak

GOIZUETA

'Goizuetan bada' antzerki ibiltaria

Uztailaren 1ean 21:00etatik

aurrera. Plazan hasi eta landenean, Goiko Iturrin, Irisarriko frontoian eta berriz ere plazan eginen dituzte saioak.

BERA

'Harritik hazia' herri antzerkia hiru egunez

Uztailaren 21, 22 eta 23an 20:00etan Kultur Etxean. Oroimen historikoan oinarritutako herri-antzerkia. Xehetasun gehiago 10. orrialdean.

Kontzertuak

LESAKA

Musika Bandaren emanaldia

Ekainaren 30ean 22:00etan

Onin Zubiaren gainean. *160 urte ondoren* disko berria ere aurkeztuko du.

Fermintxo Rock

Uztailaren 6an 21:30etik aitzinera txoznen gunean: Zakill nekez, Sarkor eta Kalera taldeak.

Tokan2 La Polla, Jai Alai Guateke eta Tirri&Tery

Uztailaren 7an 20:30etik aitzinera txoznen gunean.

Reimy txoznen gunean

Uztailaren 8an 23:00etan.

Bi zaldi txoznen gunean

Uztailaren 9an 20:00etan.

ELIZONDO

Kea ahots taldea

Uztailaren 1ean 20:30ean elizan. Sarrera 8 euro. Elizondoko Abesbatzaren 75. urteurrenaren harira antolatu dute.

SARA

Larrun kanta abesbatza

Uztailaren 6an 21:30ean elizan. Sartzea 10 euro, 14 urtetik beheitikoek urririk.

Ezpeletan kantuz

abesbatzaren emanaldia

Uztailaren 13an 21:30ean elizan.

PROPOSAMENA

LESAKA-AZPILKUETA

Azpilkuetan eta Lesakan sanferminak ate joka

Uztailean sartuta, sanferminak hartuko dute herriko besten lekukoa. Azpilkuetan uztailaren 5ean hasiko dituzte bestak eta uztailaren 8an, Hauspolariek taldearen emanaldiarekin akituko dituzte. Lesakan, kolore zurigorriak uztailaren 6tik 10era gailenduko dira. Tarte horretan, herritarrak ez ezik, inguruko eta Euskal Herriko haibat bazterretako jendea ibiliko da besta giroan.



ZUGARRAMURDI

Igelaren Bandak taldearen emanaldia

Uztailaren 6an 18:00etan lezean. Sartzea 4 euro.

ERRATZU

Balerdi Balardi taldea

Ekainaren 28an 23:00etan ZubiPuntan.

BERA

Mariatxiak

Uztailaren 1ean 21:30ean Herriko Etxeko plazan.

Bestak

DONEZTEBE

Sanpedroak

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra. Xehetasunak 688. alean.

ERRATZU

Sanpedroak

Ekainaren 28tik uztailaren 1era. Xehetasunak 688. alean

ARESO

Sanpedroak

Ekainaren 29tik uztailaren 1era. Xehetasunak 688. alean

AZPILKUETA

Sanferminak

Uztailaren 5etik 8ra. Xehetasunak 47. orrialdean.

LESAKA

Sanferminak

Uztailaren 6tik 10era. Xehetasun gehiago 11-17 orrialdeetan.

Ospakizunak

SARA

Kermeza

Uztailaren 9an meza, pilota partidak, bazkaria, animazioa... Goiz-arratsaldez.

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra

Uztailaren 16an.

Nire aukera



Pierre BASTRES

Senpereko berriemailea

«Eskuarak eta kulturak behar lukete arta gehiago ahaldunengandik»

Eskualdun zaharberrieta» dela erranez aurkeztu du bere burua Pierrek «ttikitatik eskuara aditu dut etxean, baina gero ahantzi zait eta AEKri esker berriz ikasi dut». Ongi ikasi ere, horren erakusle da maiatzaren hastapenez geroztik Ttipi-Ttapako Senpereko berriemailea dela, «arras gustura aritzen naiz, ez nuen erranen gertatuko zitzaidala». Aldizkarian hasi berria bada ere, argi du gustura emanen lukeen berria «inkesta baten arabera Senpereko biztanle gehienek badakite eskuara eta egun guziz mintzatzen dute». Egun, errealitatek urrun dagoen albistea da, nahiz eta aurrera pausoak eman diren «lehen kirol mundua eta kultura elgarretarik aski berex zagotzin. Orain, eskuara, besta, elkarte eta kulturari esker harreman gehiago badira». Eskuararen presentzia gehiago indartzeko «eskuarak eta kulturak behar lukete arta gehiago ahaldunengandik. Lapurdiko bertze herri ainitzetan bezala, axaetik baik ez da bermatzen eskual kultura, egiazko indarrak eman gabe». Etorri-berriak ere desafio handi bat dela uste du «lan egin behar da eskuarak behar duentokia izan dezan. Erdaldunak behar dira integratu baztertu gabe, baina eskuaraz mintzatzetik ez da gelditu behar».

Senperen gertatzen denaren berri, inork baino hobeki dakienez, bertako txoko berexi bat aipatzeko ere galdegin diogu: «Donibane Lohitzune, Ahetze eta Senpere arteko landa bat, ametz, pinu, ote eta iratzeko xoko bat, itsasotik hurbil ikusten da, gerizatua eta hutsa. Ibilaldi baketsua». Asteburuko plan bat proposatzeko eskatuta, bere afizioak lotu ditu «hasteko, surfaldi on bat Bizkaiko hondartza galdu batean, gero ibilaldi bat Nafarroa edo Xiberoko mendietan barna. Ondoren kafe bat hartzea Senpereko ostatu batean hurbilekoekin eta akitzeko kantu afari bat». Bestazalea izan bada ere, mahai-inguruko kontu eta kantuak nahiago ditu orain «mendian, borda batean, kantuz eta irri eginez». *Kantatzen ez duenak zorionik ez du dio abesti ezagunak eta agian, kantua izanen da Pierreren irribarrearen sekretua.*

«Lehen kirol mundua eta kultura elgarretarik aski berex zagotzin. Orain, eskuara, besta, elkarte eta kulturari esker harreman gehiago badira».

Azokak

SARA

Bertako ekoizleen azoka

Ortziralero 16:30etik 20:30era frontoian.

Artisau eta merkatarien azoka

Astelehenero 09:00etatik aitzinera plazan.

Lehiaketak

LEITZA

Plazaola aldizkarirako azal lehiaketa

Ekainaren 30era arte aurkez daitezke lanak.

ARANTZA

Arantzako txoko politenaren lehiaketa

Uztailaren 15era arte aurkez daitezke lanak.

ESKUALDEA

III. Argazki Lehiaketa erran.eus-en

Irailaren 12ra arte aurkez daitezke lanak. Xehetasunak 36. orrialdean.

ZUGARRAMURDI

'Ixtorioak begarrietara' kontakizun lehiaketa

Uztailaren 16ra arte aurkez daitezke lanak. 18 urtetik goitikoentzat da. Xehetasunak 49. orrialdean.

Kirol hitzorduak

DONEZTEBE

Nafarroako Sega Txapelketa

Uztailaren 2an 11:00etan Mateoren etxearen gibebeko belagietan. Xehetasun gehiago 36. orrialdean.

IRUÑEA

Nafarroako Herri Kirol Txapelketak

Uztailaren 8tik 14ra Foruen Plazan. Xehetasun gehiago 36. orrialdean.

Ekitaldi gehiagoren berri izateko, begiratu: **erran.eus** (agenda)

ETXEBIZITZAK

salgai

ELIZONDO. Akullegi ka-
rrikan 2 logelako pisua
salgai. Prezioa: 57.900
euro. ☎646 774117.

ITUREN. Neurri desber-
dinetako apartamentuak
hagitz prezio interesga-
rrian salgai. ☎948 451337
/ 667 275013.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA,
ULTZAMA eta
IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak,
partzelak, baserriak,
bordak, lokal komertzia-
lak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta
BIDASOA alderdietan**

- Eskaintzagarriak base-
rriak, bordak eta
lurrak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai,
mobeztatua. 2000
m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko
pisua salgai. Egoera
oso onean dago. 3
logela, jangela, egon-
gela, 2 komun, sukal-
de mobeztatua eta
17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ORONZO-MUGAIRI. Pi-
sua salgai, 90 m²ko aza-
lerakoa. Etxe mobeztat-
tua, margotu berria, be-
rogailua, igogailua eta
trastelekuarekin. 3 loge-
la, egongela, sukaldea
eta bainugela ditu. 90.000
euro negoziagarriak.
☎948 585036.

LEITZA. Ingurune natura-
lean dagoen jatetxe-osta-
tua salgai. Modu onean.
☎948 397234.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA


TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

HENDAIAn dagoen mo-
bil-home bat errentan
emateko asteburueta-
ko edo asteka. ☎667
308826.



BERA. Itzea karrikan
apartamentua errentan
emateko. ☎609 973306.

IRUÑEA. Mendebaldea
auzoan pisua errentan
emateko. 3 logela (bat bi
ohatzetako), 2 komun,
egongela, sukaldea, ga-
rajea. Ospitaleetatik hur-
bil. Kontserbatorio eta Li-
burutegiaren ondoan.
Prezio onean. ☎628
581031.

ALMUÑECAR hirian,
Granadako kostatik tropika -

lean, etxebizitza errentan
emateko abuztuko biga-
rren hamabostaldian.
Pertsona bat edo biren-
tzat egokia. Hondartza-
ko lehen lerroan dago,
igerilekua eta bista ede-
rrak. Guztiz ekipatua,
aire egokituarekin. ☎658
943702.

BERA. Bidasoa Karrikan
etxebizitza errentan emate-
ko. Bi logela, bi komun,
sukaldea eta egongela.
Oso argitsua. Garajeko
bi marra eta trasteleku-
arekin. Igogailuarekin.
☎680 549808.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

DONEZTEBE. Floriste-
ria errentan emateko,



atenditu ezin delako.
☎699 333112 edo 689
800257.

LANA
eskaintzak

**On-line lanean aritze-
ko** zerbitzariak, komer-
tzialak, autonomoak edo
bertze langileak behar di-
ra. ☎699 382673.

ELIZONDO. Juli osta-
tuan pertsona bat be-
har da mahaiak zerbit-
zatu eta barran aritze-
ko. Sukaldea dakiena.
☎647 650248 / 628
054435.

DONEZTEBE. Titi osta-
tuan sukaldean aritze-
ko langilea behar da, la-
naldi osoan aritzeko. In-
teresatuak ostaturtik pa-
satu behar dute.

BERA. Sukaldeko altza-
riak salduko dituen komer-
tziala behar dugu. Be-
harrezkoa da frantse-
sez jakitea. Orduetaz
solastuko gara. Bidali

curriculum: amets@mueblesamets.com.

LESAKA. Atxaspi hote-
lean bi langile behar di-
tuzte: langile bat goizez,
gosariak prestatu eta
garbiketa egiteko. Bes-
tea goiz eta arratsaldez,
harrera lanak eta mar-
keting lanak egiteko.
Bidali curriculum: ali@atxaspi.com helbi-
dera edota deitu telefo-
noz. ☎673 339920.

IRUN. Ostatu batean
esperientzia duen zerbi-
tzaria behar da udan lan
egiteko. ☎629 676284.

BERA. Frantses pixka
bat dakien pertsona be-
har da Larungo benta
batean udan lan egite-
ko. ☎948 631100 / 607
566022.

LEITZA. Iruso jatetxe-
an zerbitzaria behar du-
te asteburueta-
ko. ☎669 013294.

SUNBILLA. Ariztigain
kanpinetako jatetxean,
jangelan, tabernan eta
sukaldean esperientzia
duen langilea behar du-
gu uztaila eta abuztu-
rako. Interesatuak dei-
tu. ☎660 798249.

BERA. Auzoan zerbitza-
riak behar dira. ☎657
472020 (whatsapez ja-
rri harremanetan).

LESAKA. Atxaspi ta-
bernan, sanferminetan,
ostiral eta larunbatean,
bestetan aritutako bi
zerbitzari profesional
behar ditugu. ☎673
339920 edota ali@atxaspi.com helbidera
curriculum bidali.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(ekainaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 63 €

Zerri gizena
1,400 € kiloak.

Zerramak:
0,810 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,32

1.koa 4,10

2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,34

1.koa 4,20

2.koa 4,00

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 160,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,26/3,36

Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,00/6,60

8-10 kilokoak: 5,30/5,80

BERA. Lixioia ostatuan zerbitzaria behar duite egun erdiz aritzeko. ☎948 631271.

LANA eskariak

Haurrak zaintzen edota animaliekin lan egiteko interesa duen **neska lan bila** Haur Hezkuntzako titulazioarekin (praktikak zenbait haur eskolatan eginak). Disponibilitate osoa ekainaren 16tik aurrera. ☎675 336624.

Batxilergoa egiten ari den neska bat naiz eta uda honetan **Beran haurrak zaintzeko prest** nago. ☎608 406318.

Garbiketara lanetan **esperiencia handiko emakumea** lan bila. Adinekoak zaintzen ere esperientzia handia duena. Garbiketara lanetarako edota adinekoak zaintzeko prest. ☎644 841583.

Zaintzen esperientziadun emakumea lan bila. 20 urteko esperientzia adinekoak zaintzen baita desgaitasuna duten pertsonak zaintzen ere. Adinekoak edota ezinduak orduka edota internan moduan zaintzeko prest. ☎693 452481.

Emakume batek **interna moduan adineko jendea zaintzen** lan eginen luke. Arduratsua eta esperientzia handia duena. ☎696 812598.

BAZTAN. Haurrak zaintzen edota animaliekin lan egiteko interesa duen Baztango neska lan bila Haur Hezkuntzako titulazioarekin (praktikak zenbait haur eskolatan eginak). Disponibilitate osoa ekainaren 16tik aurrera. ☎675 336624.

Udan haurrak zaintzeko interesa duen neska beratarra naiz. ☎648 530557.

Ostalaritzan esperientzia handiko **emakumea lan bila:** ostalaritzako negozioen kudeaketa, 30 urteko esperientzia barran, sukalde languntzaile bezala esperientzia, zerbitzari, garbiketara lanetan ere aritua. Adinekoak

INDAUTO TAILERRAK *leite!*
Mekanika | Elektrizitatea
Pneumatikoak



Peugeot Partner
1.6HDI - 2013 urtekoa 75000km



Citroen Berlingo
2014 urtekoa 1.6HDI tonic, multispace ekipamendurekin

Pol. Ind. Ordoki ARIZKUN - www.indauto.es
T. 948 453 488 - M. 675 324 960

BERAKO TAILERRAK



FORD CONNECT. Furgoneta. Egoera onean.
7700 €
DIESEL



PEUGEOT 307. Egoera onean.
GASOLINA

N-121-A errepidea 63.km BERA
T. 948 631 157 - 659 092 472

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak



Kantillonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

SANTESTEBAN TAILERRAK



Matrikulatu berria!
KM 0
CLIO ZEN DCI 90 CV
Nabigatzailea, aparkatzeko radar, llantak



Matrikulatu berria!
KM 0
KANGOO PROFESIONAL
DCI 90 CV. Aire egokitua eta bluetooth integratua



Matrikulatu berria!
KM 0
MEGANE INTENS DCI 90 CV
Nabigatzailea, aparkatzeko radar, llantak

AUKERA PAREGABEA!
Leitzoko errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

edota haurrak zaintzen ere esperientziaduna. Arratsaldeetan disponibilitatea. ☎646 330956. Majisteritza ikasten ari den **Doneztebeko neska euskaldun** bat umeren bat zaintzeko prest. ☎689 837760.

Berako neska euskalduna eta hurrekin esperientzia duena, uztailan arratsadez eta abuztuan goiz eta arratsaldez Bortzirietan haurrak zaintzeko prest. Euskaraz, erdaraz eta ingelesez solasten dut. ☎676 389481.

Doneztebeko gazte arduratsu batek haurrak zaintzen edo zerbitzari moduan lan eginen luke. Ordutegi arazorik gabe. ☎616 873984.

Zonaldean lan bila nabilen **mutila** naiz. Zurgintza ikasketekin. Metal, egur eta lorezaintzan esperientziaduna. Baita ostalaritzan platerak garbitzen ere. Sektore hauetan edota besteetan lan egiteko prest. Arduratsua eta ikasteko trebea. ☎635 017866.

Emakumezkoa lan bila. Adinekoak zaintzen, sukaldari laguntzaile edo garbiketara lanetan esperientzia duena. Lan horietan aritzeko interesatua. ☎644 863469

ESKUALDEA. Neska lan bila. Adinekoak internan bezala edo orduka zaintzeko, haurrak zaintzeko eta sukaldari laguntzaile bezala ere esperientzia eta interesa. ☎632 550393.

Elizondoko **neska gaztea** lan bila. Haurrak edota adinekoak zaintzeko nituzke, etxeak garbitu edota zerbitzari lanetan ariko nintzateke. Esperientzia haurrak zaintzen, baita garbiketara ere. ☎662 356181.

ZERBITZUAK denetarik

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

ANIMALIAK oparitzeko

Bost hilabeteko **Border Collie zakurra** opari. ☎675 336624.

LEITZA. Collie arrazako txakurkumeak oparitzeko. ☎948 610689 / 636 022311.

Zakurkume mistoak oparitzeko. Bi hilabetekoak. Ama Breton epagneul arrazakoa eta aita Border Collie. ☎660 466280 (deiak, sms edota whatsapp).



ANIMALIAK salgai

Ardi beltz nanoak salgai. ☎689 531012.

DENETARIK salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



DONEZTEBE. Haritz egurra salgai, 39 euro tonna. Prezioa Donezteben jarria da. ☎686 314036 (deitu 09:00-13:00 edo 15:00-17:00 astetartez).



IGANTZI. logela salgai: bi ohatze (90 cm) beren

koltxoi eta koltzekin, mesanotxea (3 kajo), idaz-mahaia aulkarekin eta apalak. Pinuzkoa, berdez tindatua. Guztia 500 euro. ☎661 767398.

ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

DENETARIK galdu-aurkituak

GOIZUETA. Herriko Plazan giltza batzuk aurkitu dira. Galdu dituen Goi-zuetako Udaletxera joan daiteke biltzera. ☎948 514006.

ARANTZA. Antiojo graduatuak aurkitu dituzte. Herriko Etxean daude.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa **erran.eus** en

IRAGARKIA 10
2 aldizkaritan interneten **EURO**

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



Maripurtzilek udalekura joan nahi du lagunekin, baina ez du bere gela inoiz txukuntzen eta orain ez ditu behar dituen gauzak aurkitzen. Non ote dira?

1 Bainujantzia

2 Largabista

3 Argazki-kamera

4 Eskumuturreko ordulari gorria

5 Betaurreko laranjak

6 Lotarako zakua




Hemen duzun saskiaren eta marrazkikoaren artean lau diferentzia daude. Zeintzuk dira?





URRATSEZ URRATS

Lagundu detektibeari arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan, giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean



DADOA

Zein kubo aterako zaio Maripurtzili sei aldeak tolestu eta itsasten ditunean, A, B, C, edo D?



urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



KATTALIN AGARA HERNANDEZ etxeko printzesak urtea beteko du ekainaren 29an. Aunitz urtez! Segi orain arte bezain bixia izaten, ez galdu irri polit hori



Ekainaren 29an **JULEN SARRATEAK** eta **UXUE BIKONDOK** 3 eta 10 urte beteko dituzte. Zorionak bikote!!! Arras ongi pasatu eguna eta zuen bizkotxoaren zain egonen gara. Muxu pottolo bat biendako familia guztiaren partetik, eta bereziki Aritz eta Oinatzen partetik.



Leizako **GANIX RODRIGUEZ URRUTIAK** ekainaren 28an 9 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu.



MADDI ANE SAINZ ETXABIDEK ekainaren 20an 2 urte bete ditu. Aunitz urtez matxia!! Besarkada eta muxu pila bat Katixa, atta eta amaren partetik!



EIDER MIGELTORENA ARRETXEAK uztailaren 2an 2 urte beteko ditu. Zorionak! Berrota eta Narbareko familia eta bereziki Aieko, attatto eta amabxo.



BEÑAT eta **MIKEL PORTU BARINAGAREMENTERIA** leitzarrek 9 urte beteko dituzte ekainaren 29an. Zorionak eta bederatziko muxu handi familia osoaren partetik, eta bereziki Lesaka, Leizta eta Manzanoseko lehengusuen partetik.



ANTTON IPARRAGIRRE ITURZAETAK urteak beteko ditu uztailaren 2an. Aunitz urtezzzzzzzz!!!! Ongi ongi ospatuuuuu!!! Gozatuuuuuuu!!!! Muxu handi bat etxeko guztien partetik!



ttipi-ttapa



DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu:

IRUDI KORPORATIBOAK

- Logotipoak eta Papergintza •

ARGITALPENAK

- Aldizkariak, Katalogoak •
- Bestetako programak •
 - Udal aldizkariak •
 - Folletoak, Liburuak •
 - Mapak •

BERTZE EUSKARRIAK

- Boletoak, Pegatinak, Lonak •
- Roll Up, Panelak Poltsak •
- Txapak, Rotulazioak •

EGUTEGIAK

- Sakelekoak, Paretakoak •
- Mahai gainekoak •





HAU EZ DA ZABORRA, ONGARRIA BAIZIK

Gai organikoen hondakinak bereizi eta birziklatzea eskuzabaltasunez eta zurekiko eta etorriko direnekiko konpromisoz jokatzeko da. Zure laguntzak gas kutsatzaile gutxiago igortzeko, lurerrako ongarririk ekoizteko eta energia berriztagarriak sortzeko aukera ematen du.

EZ EGIN PASO ORGANIKOAZ!



ESTO NO ES BASURA, ESTO ES ABONO

Separar y reciclar los restos de materia orgánica es un compromiso irrenunciable y un acto generoso con los tuyos y con los que vendrán. Tu colaboración permite reducir la emisión de gases contaminantes, producir abono para la tierra y ahorrar energía.

¡NO PASES DEL MARRÓN!



Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Ko(k)ontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

688 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Camelot - 2 sarrera

Rosa M^a Indaburu Irigoien | BERA

Irrisarri land - 2 sarrera

Elurre Iriarte Bañez | ARIZKUN

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Karlos Mindegia Mitxeo | OITZ

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Joseba Etxepare Gartziaarena | LEGASA

Onddo ta punto - Kamiseta bat

Joseba Aldabe Telletxea | DONEZTEBE

La Rhune - 2 sarrera

Juli Irigoien Sarratea | IRURITA

Elkar argitaletxea - Liburu bat

Nuria Mujika Zubillaga | LESAKA

Elkar argitaletxea - Liburu bat

Marivi Saralegi Arribillaga | OTSAGABIA

Elkar argitaletxea - Liburu bat

Jesus Azpiroz Bengoetxea | LEITZA

2 tiket



BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera helduentzat

**LI
BU
RU
AK**



Ekin bilduma.

- Nire aita ezin izan nuen salbatu
- Dorretxe zaharreko misterioa
- Azken urtea Lizeoan

ibaizabal

www.ibaizabal.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.bonberenea.com



www.camelotpark.es